



Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea

Fisiología Saila

**Etete-aldiaren eragina ariketa fisikoa egiten
duten pertsona nagusien bizi-kalitatean,
funtzio fisikoan eta biomarkatzaileetan**

Doktorego-tesia

Izaro Esain Castañares

Zuzendariak

Susana María Gil Orozko Doktorea

Ana Rodríguez Larrad Doktorea

2018

ESKER ONAK

Lerro hauek idazten jarri izanak adierazten du orain dela lau urte hasi nuen garaiaren bukaera iristear dagoela.

Behin lana eginda, lerro hauek idaztea errazagoa izango zela uste nuen, izugarritzko gogoa bainuen sentitzen nuena idazteko, baina momentu honetan nondik hasi jakin ez dakidala aurkitzen naiz. Jarraian, lan honetan era batera edo bestera zuen lagunza eskeini didazuen guztioi eskerrak ematea gustatuko litzaidake. Espero dut inor ez ahaztea baina, horrela bada, aldez aurretik parkamena eskatzea gustatuko litzaidake.

Lehenengo eta behin, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Fisiologia Sailari eskerrak eman nahi nizkiobe, tesi hau egiteko baimena eman izanagatik, batez ere, beste fakultate batetik nentorrela kontuan izanik. Eskerrik asko Saileko zuzendari izan zareten Luis Casis eta Jon Irazusta Katedradunei. Era berean, Eusko Jaurlaritzari ere eskerrak ematea gustatuko litzaidake, lau urte hauetan ikerketa hau aurrera eramateko babes ekonomikoarengatik.

Jarraian, tesi honen zuzendariak izan diren Susana Maria Gil Doktoreari eta Ana Rodriguez Larrad Doktoreari eskerrak ematea gustatuko litzaidake. Argi izan, jarraian idatziko ditudan hitzak ez direla nahikoak zuen lagunza eskertzeko. Hau guztia zuek gabe ezinezkoa izango baitzen. Susana, mila esker masterrean nire bidean azaltzeagatik eta momentu horretatik beti niri laguntzeko prest egoteagatik; bai arlo profesionalean eta baita pertsonal eta emozionalean eskainitako guztiarengatik! Ana, eskerrik asko zuri ere bide honetan eman didazun denagatik eta lagundu didazun guztiagatik. Edozein unetan niretzako eskuak zabalik izateagatik, mila esker. Beraz, neskak, lan hau ere ZUENA da!

Getxo Kirolak erakundeari ere eskerrak ematea gustatuko litzaidake hasieratik proiektu hau egiteko baimena emateagatik. Eskerrik asko batik bat bertako zuzendaritzari, teknikariei eta langile guztiei beti laguntzeko prest egoteagatik. Estuki eskertu nahiko nieke ikerlanean parte hartu duten pertsonei haien jarrera, zuek izan zarete hau guztia posible egin duzuenak.

Ondorengo lerroetan lankideei eskerrak eman nahi dizkiet. Montse eskerrik asko nire ikerketaren hasieran ondoan egon izanagatik eta baita zuei ere lau urte hauetan eman didazuen guztiagatik eskerrik asko Jon Torres Unda, Javi Gil, Fatima Ruiz eta Bego Sanz.

Iraia Bidaurrazaga eta Iratxe Duñabeitia mila esker momentu guztieta hor egoteagatik, erortzen nintzen bakoitzean hor egon zarete berriz altxatzeko eta ahal zenduten guztian laguntzeko. Mila esker neskak!

Gotzone Hervas, IMB-ean zer egingo nuke zu gabe... Mila esker egunero nire ondoan egon izanagatik eta edozertan laguntzeko prest izateagatik. Eta zu, Miriam, tesi honen azken txanpan heldu zinen baina, hala ere, izugarri eskertu behar dizkizut zure eguneroko animoak eta baikortasuna.

Eskerrik asko Nerea Izaguirre, Ana Pérez eta Miren Regil zuen laguntza eta alaitasunagatik probak aurrera eramateko unean.

Eskerrik asko, nire koadrilakoei eta baita Gasteizeko pisu-kideei bide honetan eman dizkidazuen animoengatik.

Nahiz eta bukaerarako utzi zaituztedan ez du esan nahi garrantzi gutxiago duzuenik. Eskerrik asko "family", enano eta aitatu, bihotz-bihotzez lau urte hauetan, momentu on eta txar guztieta eta, batez ere txarretan, hor egotegatik (onetan edonor egoten da eta). Amuma, ez dakit zenbat bider esan didazun "oníño horregaz zabiz?". Ba, heldu da eguna! Zuri be eskerrik asko gauero telefono bitartez bidalitako animoengatik. Amaia, muchisimas gracias por todo tu apoyo durante estos cuatro años y, sobre todo, por estar ahí en los malos momentos. Thank You!

Bueno eta, zuri Markel, eskerri asko. Bide latz honetan momentu oro irribarre bat ateratzeko gaitasuna edukitzeagatik, beti zure besoak zabalik izateagatik eta guztiaren gainetik jada nik ni nire buruan sinesten ez nuenean ere nigan konfiantza osoa izanagatik.

Eta, azkenik, AMATXU, bide honetan ondoan eduki ez zaitudan arren, bide honen hasiera eta hau egiteko helburua aspaldi eduki nuen argi. Erabakia hartzeko momentuan, beste momentu guztieta moduan, hor egon zinen animatzen eta gai nintzela adierazten. Momentu horretako hitzak lau urte hauetan hainbat aldiz gogoratu ditut eta jakin izugarrizko indarra eman didatela hau aurrera ateratzeko unean.

Saiatuko naz xuabe
arkatza hartuz eskuen
lan hau zuri eskaintzen
egon ez arren halanbe

Nire bizien zutabe
Ziñela ederto dakit
Sentitu bainaiz ni hutsik
Zure atxutxoirik gabe

Nire une latzenetan
Buruan lehena beti zu
akorduekin jantzi doztazu
Irribar bat ezpanetan

Jakin, nahiz eta ez egon lekuan
Beste guztiak bezala
Beti egongo zarela
AMA nire bihotzean

Doinua
(Habanera)

AURKIBIDEA



AURKIBIDEA

| | | |
|-----------|---|-----------|
| 1. | LABURDURAK | 15 |
| 2. | SARRERA | 19 |
| 2.1 | Egoera demografikoa | 19 |
| 2.2 | Zahartze prozesua..... | 20 |
| | Zahartzearen eragina nerbio sisteman | 21 |
| | Zahartzearen eragina gihar-sisteman eta hezurduran | 23 |
| | Zahartzearen eragina sistema kardiobaskularrean..... | 24 |
| | Zahartzearen eragina arnas-sisteman..... | 25 |
| 2.3 | Jarduera fisikoa | 25 |
| | Kontzeptuak | 25 |
| | Jarduera fisikoaren onurak | 26 |
| | Jarduera fisikoaren eragina erorketetan | 28 |
| | Jarduera fisikoaren eragina bizi-kalitatean..... | 29 |
| | Jarduera fisikoaren eragina biomarkatzaleetan | 31 |
| 2.4 | Ariketa fisikoa etetea | 33 |
| | Ariketa fisikoa etetearen eragina funtzi fisikoan | 34 |
| | Ariketa fisikoa etetearen eragina bizi-kalitatean | 34 |
| | Ariketa fisikoa etetearen eragina biomarkatzaleetan | 35 |
| 3. | HELBURUAK..... | 40 |
| 4. | MATERIALA ETA METODOAK..... | 45 |
| 4.1 | Lagina | 45 |
| 4.2 | Errekutamendua..... | 46 |
| 4.3 | Ikerketaren diseinua | 48 |
| 4.4 | Ariketa fisiko gidatua | 49 |
| 4.5 | Metodoa..... | 50 |
| | Miaketa fisikoa..... | 50 |

| | |
|--|-----------|
| Galdetegjak..... | 52 |
| Egoera fisikoa | 56 |
| Odol analisiak | 62 |
| Analisi estatistikoa..... | 63 |
| 5. ARTIKULUAK | 69 |
| 5.1 1. Kapitula: <i>Osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea, eskuko indarra eta erorketak etete-aldian zehar, ariketa fisikoa egitera ohitura dauden pertsona nagusiengan</i> | 69 |
| Abstract | 69 |
| Laburpena..... | 71 |
| Sarrera..... | 73 |
| Metodoak | 76 |
| Emaitzak | 79 |
| Eztabaidea | 84 |
| Mugak..... | 87 |
| Ondorioak..... | 87 |
| 5.2 2. Kapitula: <i>Hiru hilabeteko ariketa fisikoa eteteak duen eragina funtziokoan eta bizi-kalitatean, erregulartasunez ariketa fisikoa burutzen duten pertsona nagusiengan.....</i> | 91 |
| Abstract | 91 |
| Laburpena..... | 93 |
| Sarrera..... | 95 |
| Metodoak | 97 |
| Emaitzak | 100 |
| Eztabaidea | 105 |
| Ondorioak..... | 108 |
| 5.3 3. Kapitula: <i>Ariketa fisikoaren etetea pertsona aktibo nagusiengan: hanturazko markatzaileen eta adiponektinaren eragina.....</i> | 111 |
| Abstract | 111 |
| Laburpena..... | 113 |
| Sarrera..... | 115 |

| | |
|--|------------|
| Metodoak..... | 117 |
| Emaitzak..... | 120 |
| Eztabaida..... | 128 |
| Ondorioak | 132 |
| 6. Eztabaida..... | 135 |
| 7. Mugak eta etorkizunerako proposamenak..... | 147 |
| 7.1 Mugak | 147 |
| 7.2 Etorkizunerako proposamenak..... | 148 |
| 8. Ondorioak..... | 151 |
| 9. Bibliografia | 155 |
| 10. Eranskinak | 197 |

1. LABURDURAK



1. LABURDURAK

| | |
|--------|---|
| MOE | Munduko Osasun Erakundea |
| INE | Espainiako Estatistika Institutua (Instituto Nacional de Estadística) |
| EUSTAT | Euskal Estatistika Erakundea |
| NSZ | Nerbio sistema zentrala |
| NSP | Nerbio sistema periferikoa |
| Kj | Kilojoule |
| Kcal | Kilokaloria |
| SM | Sindrome Metabolikoa |
| GMI | Gorputz-Masa Indizea |
| GAI | Gerri-Aldaka Indizea |
| IMQ | Igualatorio Medico Quirúrgico |
| mmHg | Merkurio milímetro |
| MET | Metabolic Equivalent of Task |
| SFT | Senior Fitness Test |
| Kol | Kolesterol |
| HDL | Dentsitate Altuko Lipoproteina (High Density Lipoprotein) |
| LDL | Dentsitate Baxuko Lipoproteina (Low Density Lipoprotein) |
| TG | Trigliceridoak (Triglycerides) |
| ATG | Aterogeneitatea |
| Glu | Glukosa |
| HbA1c | Hemoglobina Glikosilatua A1c (Glycosylated Hemoglobin) |
| IL-6 | Interleukina-6 |
| PCR | Proteina C-erreaktiboa |

Adipo Adiponektina

HRQOL Osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea (Health-Related Quality of Life)

6 MWT 6 Minute Walk Test

8 FUG 8 Foot Up and Go

2. SARRERA



2. SARRERA

2.1 Egoera demografikoa

Azken urteotan herrialde askotan hirugarren adineko pertsonen bizi-itxaropenak izugarri egin du gora, horren ondorioz, pertsona nagusien kopuruak igo egin du. Spainiako datuek adierazten dute orain dela 20 urte jaio ziren pertsonen bizi itxaropena, bataz beste 78,76 urte ingurukoa zela, azken datuek ostera, gaur egun jaiotzen direnen bataz bestekoa 83,10 urtekoa dela diote, beti ere emakumezkoen bizi itxaropena gizonezkoan baino altuagoa izanik (<https://www.ine.es>).

Munduko Osasun Erakundeak (MOE) dio, populazio mundiala pausu bizkorrean ari dela zahartzen, zeren eta 2000 eta 2050 urte bitartean 60 urtetik goragoko pertsonen proportzioa bikoiztu egingo baita, %11 izatetik %22 izatera, hau da, 605 milioi izatetik 2000 milioi pertsona izatera. Gainera, urte tarte horietan 80 urte edo gehiago dituzten pertsonen kopuruak ia lau aldiz egingo du gora (<http://www.who.int/ageing/about/facts/es/>).

Hau horrela, Spainiako Estatistika Institutuko (INE) datuen arabera, 2016ko urtarrilaren 1ean Spainian 8.657.706 adin nagusiko (≥ 65 urte) zeuden, populazio osoaren %18,4 hain zuzen ere. Kasu horretan ere emakumezkoena izanik gailentzen zen sexua (%57,06 emakume eta %42,94 gizonezko) (www.ine.es). Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, Euskal Estatistika Erakundearen (EUROSTAT) azken datuen arabera biztanleriaren %22,65 urtetik gorako pertsonek osatzen dute. Beste kasu guztietan bezala, emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa da, %57,69 eta %42,31 hurrenez hurren (<http://www.eustat.eus>).

Argi dago bizitzari urteak gehitu dizkiogula, baina urteak gehitzea ondo egon arren are eta garrantzitsuagoa da urte horiek nolakoak diren. Munduko Osasun Erakundearen esanetan pertsona nagusiek urte gehigarri horiek osasun onarekin eta inguru egokian pasatzen badituzte, beraiek momentu bakotzean egin nahi dutena egiteko gai izango lirateke pertsona gazteen antzera. Ostera, urteak pasatu ahala gaitasun fisiko eta mentalean

ematen diren beherakadak eragiten badie, pertsona nagusi horrentzako bitzta mota hori negatiboagoa da eta baita gizartearentzako ere (<http://www.who.int/en/>).

MOE-ek dio, gaur egun gehiago bitzpeak, oraindik ez duela nahitaez adierazten osasun hobeagoarekin bitztea, hau da, ditugun datuak urriak dira, gaur egungo nagusiak adin berdineko aurreko belanauldikoak baino hobeto zahartzen direla adierazteko. Oraindik, gaur egungo 70 urte ez dira lehengo 60 urte. Euskal Herriko Osasun galde tegian 2013an (<http://www.euskadi.eus/informacion/encuesta-salud-2013-presentacion/web01-a3osag13/es/>) lortutako datuek erakusten dute, bizi itxaropenaren hazkundeak gaixotasun kronikoen nagusitasuna ekarri duela, aurretik aipatutakoa egiazatuz.

Beraz, esan ohi den bezala ondo dago bizitzari urteak gehitza, baina garrantzitsuagoa da urteei bizia gehitza. Hori horrela, zahartzaroa erakunde askoren kezka nagusienetakoa da, esan bezala urteak aurrera joan ahala gero eta pertsona gehiago egongo baitira talde horren barruan eta horrek gizartearen zahartza ekarriko du. MOE-ek 2012 Osasun Mundialaren egunean esan zuen, osasunak bitzta gehitzen diela urteei, are gehiago hori lortzea erronka bat izan daitekeela eta baita aukera bat ere, era horretan pertsona horiek bitzta osasuntsuago eta luzeago batez disfrutatzeko aukera izango dute.

Hori dela eta, ariketa fisikoak, jarduera fisikoak eta bitzta aktiboak, gaitasun funtzionalean, independentzian, beraien bizi-kalitatean eta erortzeko arriskuen gutxitzean izan dezaketen eraginaren inguruan jakin-nahia sortu da, eta azken urteotan ariketa fisikoak pertsona nagusiengandik eraginaren arloa ikertu da.

2.2 Zahartze prozesua

Zer da zaharra izatea? Hasiera batean definizioa ematea erraza badirudi ere, ez da horrela, zahartzaroak ez diolako definizio biologiko bati erantzuten, ez ikuspuntu psikologikotik eta are gutxiago oraindik esparru sozialetik; baina argi dagoena da guztiok garela gai pertsona nagusi bat, hirugarren adinekoa nor den jakiteko.

Zahartzaroa prozesu jarraia, unibertsala eta itzulezina da; eta, aldaketa funtzionalei, fisikoei, biologikoei eta sozialei eragiten die denboran zehar (Del Pozo-Cruzetalank., 2013). Pertsona bakoitzaren zahartze prozesuak abiadura jakin bat dauka, adinari

Iotutako aldaketak egon arren, horiek pertsona bakoitzarengan era batean eta erritmo desberdinean ematen baitira.

Zahartze prozesu “arrunt” batean aldaketa fisiologiko zorrotz, unibertsalak jasaten dira, baina garrantzitsua da, horiekin erlazionatutako gaixotasunetatik at uztea (Tamparillas, 2005). Era horretan arrazoi intrintsekoak, hau da, garapen genetikokoak eta kampo arrazoiak sailkatu ahal izango ditugu.

Beraz, zahartze prozesuak, aldaketa morfologiko eta fisiologikoak hartzen ditu bere baitan, gorputzko organo, zelula eta ehun guzietan, era horretan sistema guzietan aldaketak sortuz.

Zahartzearen eragina nerbio sistemean

Nerbio sistemak gorputzko organo eta ehun guztien jarduerak kontrolatu eta integratu egiten ditu, ikuspuntu anatomiko batetik abiatuta, nerbio sistema zentralaz (NSZ) eta nerbio sistema periferikoaz (NSP) dago osatuta. Nerbio sistema zentrala, burmuinak eta bizkar hezur muinak osatzen dute eta nerbio sistema periferikoa nerbio kranealek eta espinalek (Tortora eta Derrickson, 2010).

Sistema honen organo garrantzitsuena garuna da eta 100.000 milioi neurona ditu, beraien artean konektaturik aurkitzen direlarik. Zahartzaroan zehar neuronen galtze jarraitua ematen da eta baita neurotransmisoreen gutxitzea ere (Mather, 2016). Aldaketa hauek funtzió fisiko zein kognitiboaren beherakadarekin egoten dira erlazionatuta eta faktore desberdinek dute eragina, ingurumenekoak, genetikoak eta bizi kalitatekoak (Nyberg, Lövdén, Riklund, Lindenberger eta Bäckman, 2012).

Zahartzen den garunak, neuronak eta zelula neuroglialak galtzen ditu. Neuronen %0,1a galtzen da urtero 20 eta 60 urte bitartean, baina gero prozesu hori bizkortu egiten da (Esiri, 2007). 90 urterekin, garunaren masa %11 gutxituko da gutxi gora behera 50 urteko pertsona batekin alderatuta, hau da, 150 gramoko galera gertatzen da ehun neuralean (Wyss-Coray, 2016). Neurona galera nabariena cortex zerebralean ematen da (Fjell eta lank., 2014). Hipokanpoan ehun neuralaren kantitate esanguratsu bat galtzen da eta hau, estuki lotuta dago memoriarekin (Burke eta Barns, 2006).

Kortex motore somatikoak, garunaren lobulu frontalean aurkitzen direnak, martxan inplikatuta dauden muskuluak kontrolatzen dituzte, eta horiek adin ertainetik aurrera atrofia sufritzen dute (Manini, Hong eta Clark, 2013), eta honek eragin zuzena izan dezake martxaren arazoetan, pertsona nagusietan mugikortasuna mugatuz (Rosso eta lank., 2013).

Tronko entzefalikoa hoberen kontserbatzen dena da, horrela parte horren zeregin garrantzitsua adieraziz bizitzaren mantentzean; arnasa, bihotz maiztasuna eta tentsio arteriala kontrolatzen baititu.

Bizkarrezur-miunean gertatzen diren aldaketan inguruan ez da asko ikertu, baina autore batzuek adierazi dute neuronetan eta zelula neuroglialetan gertatzen diren aldaketak eragin gutxi dutela bizkarrehezur-miunean (Manini eta lank., 2013). Baino urteekin, ornoetan eta ornoarteko disketan gertatzen diren aldaketek, bizkarrehezur-miunean eta nerbio sustriaietan presioa handi dezakete; moto-neuronetan zehar nerbio bulkada motelduz, horrela gihar muskularraren gutxitzean eraginez (Manini eta lank., 2013). Honek orekaren eta koordinazioaren urritasuna ekarriz eta lesionatzeko arriskua handituz (Manini eta lank., 2013).

Nerbio sistema periferikoan adinarekin neurona periferiko batzuk hil egiten dira, mitokondrien galera eta geruza isolatzaileen endekapena ematen da (Manini eta lank., 2013). Honen zergatia izan daiteke gorputza zahartu ahala gaitasun gutxiago daukala metabolito toxikoak garbitzeko, eta nerbio periferikoek ez daukatenez barrera hematoentzefalikorik, ez daukate babesik eta hauek kaltetuak izaten dira (Manini eta lank., 2013). Zahartzaroan mielina galera gertatzen da eta honek bulkada eramatea nerbio periferikoan zehar moteldu egiten du %5-10 bitartean (Joynt, 2000).

Beraz, aipatutako neuronen galtze jarraituak, nerbio bulkadaren abiaduraren murrizketak eta bizkarrezur-muinaren aldaketek erreakzio abiadura jaistea ekar dezakete (Spirduso, 1995), esate baterako, pertsona nagusiek gazteekin alderatuta erorketa gehiago izatearen arrazoietako bat hori izan litekeelarik.

Zahartzearen eragina gihar-sisteman eta hezurduran

Gihar-sistemak eta hezurdurak, garrantzia du pertsonaren egunerokoan, horiei esker mugitzen gara, zutik egoteko gaitasuna daukagu... Muskulu eskeletikoa borondatezko mugimenduen arduraduna da eta nerbio sistemak kontrolatzen du (Jones, Burnes, Aminoff eta Pomerov, 2013). Baina, horiek funtzio fisikorako ez ezik, osasun hobea izateko ere eragile nabarmenak dira, beste hainbat funtzio metabolikotan ere parte hartzen baitute (Schnyder eta Handschin, 2015; Stump, Henriksen, Wei eta Sowers, 2006;).

Adinarekin muskulu gaitasunen galtzea ematen da eta urteen poderioz handitu egiten da, baina ez da linealki izaten. Koster eta lankideen (2011) esanetan 50-70 urte bitartean muskulu-masaren %30eko galera nabari da, baina galera garrantzitsuenak 70 urtez geroztik antzematen dira (Koster eta lank., 2011). Ikerketa longitudinal baten arabera, 75 urtetik gorako emakumeek urtero, muskulu-masaren %0,64-%0,70 bitartean galtzen dute, gizonezkoen kasuan galera handiagoa izanik, %0,80-%0,98koa (Mitchell eta lank., 2012). Aktibitate edo jarduera fisiko eza dagoenean ostera, muskulu-masaren galtzea handitu egiten da, esaterako, ohe batean 10 egun egin ostean muskulu-masan kilo bateko galera ikusi zuten (Dirks eta lank., 2014; Ferrando eta lank., 2010; Paddon-Jones, 2006; Wall eta lank., 2014).

Maila miozelularri dagokionean ere, pertsona nagusien muskulu-zuntzen tamainan ere murrizketa dagoela erakutsi dute hainbat ikerketek (Dreyer eta lank., 2006; Larson, 1978; Verdijk eta lank., 2007). Murrizketa hori, II-motako zuntzena dela adierazi dute, pertsona nagusiena gazte-helduena baino %10-%40 txikiagoa izanik, I-motakoak aldiz, mantendu egiten dira (Larsson, 1978; Martel eta lank., 2006; Verdijk eta lank., 2007; Snijders, Verdijk eta Van Loon, 2009).

II-motako zuntzak kontrakzio arinekoak dira eta intentsitate altuko jardueren erantzule batez ere, hau da, pertsona bat aulkitik edo ohetik altxatzeko, pisu handi bat altxatzeko edo mugitzeko unean... Hortaz, hor emandako galerak zerikusia izan dezake pertsonaren gaitasun funtzionalarekin, horren beherakada ekarriz, era horretan pertsona horren independentzia mugatuz eta erortzeko arriskua handituz, horietan guztietan muskulu-

masak eta indarrak eragina baitute (Alonso, Izquierdo eta Cecchini, 2003; Cadore eta lank., 2012; Hislop, Avers eta Brown, 2007).

Bestetik, arestian aipatu den bezala, edozein mugimendu, indar egiteko nerbio sistemaren beharra dago, hau izango baita muskulu-sistema eta hezurdura kontrolatzen dituena. Sistema horren forman eta funtzoan dauden aldaketek muskulu eskeletikoaren beherakan lagundu lezakete (Tieland, Trouwborst eta Clarks, 2018). Horretaz gain, moto-neuronak gutxitzen diren heinean unitate motore bakoitzak muskulu zuntz gehiago inerbatu behar ditu (Doherty, Vandervoort, Taylor eta Brown, 1985; Lexell, 1997). Horregatik, mota II-ko zuntzetan, hauek erantzun bizkorrekoak izanik eta unitate motore bakoitzak muskulu zuntz gehiago inerbatu behar baditu denbora gehiago beharko dute erantzun hori emateko eta horregatik denerbazioa ematen da mota II-ko zuntzetan, era horretan, mota I-eko zuntzak gailenduz (Larsson, Li, Tollback eta Grimby, 1995).

Zahartzearen eragina sistema kardiobaskularrean

Sistema kardiobaskularren osagai gehienek zahartzaroan zehar aldaketak izaten dituzte. Esaten da zahartzaro-prozesua bera dela gaixotasun kardiobaskular eta zerebrobaskularrak izatearen eragile nagusia (Alfaras eta lank., 2016).

Bihotzak egitura eta funtzio aldaketa jarraituak izaten ditu adinak aurrera egin ahala, hipertrofia (Levy eta lank., 1988; Linzbach eta Akuamo-Boateng, 1973; Olivetti, Melissari, Capasso eta Anversa, 1991), bihotz-maiztasunaren murrizketa, diastolearen betetze tasaren beherakada (Schulman, Lakatta, Fleg, Becker eta Gertenblith, 1992) eta ezkerreko bentrikuluaren hipertrofia, fibrosia eta disfuntzio diastolikoa gertatzen dira (Dai, Rabinovitch eta Ungvari, 2012).

Miozitoen kopuru totalak ere behera egiten du adinarekin, gutxi gorabehera kopuru osoaren %35 hil egiten da, 30 eta 70 urte bitartean (Anversa, 1990) eta horien lekua fibroblastoen hartzen dute. Horrela, bihotzaren ezaugarri mekanikoak aldatzen dira eta bentrikulu zurrunago eta distentsibilitate gutxiagokoa izanik gazteenekin alderatuz.

Arterietan ere, egitura eta funtzioa aldatzen dira, arteria handiak handitu eta loditu egiten baitira (Lakatta, Wang eta Najjar, 2009). Aorta, lau eta zortzigarren dekaden artean

%6 handitzen da, horregatik arteria horretan odol gehiago pilatzen da eta bihotzak ponpaketa handiagoa burutu behar du eta estimulazio gehigarri honek ezkerreko bentrikuluan aldaketak eraginez (Fleg, 2012). Gainera, urteekin arteriak zurrunagoak bihurtzen dira eta elastikotasuna galdu egiten dute, bestalde hormetan gantza pilatzen da eta horrek odolari pasabidea estutu egiten dio (Lakatta eta Levy, 2003; Ocamp eta Gutierrez, 2005).

Zahartzearen eragina arnas-sisteman

Zahartzaroan, arnas aparatuaren ere aldaketa anatomiko zein estrukturalak daude. Endekapenezko aldaketak gertatzen dira artikulazio kosto-bertebralean, horrek zifosi dortsala handituz eta baita aurre-atze diametroa ere, horrek maiz toraxaren itxura aldaketa sortzen du. Aldaketa horiek diafragmaren distensibilitatean alterazioak eragiten dituzte eta indar egiteko gaitasunean era negatiboan eragiten dute (Edge, Millard, Lynne Reid, Path eta Simon, 1964). Arnasa hartzeko eta botatzeko indarrak behera egiten du, muskulu-masaren galeragatik eta gantz-metaketen igoeragatik.

Laburbilduz, zahartze prozesuan dauden aldaketak asko dira, eta horiek izugarritzko eragina dute pertsona nagusien funtzionaltasunean, independentzian eta abarrean. Badaude faktore batzuk prozesu hori moteldu edo bizkortu dezaketenak. Bizi-ohitura osasungarriak izateak prozesu horiek moteltzen lagundi dezake eta ohitura horietako bat ariketa fisikoa da eta hau, zahartzaroaren eraginak atzeratzeko edo saihesteko baliabide egokiena izan liteke.

2.3 Jarduera fisikoa

Jarduera fisikoak hirugarren adineko pertsonengen dituen onurez sakondu baino lehen, esparru honetan sarritan nahasten diren bi kontzepturen definizioak emango ditugu, hauetan argi izatea lagungarria baita.

Kontzeptuak

Jarduera fisikoa: Muskulu eskeletikoak sortzen duen gorputzeko mugimendua da eta horren bidez metabolismo basalean baino gastu energetikoa handiagoa lortzen da. Hau

kilojoule (Kj) eta kilokaloriatan (Kcal) neurzen da (Caspersen, Powell eta Christenson, 1985). Gastu energetikoa neurtzeko erabiltzen den unitate denbora astea edo eguna izaten da (Taylor eta lank., 1978). Jarduera fisikoa aztertzeko, jarduera hori egiten den tokia kontuan izaten da, aisialdian, lanean, desplazamenduetan eta etxekoan.

Ariketa fisikoa: Jarduera fisikoaren barruan dago, jarduera hori, egituratua, planifikatua eta errepikakorra da. Horren helburua gaitasun fisikoa hobetzea edo mantentzea da (Caspersen eta lank., 1985).

Jarduera fisikoaren onurak

Gaur egun asko ikertu da jarduera fisikoak pertsona nagusiengan dituen onuren inguruan. Jarduera fisikoa eraginkorra da zahartzaroak dakartzan beherakadak ekiditeko edo/eta gutxitzeko (Capodaglio eta lank., 2005; Henwood eta Taaffe, 2006). Horretaz gain, gaitz askoren arriskuak gutxitzeko metodo ez farmakologiko egokia eta baliagarria da (Batty, 2002; Jeon, Lokke, Hu eta Van Dam, 2007; Larson eta lank, 2006). Are gehiago, pertsona nagusi aktibo eta ez aktiboekin egindako ikerketa batean, osasunari dagokionean desberdintasunak antzeman ziren bi taldeen artean, aktiboagoak zirenek, zahartze prozesuak dakartzan aldaketak era ahulago batean jasan zituzten ez aktiboekin alderatuz (Henwood eta Taaffe, 2008)

Ariketa fisikoa erregulartasunez egiteak, pertsona nagusiei bizitza osasuntsuagoa, eta independenteagoa izaten laguntzen die, eta baita gaitasun funtzional eta bizi-kalitate hobeagoan ere (Stewart, 2005). Hori dela eta, mugikortasuna eta independentzia, hau da, egunerokotasuneko jarduerak inoren laguntzarik gabe egiteko gai (Rikli eta Jones, 2012) izatearen gakoa funtzio fisikoan dago, gaitasun aerobikoan, indarrean, abilezian, orekan... Horiek eguneroko jarduerak egiteko beharrezkoak baitira. Adibidez, etxeko lanak egiteko, eskailerak igotzeko, gauzak eramateko, oinez ibiltzeko, garraiora igotzeko eta jaisteko... (Paterson eta Warburton, 2010). Esandako guztia hobetzeaz gain, jarduera fisikoa egiteak artikulazioetako mina ere gutxitu dezake (Kelley, Kelley, Hootman eta Jones, 2011).

Hainbat ikerketek adierazi dute indar entrenamendu desberdinak baliagarriak direla indar maximoa, potentzia muskularra eta gaitasun funtzionala hobetzeko pertsona nagusiengan

(Cadore, Rodríguez-Mañas, Sinclair eta Izquierdo, 2013; Correa eta lank., 2013; Correa, Cunha, Marques, Oliveira-Reischak eta Pintor, 2016). Are gehiago, azken errebisio sistematiko eta meta analisi batzuek adierazi dute muskuluen indarra pertsona oso nagusietan ere hobe daitekeela, entrenamenduaren bitartez (Borde, Hortobágyi eta Granacher, 2015; Silva, Oliveira, Fleck, Leon eta Farinatti, 2014; Straight, Lindheimer, Brady, Dishman eta Evans, 2016).

Horrenbestez, jarduera fisikoak indargabetu egiten du adinarekin ematen diren muskuluen indar galerak (Goodpaster eta lank., 2008) eta muskuluen kalitatea hobetzen du (Da Boit eta lank., 2016).

Gaitasun kardiorespiratorioaren entrenamendu egoki batek, eguneroko jarduerak egiteko unean laguntzen du. Horretaz gain, gaixotasun kardiobaskularak, tentsio arteriala, bihotz eta odol hodietako gaixotasunak, gaitasun funtzionala, birikietako gaitasuna, eta baita gaitasun eta gastu kardiakoa ere hobetzen ditu (Cadore, Silveira-Pinto, Botarro eta Izquierdo, 2014; Camhi, Sisson, Johnson, Katzmarzyk eta Tudor-Locke, 2011; Ferrari, 2007; Garber eta lank., 2010, Haykowsku eta lank., 2012; Kim eta lank., 2014; Taguchi, Higaki, Inoue, Kimura eta Tanaka, 2010). Arrestian aipatu bezala zahartzean arteriak lodiagotu eta gogortu egiten dira, hormetan gantza pilatuz doa eta horrek pasabidea estutu egiten du. Ikerketa batzuek adierazi dute, ariketa fisiko jarraituaren bitartez prozesu horiek atzeratu daitezkeela (Garcia eta lank, 2010a; Garcia eta lank; 2010b).

Gaur egun hirugarren adineko pertsonengan ariketa fisiko multikonponenteak dituen eraginen inguruan hainbat ikerketa egin dira. Multikonponente programak deritze, indarra, erresistentzia, koordinazioa, oreka eta malgutasuna lantzen dituzten programei (Carvahlo, Marques eta Mota, 2009). Hainbat autorek adierazi dute ariketa fisikoari esker pertsona nagusiek hobekuntzak izan dituztela, gaitasun guztieta, hala nola, indarrean, oreka dinamikoan, malgutasunean eta gaitasun aerobikoan (Carvahlo eta lank., 2009; Ratel eta lank., 2012; Toraman, 2005). Argi dagoena da gaitasun horiek hobetu ahala pertsona horiek independenteagoak izango direla.

Jarduera fisikoaren eragina erorketetan

MOE-k egiten duen erorketaren definizioa honako hau da: oreka galtzea eta gorputzarekin lurra jotza edo beste azalera gogor batek beraien gorputza gelditzea, beti ere nahigabeko gertaera izanik (Thiem eta lank., 2014). Pertsona nagusiak lesionatzeko lehenengo arrazoia erorketak dira eta adinak aurrera egin ahala gehitu egiten da (Kannus, Sievanen, Palvanen, Jarvinen eta Parkkari, 2005). Gainera, pertsona nagusien ezgaitasunen sorburu garrantzitsua eta hauskortasunaren ondorioetako bat da (Woods eta lank., 2005).

Hirurogeita bost urtetik gorako pertsonen kasuan, hirutik bat behintzat urtean behin erori egiten da (Giordano eta lank., 2016) eta 80 urtetik gorakoentzako kasuan erorketa kopurua handitu egiten da, erdiak gutxienez urtean erorketa bat izanez (Abizanda eta lank., 2014). Euskal Herriko 2012ko datuek adierazten dute, 64 urtetik gorakoentzako istripuen %92 erorketengatik izan zirela, horietatik %71 emakumeetan izan zen. Zergatiak aztertzen baditugu, %22 muskulu edo orekaren aldaketagatik gertatu ziren (Laura eta lank., 2015). Datu horiek bat egiten dute ondorengo ikerketek, esaten baitute erorketak pertsona nagusien kasuan muskulu indar maila baxuagoarekin erlazionatu direla (Pruitt, Taaffe eta Marcus, 1995) eta baita orekaren aldaketekin ere (Tolomio, Ermolao, Travain eta Zaccaria, 2008).

Erorketa bat izateak hainbat ondorio negatibo ekar ditzake: lesioak, konfiantza galera, jarduera fisikoaren gutxitzea, komunitatean parte-hartzearen beherakada, bizi-kalitatearen jaitsiera, erortzeko beldurra eta dependentzia funtzionala batik bat (Sherrington, Tiedemann, Fairhall, Closa eta Lord, 2011; Tinetti eta Williams, 1998).

Aurreko guztia kontuan izanik, ondoriozta dezakegu erorketek pertsona nagusiengan eragina dutela, hori dela eta azken urteotan ikerketa ugari egin da erortzeko beldurra eta erorketen inguruan. Errebisio sistematiko batzuk adierazi dute, ongi diseinatutako programen bitartez erorketak ekidin daitezkeela (Gillespie eta lank., 2009; Sherrington eta lank., 2008), eta Sherrington eta lankideek egindako ikerketa batean ikusi zuten oreka oinarri zuten ariketen bitartez, hauek ondo programatu, diseinatu eta egituratuak izanik, erorketen %42 saihestu daitekeela (Sherrington eta lank., 2008).

Gainera, erortzeari beldurra izatea oso ohikoa da pertsona nagusietan eta horrek egunerokotasunean gauzak egiterakoan eragina duka (Tinetti, Richman eta Powell, 1990). Adinak aurrera egin ahala komunitatean bizi diren pertsona nagusietan, erortzeari beldurra dioten pertsona kopurua handitu egiten da %21etik-%85era arte (Scheffer, Schuurmans, van Dijk, van der Hooft eta de Rooij, 2008), gainera kontuan izan behar da erortzeari beldurra izatea erortzeko arrisku eragile garrantzitsuenetarikoa dela (Kwan eta lank., 2011; Scheffet eta lank., 2008; Tinetti eta lank., 1990) eta eguneroko jarduerak egiteko unean muga da (Cumming, Salkeld, Thomas eta Szonyi, 2000).

Horretaz gain, erortzeari beldurra, arazo psikologikoekin (van Haastregt, Zijlstra, van Rossum, van Eijk eta Kempen, 2008), funtzio fisiko urriarekin lotu da (Li, Fisher, Harmer, McAuley eta Wilson, 2003) eta osasunarekin erlazionatuta dagoen bizi-kalitatean ere eragin handia duka (Kendrick eta lank., 2014). Hainbat ikerketek adierazi dute jarduera fisikoa garrantzitsua dela, erorketen prebentzioan (Sherrington, Tiedemann, Fairhall, Closa eta Lord, 2011).

Ariketa fisiko erregularra egiteak, zehatzago esanda, behe ataleko indarra eta oreka helburu duten ariketak egiteak, erortzeko arriskua gutxitzen du eta oreka gaitasunean hobekuntzak dakartzala ebidentzia sendo bat da jada (Cadore eta lank., 2013; Gillespie eta lank., 2012; Howe, Rochester, Neil, Skelton eta Ballinger, 2011; Lesinski, Hortobágyi, Muehlbauer, Golhofer eta Granacher, 2015; Sherrington eta lank., 2008; Sherrington, Tiedemann, Fairhall, Closa eta Lord, 2011)

Jarduera fisikoaren eragina bizi-kalitatean

Pertsonen bizi-itxaropenak gora egin du, baina urte horiek gehitzea bezain garrantzitsua da urte horien bizi-kalitatea. Gaur egun, maiz entzuten da “horrela bizitzeko hobeto hil”, eta hori da aldatzea lortu behar duguna.

Azken hamarkadetan bizi-kalitatearen garrantziak gora egin du eta zahartzaro arrakastatsu baten adierazle bezala onartua izan da ikerketa gerontologikoetan (Spirduso, Francis eta MacRae, 2005). Osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea kontzeptu multidimensional oso zabala da eta osasunarekin lotuta dauden alde positibo zein

negatiboak hartzen ditu bere gain (Gouveia eta lank., 2018). MOE-ren esanetan bizi-kalitatea honela definitzen da: subjektu batek bizitzan bere estatusaren inguruan duen pertzepzioa da, hau da, testuinguru kulturalean, bizi den sistemaren baloreetan eta haren objektuekiko erlazioan, expektatibetan, arauetan eta arduretan. Baino kontzeptu horrek bere baitan hartzen ditu osasun fisikoa, egoera psikologikoa, independentzia maila, harreman soziala, inguruko eragileak eta baita sinesmen pertsonalak ere (John, 1996).

Gauzak horrela, osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea, garrantzitsua da pertsona nagusiengan (Miller, 2012), eta hori estu-estu lotuta dago eragile fisiko zein mentalekin (Gouveia eta lank., 2018).

Kontuan izan behar da, bizi-kalitateari dagokionean generoen artean ere desberdintasunak ikusi direla populazio orokorrean, emakumezkoak bizi-kalitate okerragoa izanik gizonezkoekin alderatuta (Hemingway, Stafford, Stansfeld, Shipley eta Marmot, 1997; Vuillemin eta lank., 2005;). Euskal Herrian 2013an Eusko Jaurlaritzak osasunaren inguruan egindako galdetegi bateko emaitzek ere berdina adierazten dute, osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea, emakumezkoena gizonezkoena baino baxuagoa zela (<http://www.euskadi.eus/informacion/encuesta-salud-2013-presentacion/web01-a3osag13/es/>).

Autonomia funtzionala izateak, pertsona nagusiei beraien bizi-kalitatean eragiten die, eta ariketa fisikoa autonomia horren aitzindaria eta babeslea da (Soto, Dopico, Giraldez, Iglesias eta Amador, 2009). Zahartzaro aktiboa eramateak sustatu egiten du muga funtzionaletik urrunago egotea, horri autonomia eta independentzia bideratzen duten estrategiak gehitza beharrezkoa da, bizi-kalitaterako eta pertsona horren zoriontasunerako (Texeira et al., 2010). Hainbat ikerketek adierazi dute, jarduera fisikoak zerikusia daukala bizi-kalitatean, eta mota desberdinako programak egin ostean autore batzuek ikusi dute, pertsona nagusien bizi-kalitateak gora egiten duela (Gouveia eta lank., 2018; Hölder, Skoog eta Fränkin, 2013; Küçükçakir, Altan eta Korkmaz, 2013; Lee, Son, Kim, Yoon, 2015).

Halaber, ez da ariketa fisikoko programetan soilik ikusi, Balboa-Castilloa eta lankideek ikusi zuten aisialdi denboran aktiboagoak ziren pertsona nagusiek ere bizi-kalitate hobea

zutela (Balboa-Castillo, León-Muñoz, Graciani, Rodríguez-Artalejo eta Guallar-Castillo, 2011). Beraz, jarrera sedentarioak ere izugarrizko eragina dauka. Hori aurrekoarekin lotzen badugu, zenbat eta jarrera sedentarioagoa izan, orduan eta autonomia, independentzia galera handiagoa izango dugu eta horrekin batera beherakada bizi-kalitatean (Emerson, Satcher eta Carmona, 2015; Meneguci, Sasaki, Santos, Scatena eta Damiao, 2015; Rosenkranz, Duncan, Rosenkranz eta Kolt, 2013).

Gaitasun fisiko maila altuak ordea, bizi-kalitatean eragin positiboa duela ikusi dute (Haider, 2016; Stewart eta lank., 2003; Wanderley eta lank., 2011), baita gaitasun aerobikoan (Bocalin eta lank., 2010; Lobo eta lank., 2010; Thiem eta lank., 2014) eta indar muskularrean ere (Texeira-Samela eta lank., 2005; Thiem eta lank., 2014).

Baina, ez da pentsatu behar ariketa fisikoak funtzio fisikoa soilik hobetu dezakeela, beste hainbat hobekuntza ere, hala nola, auto-konfiantza, auto-estima, arazo psikologikoak, horiek ere bizi-kalitatearekin lotura zuzena dutelarik (Barry eta Eathorne, 1994; Berger eta Motl, 2001; Sharp eta Brouwer, 1997; Texeira-Salmela, Olney, Nadeau eta Brouwer, 1999; Texeira-Salmela Santos, Goulart, Cassiano eta Hirochi, 2001). Ez hori bakarrik, gainera ariketa fisikoa taldean egiten denean, beste batzuekin partekatzen denean, interakzio sozialak, estimulazio mentala eta intelektuala ekartzen ditu (Barry eta Eathorne, 1994). Kontuan izan behar da batzuetan pertsona nagusiak bakarrik sentitzen direla eta taldean ariketa fisikoa egitean, duten sentimendu hori asebete egiten dutela, horrek bizi-kalitatean eragina izanik.

Jarduera fisikoaren eragina biomarkatzaleetan

Zahartzearen ezaugarriak asko dira, eta horietako bat hantura da (Tsai eta lank., 2013). Hantura kroniko sistematikoa gaixotasun kliniko nagusien arrisku faktorea da eta adineko pertsonetan ezgaitasun eta heriotzaren adierazlea ere izan daiteke (Kritchevsky, Cesari eta Pahor; 2005; Nikseresht, Sadeghifard, Agha-Alinejad eta Ebrahim, 2014). Hainbat ikerketen arabera, adineko pertsonek zitokin proinflamatorioaren kontzentrazio maila handiagoa dute gazteekin konparatuz (Ferrucci eta lank., 2005; Roubenoff, 2003).

Gaur egun farmako antiinflamatorio batzuk gai dira hantura akutuak tratatzeko, baina hantura kronikoarentzako tratamendua mugatua da, hori dela eta, tratamendu ez farmakologiakoen beharra dago (Beavers eta lank., 2010). Horien artean aukeratutako tratamendu ez farmakologiakoetako bat ariketa fisiko erregularra da, ikerketa desberdinietan ikusi izan baitute muskulu-eskeletikoaren eta gantzaren hantura murrizteko balio duela (Nikseresht, Agha-Alinejad, Azarbayjani eta Ebrahim, 2014). Gainera, ariketa fisiko erregularraren onurak baieztago dira, honek gaixotasun anitzetan duen ondorio babesle eta prebentiboaren bidez eta ondorio onuragarriak frogatu dira gaixotasunen arrisku faktoreetan; besteak beste, hipertensioan, intsulinaren desensibilizazioan, eta obesitatean, baina hanturaren kasuan, hobekuntza honen zergatia oraindik ez dago argi (Del Pozo-Cruz eta lank., 2013; Nicklas eta lank., 2008)

Hantura baloratzeko gehien erabiltzen diren parametro biokimikoak interleukina-6, eta proteina C-erreaktiboa dira, eta horiek aztertuz hanturari buruzko ideia zabala lor daitezke (Beavers eta lank., 2010; Franceschi eta Campisi, 2014). Parametro horiek gaixotasunekin eta heriotzarekin ere erlazionatu dituzte (Beavers eta lank., 2010; Franceschi eta Campisi, 2014; Nicklas eta lank., 2008) eta ariketa fisikoaren bitartez moldatuak izan daitezke (Nicklas eta lank., 2008). Ariketa fisikoa egiteak pertsona nagusi osasuntsuen odolean aurkitzen den interleukina-6 eta proteina C-erreaktiboen maila jaisten ditu, (Hammer eta Steptoe, 2008) eta baita patologiak dituztenen kasuetan ere; adibidez, gaixotasun arterial periferikoan (Craft eta lank., 2008).

Horretaz gain, ikusi da ariketa fisikoa egiteak sindrome metabolikoarekin (S.M.) lotura duten parametro biokimikoetan ere eragin onuragarriak dituela, hala nola, dentsitate altuko lipoproteinetan, kolesterolean, dentsitate baxuko lipoproteinetan, trigliceridoetan, glukosan eta hemoglobina glikosilatuan (Castaneda eta lank., 2002; Nikseresht, Hafezi Ahmadi eta Hedayati, 2016).

Azken urteotan adiponektinaren inguruko interesak gora egin du, aldagai biokimiko hori prozesu askoren parte baita; eta horretaz gain, gaixotasun biofisiologikoekin ere erlazioa duela ikusi dute (Fang eta Judd, 2018; Hossain, Mukkheem eta Kamarul, 2015). Odolean adiponektina maila altua izatea alderantziz erlazionaturik dago, intsulinaren

erresistentziarekin, mota II diabetesarekin, dislipemia eta gaixotasun kardiobaskularrekin (Fang eta Judd, 2018; Hossain eta lank., 2015). Erorketekin eta heriotzarekin ere lotu da (Beatty eta lank., 2012; Huang eta lank., 2016; Wu, Cheng, Gu eta Aung, 2014). Bestetik, generoa kontuan izanik desberdintasunak ikusi dira adiponektina mailari dagokionean, gizonetan emakumeekin alderatuz adiponektina maila baxuagoak aurkitu baitira (Elhakeem eta lank., 2018; Cnop eta lank., 2003; Consitt, Saxena eta Schaefer, 2018).

Ariketa fisikoa eta adiponektinaren inguruan egindako ikerketek emaitza kontrajarriak adierazi dituzte. Alde batetik ikusi dute, adiponektina maila altua epe luzera egindako ariketa fisikoarekin erlazionatu dela pertsona nagusietan (Elhakeem eta lank., 2018), ildo beretik jarraituz, entrenamendu baten ostean aurretiaz sedentarioak zirenengasunan adiponektina mailak gora egin zuela ikusi zuten (Fatouros eta lank., 2005; Markofski eta lank., 2014;). Bestetik, gizon sedentarioekin egindako ikerketa batean entrenamenduaren ostean adiponektina mailak behera egiten zuela ikusi zuten (Gastebois eta lank., 2016), baina badira beste ikerketa batzuk non ez duten aldaketarik ikusi entrenamenduaren ostean (Bouassida eta lank., 2010). Hortaz, esan genezake honen inguruan oraindik asko dagoela ikertzeko eta zehazteko.

2.4 Ariketa fisikoa etetea

Jarduera fisikoak hirugarren adineko pertsonengen dakartzan onuren inguruan asko ikertu da, bai funtzio fisikoaren, bizi-kalitatearen eta baita aldagai biokimikoaren alorrean ere. Alabaina, pertsona nagusiak arrazoi desberdinak direla eta ariketa fisikoa eten behar izaten dute, hots, familiako norbait gaixotu eta zaindu behar dutelako, lobak zaindu behar dituztelako, udako oporren ondorioz ariketa fisikoko programa eten behar delako... Pertsona nagusiak etete hori gertatzen denean, kexatu egiten dira; adibidez, udako etete-aldia luzeegia izaten dela adierazten dute eta sarritan polikiroldegiko arduradunengana joaten dira udako oporraldi hori laburtzeko eskaera egitera. Pertsona horiek esaten dute etete-aldi horretan ez direla ondo sentitzen; hori dela eta pertsona nagusietan etete-aldiak nola eragiten duen jakitea interesgarria izango litzateke, etete-aldiaren neurri aproposa hartu ahal izateko.

Ariketa fisikoaren gelditze aldi horri, etete-aldia deritzo, gazteleraaz *desentrenamendua* eta ingeleras *detraining*. Jarraian etetearen inguruan orain arte dakiguna azaltzeari ekingo diogu, funtzio fisikoari, bizi-kalitateari eta parametro biokimikoei dagokionean.

Ariketa fisikoa etetearen eragina funtzio fisikoan

Ariketa fisikoa gelditzea duen eragina, azken urteotan ikertu den gaietako bat izan da, batez ere funtzio fisikoari dagokionean, nahiz eta bizi-kalitatearen eta biokimikaren inguruan ere ikertu izan den.

Ariketa fisiko erregular eta programatua eteten denean, ariketa fisiko horrek sorturiko aldaketak, moldaketa anatomikoak, fisiologiko partzialak eta totalak murriztu edo/eta desagertu egiten dira. (Fatouros eta lank., 2005; Fleck, 1994; Ivey eta lank., 2000; Kalapotharakos, Smilios, Parlavatzas eta Tokmakidis, 2007; Mujika eta Padilla, 2000; Tokmakidis, Kalapothrakos, Smilios eta Parlavantzias, 2009). Horrela, gaitasun desberdinietan beherakadak antzeman dituzte, hala nola, indarrean, gaitasun aerobikoan, trebetasunean, oreka dinamikoan, oreka estatikoan eta malgutasunean (Bocalini, Serra, Rica eta dos Santos, 2010; Correa, Cunha, Marques, Oliveira-Reischak eta Pintor, 2016; Lobo eta lank., 2010; Toraman 2005; Toraman eta Ayceman, 2005; Henwoood eta Taffe, 2008). Beste ikerketa batzuetan ostera, indarrean lortutako onurak mantent daitezkeela behatu dute (Häkkinen, Alen, Kallinen, Newton eta Kraemer, 2000; Schlicht, Camaione eta Owen, 2001; Toraman, 2005).

Etete-aldian funtzio fisikoan beherakadak izateak, edo are gehiago hasierako mailara bueltatzeak izugarrizko garrantzia dauka, zeren eta gaitasun horiek hirugarren adineko pertsonentzat beharrezkoak dira eguneroko jarduerak egin ahal izateko eta independentzia lortzeko.

Ariketa fisikoa etetearen eragina bizi-kalitatean

Ariketa fisikoaren etete-aldiak gaitasun funtzionalean ondorio ezkorra ditu eta horrek bizi-kalitatearekin duen lotura estua kontuan izanik, bizi-kalitatean beherakada horren isla nabaritzea logikoa izango litzateke. Baina, bizi-kalitatean ariketa fisikoaren etete-aldea gertatzen denaren inguruan desadostasuna ageri da. Egindako ikerketa batzuetan adierazi

dute bizi-kalitateak behera egin duela etete-aldiaren ostean, hiru hilabeteko aldian hasierako bizi-kalitateko mailara itzuliz (Bocalini eta lank., 2010; Toulotte, Thevenon eta Fabre, 2006). Beste autore batzuek berriz, ez dute inolako aldaketarik nabaritu bizi-kalitatean tarte horretan (Ansai eta Rebellatto, 2015; Lobo, Carvalho eta Santos, 2010).

Ariketa fisikoa etetearen eragina biomarkatzaleetan

Ariketa fisikoa eteteak parametro lipidikoetan eragin negatiboa du (Motoyama eta lank., 1995; Slentz eta lank., 2007). Parametro lipidikoek sindrome metabolikoarekin dute erlazioa eta sindrome honi aurre egiteko terapia ez farmakologikoetariko bat ariketa fisikoa da.

Hanturazko parametroetan, interleukina-6ari, adiponektinari eta proteina C-erreaktiboari dagokienean kontraesana ageri da. Autore batzuek ez dute aldaketarik hauteman proteina C-erreaktiboa eta interleukina-6an (Ratel eta lank., 2012). Beste autore batzuek ordea, etete-aldi laburragoan, lau astetakoan, aldaketa esanguratsuak ikusi zituzten interleukina-6an (Nikseresht eta lank., 2014a). Ariketa fisikoaren gelditzearen ostean adiponektinak gora egiten du (Gastebois eta lank., 2016), beste bi ikerketetan ostera beherakada eman da (Nikseresht eta lank., 2014; Fatourous eta lank., 2005).

Horiek horrela, gaur egun oraindik hainbat parametrotan etete-aldi batean osteko eragina ikertzeke dago, gainera etetearen iraupenak eta parte-hartziale motak oso desberdinak izan dira eta horrek eragin garrantzitsua izan lezake.

3. HELBURUAK



3. HELBURUAK

Azken urteotan asko izan dira jarduera fisikoak hirugarren adineko pertsonengan duen eraginaren inguruan egin diren ikerketak, sakon aztertu den arloa izan da, batez ere funtzio fisikoari dagokionean. Hala ere, gutxi ikertu da jarduera fisiko gidatua gelditzeak dakartzan eraginen alorrean, eta hori aztertu duten ikerketak aurretiaz sedentarioak ziren pertsonekin egin dira, ez pertsona aktiboekin; eta are gutxiago aurretiaz ariketa gidatuan hainbat urtez parte hartu duten pertsona nagusiekin.

Beraz, gutxi dakigu ariketa fisiko gidatua burutzen duten hirugarren adineko pertsonengan jarduera fisiko hori eteteak duen eraginari buruz. Geldialdi horren arrazoik desberdinak izan daitezkeelarik, oporraldi luzeak, familiartekoren baten gaixotasuna edo/eta norberarena, ilobak zaindu beharra, polikiroldegia zarratzea... Egoera horiek sarritan gertatzen dira hirugarren adineko pertsonen eguneroko bizitzan eta interesgarria izango litzateke arlo hau ikertzea.

Hortaz, ariketa fisikoak pertsona nagusien bizi-kalitatean, funtzio fisikoan eta parametro biokimikoetan dituen onurak kontuan izanik, helburu nagusia ariketa fisikoaren gelditzeak hiru arlo horietan, eragiten dituen aldaketak aztertzea da, aurretiaz ariketa fisiko gidatuko programan aritu izan diren pertsona nagusiengan.

Ikerlanaren helburu espezifikoak ondorengoak izan ziren:

1. Ariketa fisiko gidatua eteteak pertsona nagusien bizi-kalitatean eragiten dituen aldaketak ezagutzea. Eta generoa kontuan izanik desberdintasunik dagoen ikustea.

2. Ariketa fisiko gidatua eteteak pertsona nagusien funtzio fisikoan eragiten dituen aldaketak ezagutzea. Eta generoa kontuan izanik desberdintasunik dagoen ikustea.

3. Ariketa fisiko gidatua eteteak pertsona nagusien parametro biokimikoetan eragiten dituen aldaketak ezagutza. Eta eragin hori generoaren arabera desberdina den ala ez antzematea.
4. Bizi-kalitatean eta funtzió fisikoan gertatzen diren aldaketen artean erlaziorik dagoen ezagutza.
5. Etete-aldian zehar erorketaren bat izateak bizi-kalitatean eta funtzió fisikoan nola eragiten duen aztertzea. Eta erorketa izan duten eta izan ez dutenen artean desberdintasunik dagoen ikustea, bai ariketa gidatuko saioak bukatu ondorengo neurketetan edo/eta etete-aldiaren ostean.
6. Ohikoa den ariketa fisikoa gelditzean parametro biokimikoetan eta funtzió fisikoan ematen diren aldaketen artean erlaziorik dagoen ezagutza.

4. MATERIALA ETA METODOAK



4. MATERIALA ETA METODOAK

4.1 Lagina

Ikerketa hau burutzeko Fadurako polikiroldegiaren (Getxo) mantentze gimnasia burutzen zuten 49 pertsona aztertu ziren, 65 urtetik gorakoak, beraien batez besteko adina 75.55 ± 5.77 urtekoa izanik (Iku 1. Taula).

1. Taula. Laginaren hasierako ezaugarriak

| Ezaugarriak | Parte-hartzaileak (n=49) |
|---------------------------------------|--------------------------|
| Adina (urteak) | $75,5 \pm 5,7$ |
| Emakumezkoak (%) | 77,6 |
| Altuera (cm) | $159,8 \pm 7,3$ |
| Pisua (kg) | $72,6 \pm 12,9$ |
| GMI | $28,4 \pm 4,5$ |
| GAI | $0,9 \pm 0,06$ |
| Ariketa fisiko programan urte kopurua | $12,1 \pm 8,7$ |
| Charlson kormobilitate indizea (%) | |
| 0 | 61,2 |
| 1-2 | 30,6 |
| 3-4 | 8,2 |
| ≥ 5 | 0 |

GMI: Gorputz-Masa Indizea; GAI: Gerri-Aldaka Indizea

4.2 Errekrutamendua

Ikerketa hau egiteko lehenengo eta behin Getxo Kirolak-eko arduradunekin elkartu ginen. Beraiei gure ikerketaren helburuak, eta nondik norakoak azaldu genizkien eta hori burutzeko genituen beharrak. Horren ostean, beraiek ikerketarekin aurrera egiteko baimena eman ziguten.

Aztertu nahi genituen parte-hartzaileak, 65 urtetik gorakoak izan ziren eta gutxienez aurreko bederatzi hilabeteetan beraiei bideratutako ariketa fisiko gidatuko saioetako parte-hartzaileak izan behar ziren (1. Irudia).

Beraz, inklusio irizpideak honako hauek izan ziren:

- Aurreko bederatzi hilabeteetan gutxienez ariketa fisikoko saio gidatuetan aritu izana.
- 65 urtetik goragokoak izatea.

Esklusio irizpideak:

- Ariketa fisikoko saio gidatuetan 9 hilabete baino gutxiago eramatea.
- Ariketa fisikoa egiteko kontraindikazio medikuren bat izatea.


Behin irizpide horiek betetzen zitzatenak aukeratuta, ondorengo pausua pertsona horiei ikerketa zehatz-mehatz azaltzea izan zen. Horretarako, mantentze gimnasiako saioa bukatu ostean, batzar gela batean bildu ginen beraiekin, ikerketa zertan oinarritzen zen azaltzeko, ikerketan parte-hartzeak zer suposatuko zien, zenbat neurketa ziren, zenbat egunetan, iraupena, neurketak zertan oinarritzen ziren, eta ahal genuen neurrian haien zalantzak, beldurrak eta kezkak argitzen ahalegindu ginen. Batzar honen bitartez gure helburua parte-hartzaileei ikerketaren nondik norakoa azaltzeaz gain, ikerketa-taldearenganako hurbiltasuna sentiaraztea izan zen, ahal zen neurrian, ariketa fisiko gidatu horretan parte hartzen aritu ziren pertsona kopuru handiena animatzeko proiektuan parte hartzera.

Hori burutu ondoren, parte hartzeko interesa izan zuten pertsonei egun eta ordu jakin bat

jarri genien, eta informazio orria (I. eranskina) eta kontsentimendu informatua (II. eranskina) eman genizkien.

Jarritako egunean etortzerik ez bazuten, informazio orrian telefono bat eman genien gurekin harremanetan jar zitezen, eta era horretan beste egun eta ordu bat beraiekin adostu ahal genezan.

Ikerketa hau UPV/EHU-ko Gizakiekin egindako Ikerketako Etika Batzordeak onartu zuen, (M10_2015_204). Ikerketa honen protokoloa entsegu kliniko bezala erregistratuta dago Australian New Zealand Clinical Trials Protocol-ean, ondorengo zenbakarekin; Trial ID: ACTRN12617000716369.




1. Irudia. Ikerketako parte-hartzaleen fluxugrama

4.3 Ikerketaren diseinua

Ikerketa honetako neurketak bi momentu zehatzetan burutu ziren: Lehenengo neurketak ariketa fisiko gidatuaren bederatzigarren hilabeteko saioen bukaeran burutu ziren, ekainaren amaieran hain zuzen ere, ondoren pertsona horiek 3 hilabetez ez zuten inolako jarduera gidaturik egin eta bigarren neurketak irailaren hasieran egin ziren.

Neurketa guztiak aste bakarrean burutu ziren, bai ekainekoak baita irailekoak ere. Horiek egiteko erabilitako instalazioak neurketa saio bietan berdinak izan zirelarik.(2. Irudia)



2. Irudia. Ikerketa diseinuaren azalpen eskematikoa

Neurketa momentu bakoitzean ondorengo probak burutu ziren: araketa fisikoa,

galdetegiak (galdetegi pertsonala, SF-36, Minnesota), funtzi fisikoko probak (goiko eta beheko gorputz-adarren indarra, trebetasuna eta oreka dinamikoa, erresistentzia gaitasuna, esku indarra eta odol analisiak).

Aurretik aipatutako proba guztiak, parte-hartzaileek egun bakarrean burutzen zituzten odol analisiak izan ezik. Odol lagina ateratzeko prest zeuden partaideei neurketen egunean kontsulta-orri bat ematen genien, hurrengo bost egunetan orri horrekin Igualatorio Médico Quirúrgico-ko (IMQ) zentro batera joan zitezen odol lagina ateratzera, bertan erizainak izan ziren hau egiteaz arduratu zirenak. Bi zentrotara joateko aukera zuten, bat Algortan zegoen eta bestea Las Arenasen, zentro horien ordutegia emandako orrian zeukaten eta ez zuten inolako aurretiazko hitzordurik behar. Behin odol lagina atera ostean Medikosta laborategia arduratu zen odolaren laginaz.

Miaketa fisikoari zegozkion probak, gela itxi batean burutu ziren, pribatutasuna mantentzeko eta parte-hartzaileak lasaiago eta gusturago egon zitezen. Galdetegi pertsonala ere, han bertan pasatu zitzaien. Proba fisikoak frontoian burutu ziren, baina proben artean nekea ekiditeko beste galdetegi batzuk pasatu zitzazkien, hala nola, SF-36 eta Minnesota. Galdetegi horiek ere frontoiaren ondoan zegoen toki pribatu batean burutu ziren, parte-hartzaileek galderak erantzuteko unean, beraien kezkak azaltzeko lasaitasuna eta pribatutasuna izan zezaten.

4.4 Ariketa fisiko gidatua

Fadurako polikiroldegi, 65 urtetik gorako pertsonei bideratutako ariketa fisikoko mantentze gimnasia programa eskaintzen zuten. Bertan, parte-hartzaileak 10-15 pertsonako taldeetan elkartzen ziren, eta saio guztiak kirol-profesional berak gainbegiratzen zituen, entrenamendu saioaren nondik norakoa, intentsitatea eta teknika kontrolatzeko.

Saioek 50 minutuko iraupena zuten, saio guztiak egitura berbera mantentzen zuten: 10 minutuko beroketarekin hasten ziren (musikaren erritmoan zebiltzan bitartean gorputzaren goiko gorputz-adarreko ariketak, begiralearen argibideekin lotutako koordinazio ariketa simpleak, etab.). Ondoren, parte-hartzaileek binaka jarrita eta pilota

bigun batekin 10 minutuko erraketa partida bat jokatzen zuten eta gorputz-adar menperataile zein ez-menperatailearekin jokatzena animatzen zituen. Gero (20 minuto), muskulu multzo nagusien eta zoru lunbo-pelbiko-ko muskuluen indarra eta erreakzio abiadura lantzen zituzten, kanpoko elementu eta pisuak erabiliz. Horretaz gain, oreka dinamiko eta estatikoa lantzeko ariketa konplexuagoak ere burutzen zituzten. Saioak 10 minutuko, lasaitasunera bueltatzeko tarte batekin bukatzen ziren, zati horretan arnasketak, luzaketak eta erlaxazio ariketak burutzen zituztelarik.

4.5 Metodoa

Miaketa fisikoa

Antropometria neurketa guztiak ikertzaile berak egin zituen, beti ere, ISAK-ek (International Society for the Advancement of Kinanthropometry) gomendatzen duen protokoloa jarraituz (Stewart, Marfell-Jones, Olds, eta Hans de Ridder, 2011).

Antropometria

Pisua

Pisua baskula eramangarri batekin neurtu zen, 0,1 kg-tan (Seca Model 869, Alemania). Neurketa hau burutzeko, pertsonari oinetakoak eta arropa astuna kentzeko eskatu zitzaison, hori egin ostean baskularen erdian zutik jartzen ziren bi oinak elkarren parean eta pisua bi hanketan berdin banatuta zutelarik.

Altuera

Altuera 0,1 cm-tan neurtu zen tallimetro eramangarri batekin (ASIMED T226, Barcelona)). Horretarako, vertex-aren (buruaren punturik altuenaren) eta euste-planoaren arteko distantzia neurtu zen.

Neurketa ondo burutzeko, partaideak oinak elkarren ondoan izan behar zituen eta orpoak, ipurmasailak eta bizkarraren goiko aldea eskalarekin kontaktuan. Buruari zegokionean, aurrera begira izan behar zuen Frankfort-en planoa mantenduz. Horretarako, orbitaren beheko ertzetik kanpoko entzunbidearen goialdera doan irudizko lerro bat imajinatu behar da. Lerro hau lurrireko paraleloa izanik. Neurketa burutzeko

arnasketa sakon bat egiten zuten eta orduan neurten zitzaien altuera.

Bi parametro hauek kontuan izanik, Gorputz-Masa Indizea (GMI) kalkulatu zen, hurrengo formula erabiliz:

$$\text{Gorputz-Masa Indizea (GMI)} = \text{pisua (kg)}/\text{altuera}^2 (\text{m}).$$

Permetroak

Horiek neurteko zinta metrikoa erabili zen, 1 mm-ko zehaztasuneko (Lufkin, Alemania). Zinta, neurtu nahi zen tokiaren inguruan jartzen zen, sakatu gabe. Permetroak neurteko parte-hartzaileak zutik zeuden, besoak gorputzarekiko paralelo zituztelarik.

Gerriaren perimetroa (cm)

Abdomenaren punturik estuenean, azken saihetsaren azpian kokatzen den puntuaren neurtu zen, beti ere arnasa bota eta gero.

Aldakaren perimetroa (cm)

Pubisaren sinfisiaren altueran, ipurmasailen punturik irtenena kontuan izanik neurtu zen, baina neurketa burutu ahal izateko subjektuak ipurmasailak erlaxatuta izan behar zituen.

Bi perimetro hauen bitartez, Gerri- aldaka Indizea (GAI) lortu zen, hurrengo formularen bitartez:

$$\text{Gerri- aldaka Indizea (GAI)} = \text{Gerriaren perimetroa (cm)}/\text{aldakaren perimetroaren (cm)}$$

Tentsio arterialaren balorazioa

Tentsio arteriala, odolak arterietatik pasatzerakoan hormetan egiten duen indarra da. Tentsio arteriala merkurio-milimetrotan (mmHg) neurten da, eta bi balio hartzen dira kontuan: tentsio sistolekoa eta tentsio diastolekoa. Tentsio sistolekoa odolak bentrikuluen uzkurketan eragindako tentsioa da eta tentsio diastolekoa ostera, bentrikuluak lasai daudenean eragiten duten tentsioa.

Tentsio arteriala neurteko pertsona eserita zegoen gutxienez, neurketa burutu baino 10 minutu lehenago, era horretan gorputzak atseden-egoeran duen benetako neurketa

burutuz. Neurketa egiteko unean partaideak eserita zeuden, oin biak lurzoruanen gainean, besoa erdi flexionaturik eta esku-ahurra gora begira zutelarik. Tentsio arterialaren neurketak eskumako besoko arteria brakial-ean egin ziren.

Galdetegiak

Galdetegi pertsonala

Datu orokorrak

Parte-hartaile guztiei ad-hoc sortutako galdetegi bat pasatu zitzaien, beharrezko datuak jasotzeko. Parte-hartzaleen izen-abizenak, jaiotze data eta telefono zenbakia galdu zitzaien, hurrengo neurketetan beraiekin harremanetan jarri ahal izateko.

Bestetik, ariketa fisiko gidatuan parte hartzen aritu ziren bederatzi hilabeteetan, erorketarik izan zuten galdu zitzaien eta baita etete-aldian zehar (hiru hilabete horietan) erorketarik izan zuten. Erorketa izan zutela adierazi zuten kasuetan, izan zituzten ondorioen inguruan galdu zitzaien.

Ariketa fisikoa

Parte-hartzaleei, ariketa fisiko gidatuko saioetan zenbat denbora zeramaten parte hartzen galdu zitzaien, ea zeintzuk ziren arrazoia saio horietan parte-hartzearenak eta ea lehenago, gazteten ariketa fisiko edo kirolik praktikatu izan zuten.

Charlson indizea

Charlson-en komorbilitate indizearen bidez 10 urterako bizi-itxaropena neurtu daiteke, aztertzen den adinaren eta pertsonaren komorbilitatearen arabera. Adinaz gain, 19 item ditu, egiaztaturik daude horiek subjektuaren bizi-itxaropenean modu zuzenean eragiten dutela. Item-ak lau talde desberdinatan daude multzokatuta eta bakoitzak puntuazio bat dauka, 1, 2, 3, edo 6, arriskuaren arabera. Adina ere 6 multzotan taldekatzen da, Otik eta 5erarteko puntuazioa izanik. (III. eranskina)

Lortutako emaitza totala gero eta zenbaki handiagoa izan hiltzeko arrisku handiagoa adierazten du (Charlson, Pompei, Ales eta MacKenzie; 1987).

Osasunarekin erlazionaturiko bizi-kalitatearen balorazioa

Parte-hartzaileen bizi-kalitatea baloratzeko SF-36 Health-Related Quality of Life galdelegia erabili zen. Galdelegi honek osasun-galdeketa nagusietan erabiltzen diren osasun-konzeptuak, bai gaixotasun eta bai tratamenduekin zerikusia duten alderdiak ere adierazten ditu (Ware eta Gandek; 1998). Galdelegi hori 36 galderaz osaturik dago eta horiek 8 dimensio desberdinan taldekatzen dira (Vilagut eta lank., 2005).

Galdelegi horrek parte-hartzaileen osasun egoeraren profil bat ematen du era eskalar batean, eta hori bai pertsona osasuntsuengen nahiz gaixo daudenengan erabil daiteke (Vilagut eta lank., 2005).

Aipatutako galdelegia hainbat hizkuntzatan dago balioztatuta, guk bertsio espainiarra erabili genuen (Vilagut eta lank., 2005).

SF-36-ak esan bezala 36 galdera ditu eta horiek 8 dimensioetan banatzen dira: funtzio fisikoa, rol fisikoa, gorputz mina, osasun orokorra, bizitasuna, giza funtzioa, rol emozionala eta osasun mentala. Horietaz gain, aurreko urtearekin alderatuz osasun egoera orokorrean aldaketarik izan duten galdetzen duen galdera bat dago, galdera hori ez da dimensioen barruan sartzen (Vilagut eta lank., 2005).

Dimensio bakotza eskalarra da, hau da, 0 puntuazioa osasun egoera txarrena izanik eta 100-eko puntuazioa osasun egoera onena. Bi puntuazioen tartean dagoen edozein puntuazio eman dezake, zenbat eta puntuazio altuagoak izan, orduan eta osasun egoera hobea adieraziz (3. Irudia).

Tabla1. Contenido de las escalas del SF-36

| Dimensión | N.º de ítems | Significado de las puntuaciones de 0 a 100 | |
|-----------------------------|--------------|---|--|
| | | «Peor» puntuación (0) | «Mejor» puntuación (100) |
| Función física | 10 | Muy limitado para llevar a cabo todas las actividades físicas, incluido bañarse o ducharse, debido a la salud | Lleva a cabo todo tipo de actividades físicas incluidas las más vigorosas sin ninguna limitación debido a la salud |
| Rol físico | 4 | Problemas con el trabajo u otras actividades diarias debido a la salud física | Ningún problema con el trabajo u otras actividades diarias debido a la salud física |
| Dolor corporal | 2 | Dolor muy intenso y extremadamente limitante | Ningún dolor ni limitaciones debidas a él |
| Salud general | 5 | Evaluá como mala la propia salud y cree posible que empeore | Evaluá la propia salud como excelente |
| Vitalidad | 4 | Se siente cansado y exhausto todo el tiempo | Se siente muy dinámico y lleno de energía todo el tiempo |
| Función social | 2 | Interferencia extrema y muy frecuente con las actividades sociales normales, debido a problemas físicos o emocionales | Lleva a cabo actividades sociales normales sin ninguna interferencia debido a problemas físicos o emocionales |
| Rol emocional | 3 | Problemas con el trabajo y otras actividades diarias debido a problemas emocionales | Ningún problema con el trabajo y otras actividades diarias debido a problemas emocionales |
| Salud mental | 5 | Sentimiento de angustia y depresión durante todo el tiempo | Sentimiento de felicidad, tranquilidad y calma durante todo el tiempo |
| Ítem de Transición de salud | 1 | Cree que su salud es mucho peor ahora que hace 1 año | Cree que su salud general es mucho mejor ahora que hace 1 año |

3. Irudia. SF-36aren dimensioen bakoitzak dituen item kopurua eta puntuazio altu eta baxuaren esanahia.

Iturria: Vilagut eta lank., 2005

Aurretik aipatutako 8 dimensioak bi eskalaten labur daitezke, dimensio fisikoa eta dimensio mentala. Dimensio fisikoa osatzen duten dimensioak: funtzio fisikoa, rol fisikoa, gorputz mina eta osasun orokorra dira. Dimensio mentala osatzen dutenak, bizitasuna, giza funtzioa, rol emozionala eta osasun mentala izanik. Dimensio horiek osatzen dituzten azpi-dimensioetan lortutako puntuazioen batuketatik lortzen da dimensio hauen puntuazioa, 0 eta 400 puntu bitartekoia izanik, 0 egoera txarrena eta 400 egoera hoberena. Era horretan, SF-36 galdetegiaren emaitza osoa lortu zen, dimensio fisikoan eta dimensio mentalean lortutako puntuazioen batura eginez (Quintal eta lank., 2017) (Ikus 4. Irudia).

| SF-36 galdeategia | Puntuazioa | |
|-------------------|------------|-------------------|
| Funtzio fisikoa | 0-100 | DIMENTSIO FISIKOA |
| Rol fisikoa | 0-100 | |
| Gorputz mina | 0-100 | |
| Osasun orokorra | 0-100 | |
| Bizitasuna | 0-100 | DIMENTSIO MENTALA |
| Giza funtzioa | 0-100 | |
| Rol emozionala | 0-100 | |
| Osasun mentala | 0-100 | |
| Dimentsio fisikoa | 0-400 | SF-36 TOTALA |
| Dimentsio mentala | 0-400 | |

4. Irudia. SF-36aren taldekatzeak dimentsio fisiko eta mentalean

Galdetegi hori auto-administratua izatea gomendatzen da baina elkarrizketa bitartez edo dei telefoniko baten bitartez ere egin daiteke (Vilagut eta lank., 2005). Ikerketa honetan galdeategia elkarrizketa bitartez egin zen, hirugarren adineko pertsonak galdeketak erantzuteko izaten dituzten arazoak ekiditeko asmoz eta ahal zen neurrian galdera guztiak erantzuna izan zezaten. Galdetegi guztiak ikertzaile berak egin zituen, beti leku pribatu batean eta bakarka, galderak erantzuteko unean inoren eraginik ez zezaten izan.

Denbora libreatan burutzen zuten jarduera fisikoaren balorazioa

Parte-hartzaleak beraien denbora libreatan egiten zuten jarduera fisikoa kuantifikatzeko “Jarduera fisikoa denbora libreatan Minnesota galdetegi laburtua” pasatu zitzaien. Galdetegi hau baliozkoa eta fidagarria da 50 urtetik gorako pertsonengana eta gaztelaniaz dago (Ruiz-Comellas eta lank., 2012). Horrez gain, erabil erraza eta laburra da. Galdetegi

hori elkarrizketa pertsonal baten bitartez burutu zen, eta parte-hartzale guztiei ikertzaile berak pasatu zien galdetegia.

Galdetegi horrek denbora librean izandako gastu energetikoari buruzko informazioa emateaz gain, pertsonak ariketa mailaren arabera sailkatzeko aukera ematen du. Galdetegia sei itemez osaturik dago: 1- Ibiltzea, 2- Ortuko lanak, 3- Kirola edo dantza egin, 4- Eskailerak igo, 5- Erosketak egitera oinez joan eta 6-Etxea garbitu. Lehenengo lau itemak jarduera fisikoaren ingurukoak dira. Galdera horien kasuan azken hilabetean jarduera horiei eskainitako egun kopurua eta denbora galdu zitzaien. Ohiko etxeko jardueren inguruau galdu zitzaienean, parte-hartzaleei aurreko asteaz galdetzen zitzaien, baina aurreko astean ez bazuten jarduera arrunta aurrera eraman gaixotasunagatik edo beste arrazoiren batengatik aste arrunt batez galdu zitzaien.

Era horretan parte-hartzaleek denbora librean izandako gastu energetikoa kalkulatu zen Metabolic Equivalent- minutuko (MET-min) (IV. eranskina).

Egoera fisikoa


Egoera fisikoa baloratzeko proba fisikoen multzoa

Ikerketako parte-hartzaleen egoera fisikoa, funtzionala baloratzeko adineko pertsonentzat diseinatutako Senior Fitness Test (SFT) proben multzoa erabili zen. Senior Fitnes Testen proba fisikoen multzoa, Riklik eta Jones-ek (2001) diseinatu eta balioztatu zuten. SFT-a 60 eta 94 urte bitarteko pertsona autonomoekin eta gaitasun fisiko, funtzional desberdineko pertsonekin erabil daiteke, hau da, gaitasun maila oso desberdineko pertsonak baloratzeko erabilgarria izanik(Rikli eta Jones; 2001).

Multzo horren barruan test desberdinak daude, hala nola,goiko eta beheko gorputz-adarraren indarra, oreka dinamikoa eta erresistentzia aerobikoa neuritzeko testak. Jarraian proba bakoitzaren zehaztasunak emango dira:

Arm Curl testa

Test horren bidez goiko gorputz-adarraren indarra neurtu zen. Horretarako, pertsona besorik gabeko aulkian eserita, bizkarra zuzen eta oinak lurrean zituela jarri zen. Ondoren, parte hartzaileak esku menderatzailea aulkitik kanpoko alboko ertzean izan behar zuen eta behin horrela zelarik mankuerna bat eman zitzzion eskura. Emakumeen kasuan 2,27 kg-ko (5 libra) pisua erabili zen, gizonezkoen kasuan 3,63 kg-koa (8 libra). Hasierako posizioan pisua esku menderatzailearekin hartuta zuen, aulkitik kanpo eta lurrireko perpendikularki. Jarrera horretatik abiatuta, aztertzaileak “ya” esatean, pertsonak esku ahurra aurrerantz biratu (supinazioan) behar zuen, besoaren flexio mugimendua osatuz esku ahurra gora begira jarri arte. Ondoren, besoa luzapen osoko posiziora itzuli behar zuen eskumuturra gorputzera biratuz. Parte-hartzaileak 30 segundotan ahalik eta errepikapen gehien egiten ahalegindu behar zuen. Lehendabizi proba ahoz azaldu zitzaien eta ondoren aztertzaileak erakustaldi bat egin zuen, jarraian parte-hartzaileak 1-3 errepikapen artean burutu zituen froga gisa eta azkenik 30 segundoko testa burutu zuen. Denbora tarte horretan modu egokian buruturiko errepikapen kopuruak zenbatu ziren orri batean (V. eranskina). Parte-hartzaileak 30 segundo igaro ostean, hau da, gelditzeko unean ibilbide erdia baino gehiago egina bazuen, errepikapen osotzat hartzen zen (Rikli eta Jones, 1999).



5. Irudia. a) Arm Curl testaren irudi grafikoa. b) Ikerlaria partaideari testa azaltzen.
c) Parte-hartzailea testa burutzen.

Iturria: Rikli eta Jones, 1999

Chair Stand testa

Test horren bitartez beheko gorputz-adarraren indarra neurtu zen. Test hori aulkitik altxatu eta berriz esertzean datza. Proba hori egiteko, parte-hartzalea besorik gabeko aulki baten erdialdean eserita, bizkarra zuzen, oinak lurrean iltzatuta eta besoak bularraldean gurutzatuta zituela jarri behar zen. Azterzaileak “ya” agindua esatean pertsona aulkitik altxatu eta berriro esertzeko posiziora itzuli behar zen. Parte-hartzaleak mugimendu hori 30 segundotan burutu behar zuen, ahalik eta errepikapen gehien eginez. Proba lehendabizi ahoz azaldu zitzaien, beraiek testa burutu baino lehen azterzaileak erakustaldi bat egiten zuen eta ondoren parte-hartzaleei 1-3 errepikapen burutzeko eskatzen zitzaien, testa ongi egiten zutela ziurtatzeko. Ondoren, 30 segundoko testa egin zitzaien, eta denbora tarte horretan ondo burututako errepikapenak zenbatu ziren. Pertsonak 30 segundo igaro ostean ibilbide erdia baino gehiago egina bazuen, errepikapen osotzat hartu zen (Rikli eta Jones, 1999).




6. Irudia. a) Chair Stand testaren irudi grafikoa. b) Ikerlaria partaideari testa azaltzen.
c) Parte-hartzalea testa burutzen.

Iturria: Iturria: Rikli eta Jones, 1999

8 Foot Up and Go (8 FUG) testa

Test hori arintasuna eta oreka dinamikoa neurtzeko erabili zen. Berau aurrera eramateko unean pertsona aulkian eserita, bizkarra pixka bat surrealderantz makurtuta, oinak lurrean jarririk (oin bat bestearren aurrean) eta eskuak izterretan zituela hasten zen testa. Azterzaileak "ya" esandakoan, parte-hartzailea aulkitik altxatu eta ahalik eta azkarren konora joan behar zen, bertan konoari buelta kanpoko aldetik eman eta berriz bueltatu aulkian esertzera. Hau ahalik eta bizkorren burutu behar zuten baina oinez, korrika egin gabe. Kinoa aulkitik 2,44m-tako (8 foot) distantziara zegoen. Parte-hartzaileari testaren helburua ahalik eta denbora laburrenean burutzea zela esaten zitzaion. Azterzaileak ahoz azaltzeaz gain, erakustaldi bat burutzen zuen eta ondoren parte-hartzaileek behin praktikatzeko aukera izan zuten proba modura. Ondoren bi neurketa burutu ziren. Proba honetan pertsonak test hau burutzeko behar izandako denbora segundoetan neurtu zen. Bi neurketetatik balore hoherena hartu zen (Rikli eta Jones , 1999).




7. Irudia. 8 FUG testaren irudi grafikoa

Iturria: Iturria: Rikli eta Jones, 1999

6 Minute Walk Test (6 MWT)

Erresistentzia aerobikoa test horren bitartez neurtu zen, horretarako pertsonak sei minutuz burutu zezakeen distantziarik luzeena neurtuaz. Hori egiteko 45,72 metroko laukizuzen bat markatu zen, 4,57 metrora markaturik, eta laukizuzenaren lau iskinetan kono bat jarri zen. Azterzaileak “ya” esandakoan, parte-hartzalea 6 minutuz laukizuzenaren kanpo aldetik ahalik eta azkarren ibili behar zen, beti ere korrika egin gabe. Beharrezkoa izan balitz, parte-hartzaleak gelditzeko eta deskantsatzeko aukera zuen eta gero jarraitu. Proba bukatzeko hiru minutu, bi minutu eta minutu bakarra falta zitzaiela abisua ematen zitzaien eta 30 segundotik behien “jarraitu horrela!”, “ondozabiltza” bezalako esaldiak esaten zitzaizkien. Sei minutuak igarotzean, parte-hartzaleak zegoen tokian gelditzeko agindua jasotzen zuen, era horretan azterzaileak zein marratan aurkitzen ziren zenbatzen zuen, bira kopurua aurretiaz zenbatuta izanik. Beraz, proba horretan parte-hartzaleak 6 minutu horietan egindako distantzia metrotan izango litzateke puntuazioa, hau da, emandako bira kopurua metroetan eta azken marra horien batuketa (Rikli eta Jones, 1998).



8. Irudia. 6 MWT probaren irudikapen grafikoa

Proba horrekin hasi baino lehen eta proba bukatu bezain laster esfortzu pertzepzioaren inguruan galdu zitzaien parte hartzaileei.

Esfortzu pertzepzioa jakiteko Borg eskala erabili zen (Borg, 1970). Era horretan, esfortzu kardiobaskularra eta esfortzu muskularra zenbatekoa zen adierazi behar zuten. Horretarako Otik 10erako zenbaki eskala erakutsi zitzaien, bat sistema kardiobaskularren argazki batekin eta bestea hanka baten muskuluen argazkiarekin (VI. eranskina). Eskala hori zertan oinarritzen zen proba burutu baino lehen azaldu zitzaien.

Esku indarra

Eskuko dinamometro digitala erabiliz (Jamar, Boñongbrook, IL, USA), esku menderatzailean zuten indarra neurtu zen (kg-tan). Hori burutzeko parte-hartzaileak eserita zeuden, bizkarra, pelbisa eta belaunekiko 90º inguruko posizioarekin, sorbalda addukzio eta errotazio neutroan, ukondoa 90ºko flexioan, besurrea posizio neutroan eta eskumuturra 0º eta 15º bitarteko desbideratze kubitalean. Besoa ezin zuten beso-euskarrian jarri, eta aztertzaileak ere ezin zien eskua eutsi, proba burutzeko dinamometroa norabide bertikalean eta besurrearekin lerrokatutik mantendu behar zuten (Horowitz, Tollin eta Cassidy, 1997). Parte-hartzaileek hitzezko estimuluak jaso zituzten indar maximoa lortzeko. Hiru errepikapen burutu ziren eta hauen batez bestekoa hartu zen.



9. Irudia. Esku dinamometriaren irudia

Odol analisiak

Odol laginak ateratzeko “Igualatorio Medico Quirurgico-k” (IMQ) Getxon dituen bi zentrora joateko aukera zuten, bat Algortan zegoen eta bestea Las Arenasen. Pertsonak odol analisiak egin ahal izateko kontsulta orri bat ematen genien, hurrengo 5 egunetan paper horrekin zentro horietara hurbiltzeko. Zentro horien ordutegia emandako orrian zeukan eta ez zuten inolako aurretiazko hitzordurik hartu behar. Odol lagin guztiak 12 orduko barauaren ostean hartu ziren. Odol lagin erizainek atera zituzten eta behin odol lagina atera ostean, hauen analisia egiteaz Medikosta laborategia arduratu zen.

IMQ-ko zentroetara odol analisiak ateratzeko eraman behar zuten orriaren beheko aldean, pertsonek Medikosta zentroari onarpena ematen zioten datu horiek guri bidaltzeko, hau da, analisi horien emaitzak beraien baimenarekin guri bidaltzeko, horrela guk ikusi ahal izateko.

Azertutako parametro biokimikoak ondorengoa izan ziren:

Parametro lipidikoak Roche/Hitatchi cobas c sistemaren bitartez egin ziren. Parametro lipidikoen barruan: Kolesterol (Kol), dentsitate altuko lipoproteina (HDL), dentsitate baxuko lipoproteinena (LDL), trigliceridoak(TG) eta aterogeneitatea (ATG) neurtu ziren.

Kolesterol (mg/dL), Cholesterol Gen.2 (CHOL2) bitartez egin zen, dentsitate altuko lipoproteina (mg/dL) burutzeko HDL-Cholesterol plus 3rd generation (HDLc3) erabili zen. Trigliceridoak neurtzeko, Triglycerides (TRIGL) kita erabili zuten. Aterogeneitatea neurtzeko, kolesterolaren eta dentsitate altuko lipoproteinaren kontzentrazioen arteko erradioa kalkulatu zen (Kol/HDL). Dentsitate baxuko lipoproteinaren kontzentrazioa kalkulatzeko formula matematikoa erabili zen: Kol-HDL-(TG/5mg/dL).

Horretaz gain, gluzemia mailarekin erlazioa duten bi parametro neurtu ziren, glukosa (Glu) eta hemoglobina glikosilatua A1c (HbA1c). Glukosaren neurketarako (mg/dL) Glucose HK Gen.3 (GLUC3) kita erabili zen eta hemoglobina glikosilatua A1c (mmol/mol) neurtzeko Tina-quant Hemoglobin A1c Gen.3 (a1C3) erabili zen.

Interleukina-6 (pg/ml) maila neurtzeko, saio immunometriko kimioliminiszente sekuentziala egin zen, IMMULITE 2000 systems kit-a erabiliz.

Proteina C-erreaktiboaren (mg/dL) kontzentrazioa ezagutzeko, partikulekin sustatutako proba immunoturbidemetricoa egin zen, C-Reactive Protein Gen 3 kit komertziala erabiliz.

Azkenik, adiponektina (ug/ml) neurtzeko ELISA (Enzyme-Linked ImmunoSorben Assay) teknika erabili zen, horretarako BioVendor Human Adiponectin ELISA kit-a erabiliz.

Analisi estatistikoa

Analisi estatistikoa IBM SPSS Statistics 21.0 bertsioaren bitarte egin zen eta kasu guztietan adierazgarritasun estatistikoa $p<0,05$ -ean ezarri zen.

Ikerketan zehar erabili ziren proba estatistikoak ondorengoak dira:

- Estatistika deskriptiboa erabili zen batez besteko balioak eta hauen desbiderapen estandarrak ezagutzeko.
- Frekuentziak erabili ziren parte- hartzaleen portzentajeak ezagutzeko.
- Aldagaien normaltasuna konprobatzeko Kolmogorov-Smirnov edo Shapiro-Wilk probak erabili ziren.
- Bi talderen arteko desberdintasuna aztertzeko, datuek normaltasuna betetzen zutenean: student-en t-test independientea erabili zen oster, datuek normaltasuna betetzen ez zutenean, Mann Whitney proba ez parametrikoa erabili zen.
- Bi momentu desberdinaren arteko desberdintasunak aztertzeko, datuak normaltasuna betetzen zutenean: student-en t test erlazionatua erabili zen, eta datuek normaltasuna betetzen ez zutenean, Wilcoxon test proba ez parametrikoa erabili zen. Gainera, konfidentzia interbalikoa kalkulatu zen %95-ean.

- Bi momentu desberdinaren artean aldagai batean geratutako aldaketaren ehunekoa kalkulatu zen ondorengo formularen bitartez: ((bukaerako neurketa-hasierako neurketa)/hasierako neurketa)x100.
- Magnitudearen tamaina deskribatzeko Cohen-en d erabili zen (Cohen's d). Tamainaren eragina Cohen-en (1988) arabera interpretatu ziren. Horrela d txikia (> 0.2 eta < 0.5), ertaina (≥ 0.5 eta < 0.8) edo handia (≥ 0.8) bezala interpretatu zen.
- Aldagai biren arteko erlazioak aztertzeko, aldagaien normaltasuna betetzen zen kasuetan, Pearson-en erabili zen. Aldiz, aldagaien normaltasuna betetzen ez zen kasuetan, Spearman-en erabili zen. Gainera, korrelazio partzialak egin ziren aldagaiak kontrolatu nahi izan zirenean.
- Aldagai kategorikoak beraien artean aztertzeko, Chi-squared goodness of fit testa erabili zen.

5. ARTIKULUAK



1. KAPITULUA

Osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea, eskuko indarra eta erorketak etete-aldian zehar, ariketa fisikoa egitera ohitura dauden pertsona nagusietan

5. ARTIKULUAK

5.1 1. Kapitula

Health-related quality of life, handgrip strength and falls during detraining in elderly habitual exercisers

Osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea, eskuko indarra eta erorketak etete-aldian zehar, ariketa fisikoa egitera ohituta dauden pertsona nagusiengan

Health and Quality of Life Outcomes aldizkarian publikatuta (VII. eranskina)

Abstract

Background: The effects of regular exercise on physical functioning and health-related quality of life (HRQOL) have been thoroughly studied. In contrast, little is known about the changes which occur following cessation of activity (detraining). Here, we have investigated the effect of a 3 month detraining period on HRQOL and on handgrip strength in elderly people who had regularly exercised, and examined the association of these variables with falls.

Methods: Thirty-eight women and 11 men (mean age, 75.5 ± 5.7 years) took part in a supervised physical exercise program for 9 months, followed by a 3 month detraining period. Participants completed the SF-36 HRQOL questionnaire at the beginning of detraining (baseline) and 3 months later. Handgrip strength and number of falls were also recorded.

Results: Participants had been exercising for 12.1 ± 8.7 years. After the detraining period, we found a significant ($p < 0.001$ – 0.05) decline in all SF-36 dimensions, with the exception of handgrip strength. Women presented a larger decline ($p < 0.05$) in more items than men. During the detraining period, 18.4% participants had a fall incident. HRQOL declined in both fallers and non-fallers during detraining. Interestingly, fallers already had at baseline significantly lower values in physical functioning ($p < 0.05$), emotional role (p

<0.05) and mental health ($p <0.01$), than non-fallers.

Conclusions: An important decline was found in most items of the SF-36 following a 3 month detraining period, particularly in women. In contrast, strength of the upper limb was not affected by the detraining. The prior lower HRQOL values of those who will subsequently fall suggest that this criterion should be studied as a candidate risk factor for falls. Efforts should be made to encourage the elderly to continue with exercise activities and/or to shorten holiday break periods, in order to maintain their quality of life.

Trial registration: The protocol was registered as a clinical trial in the ANZCTR (trial ID: ACTRN12617000716369).

Keywords: Quality of life, elderly, supervised physical activity, fall

Laburpena

Aurrekariak: Ariketa fisiko erregularrak funtzi fisikoan eta osasunarekin lotutako bizi-kalitatean dituen ondorioak sakonki aztertu dira. Ostea, ariketa fisikoa etetean gertatzen diren aldaketen inguruau gutxi dakigu oraindik. Ikerketa honetan hiru hilabeteko iraupena duen etete-aldiaren eragina aztertu zen, osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatean (HQOL) eta esku indarrean, ariketa erregularartasunez praktikatzen duten pertsona nagusiengan, eta aldagai horiek erorketekin duten erlazioa.

Metodoak: Hogeita hamazortzi emakume eta hamaika gizonek (bataz besteko adina $75,5 \pm 5,7$ urte) hartu zuten parte 9 hilabeteko ariketa fisikoko programa gidatu batean, horren jarraian hiru hilabeteko etete-aldi bat izanik. Hasierako neurketak programa bukatu eta jarraian egin ziren (hasierakoak) eta hurrengoak 3 hilabeteren ostean (bukaerakoak). Parte-hartzaleei bi neurketetan SF-36 bizi-kalitateko galdelegia pasatu zitzaien, eskuko indarra ere neurtu zitzaien, eta etete-aldi horietan izandako erorketak erregistratu ziren.

Emaitzak: Parte-hartzaleak bataz besteko $12,1 \pm 8,7$ urte egon ziren ariketa fisiko gidatuan parte hartzen. Etete-aldiaren ostean, murrizketa esanguratsua ($p <0,001-0,05$) eman zen SF-36ko dimensio guztietai baina ez ostea esku indarrean. Emakumezkoetan bizi-kalitatean gutxiagotze handiagoa eman zen ($p <0,05$) eta baita item gehiagotan ere gizonezkoekin alderatuz. Ariketa fisiko gidatuaaren etete-aldian, parte-hartzaleen %18.4k erorketaren bat izan zuen. Etete-aldian zehar erorketaren bat izan zuten eta izan ez zutenen bizi-kalitateak beherakada bat izan zuen. Interesgarria da, erori zirenak hasieran jada bazituztela balore estatistikoki esanguratsu baxuagoak: funtzi fisikoan ($p <0,05$), rol emozionalean ($p <0,05$) eta osasun mentalean ($p <0,01$) erori ez zirenekin alderatuz.

Ondorioak: Hiru hilabeteko etete-aldi baten ostean SF-36-ko dimensio gehienetan murrizketa adierazgarria ikusi zen, bereziki emakumeetan; goiko gorputz-adarraren indarrean ordea ez zen kalterik ikusi etete-aldian zehar.

Erorketa izan zuten parte-hartzaleek, erorketa baino lehenago jada bizi-kalitatean balore baxuagoak izateak adierazten du irizpide hau aurrerantzean erorketen arrisku eragile bezala aztertu behar dela.

1. Kapitulua

Ahalegina egin behar da pertsona nagusiek beraien ariketa fisikoarekin jarrai dezaten eta/edo opor aldiak laburtu, beraien bizi-kalitatea mantentzeko.

Proba erregistroa: Protokolo hau entsegu kliniko bezala erregistratu da (ACTRN12617000716369).

Hitz gakoak: Bizi-kalitatea, adinduna, ariketa fisiko gidatua, erorketa.

Sarrera

Azken urteotan pertsona nagusien portzentaje goraka doa mundu osoan. Azken datuen arabera Munduko Osasun Erakundeak dio, 2015 eta 2050 urte bitartean pertsona nagusien proportzioak %12tik %22ra egingo duela gora, hazkuntza adierazgarria adierazten du, 60 urtetik gorakoak 900 milioi izatetik 2000 milioi izatera pasatuko baita (<http://www.who.int/en/>). Zahartzaroa prozesu jarraitua, ahula, intrintsekoa eta unibertsala da (Mora-Bautista, 2008).

Nagusien populazioa aztertzean, ohikoak dira, zahartzaroak berarekin dakartzan erorketak eta horiek ekar ditzaketen lesioak. Hain zuzen ere, 65 urtetik gorako pertsona nagusien herena gutxienez urtean behin erortzen da (Giordano eta lank., 2016). Erorketa horiek heriotza-tasaren eta morbilitatearen arrazoi garrantzitsuak dira, eta ondorio kaltegarriak ekartzen ditu bizi-kalitatean eta independentzian (Kwang-II eta lank., 2017).

Adierazi dutenez, jarduera fisikoa faktore garrantzitsua da zahartzaro osasuntsua lortzeko (Buchner, 2009). May eta lankideen arabera, jarduera fisikoak osasun hobeagoarekin luzaroago bizitzeko aukera ematen du (May eta lank., 2015) eta entrenamendu fisikoak zahartze prozesuak dakartzan ondorioak murrizten ditu osasun funtzionalari dagokionean (Toraman, Eman eta Agyar, 2004). Beste eragile batzuen artean, erorketak pertsona nagusietan giharreko indar maila baxuarekin lotzen dira (Pruitt, Taaffe eta Marcus, 1995) eta baita orekaren narriadurarekin ere (Tolomio, Ermolao, Travain eta Zaccaria, 2008); beraz, ariketa fisikoa hori prebenitzeko oso estrategia egokia izan liteke eta erorketen prebentzioan ere paper garrantzitsua bete lezake (Sherrington, Tiedemann, Fairhall, Close eta Lord, 2011).

Eskuaren indarra, giharreko indar orokorraren adierazlea da eta hauskortasunarekin eta erortzeko joerarekin lotuta dago (Cheung eta lank., 2012). Gainera, aipatutako indarraren gutxitzeak zerikusia dauka funtzionaltasun fisikoaren galeran (Taekema, Gussecloo, Maier, Westendorp eta Craen, 2010). Errebizio sistematiko batean Bohannon-ek ondorioztatu zuen Eskuaren indarra neurri baliagarria zela pertsona nagusien osasun egoera baloratzeko (Bohannon, 2008). Handrip-aren erabilera balioztatuta dago, horrez

gain neurketa eta eraman errazekoa, eta eskuragarria da (Bohannon, 2008).

MOE-ren arabera bizi-kalitatea, subjektu batek bizitzan bere estatusaren inguruan duen pertzepzioa da, hau da, testuinguru kulturalean, bizi den sistemaren baloreetan eta haren objektuekiko erlazioan, expektatibetan, arauetan eta arduretan. Baino kontzeptu horrek bere baitan hartzen ditu osasun fisikoa, egoera psikologikoa, independentzia maila, harreman soziala, inguruko eragileak eta baita sinesmen pertsonalak ere (John, 1996). Osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea neurtzeko, oso erabilia da, SF-36 osasun galdetegia (López-García eta lank., 2003; Vilagut eta lank., 2005), batez ere pertsona nagusietan (Hekmatpou, Shamsi eta Zamani, 2013; Logsdon, McCurry, Pike eta Teri, 2009; Walters, Munro eta Brazier, 2001). Hirugarren adineko pertsonetan autonomia funtzionalak beraien bizi-kalitatean eragina dauka, ariketa autonomia honen babesle eta aitzindari baita (Soto, Dopico, Giraldez, Iglesias eta Amador, 2009). Ondorioz, zahartze aktiboagoa izateak urte gehiago funtzi mugetatik libre izaten laguntzen du, autonomiarekin eta independentziarekin, horiek beharrezkoak dira pertsona nagusien bizi-kalitaterako eta zoruntasunerako (Teixeira eta lank., 2010).

Funtzio fisikoari eta bizi-kalitateari dagokionean, jarduera fisiko erregularraren ondorio onuragarriak, argi eta garbi idatziak izan baitira ere (Küçükçakir, Altan eta Korkmaz ,2013), arreta gutxiago jarri da jarduera fisikoaren etetearen ostean ematen den aldaketen inguruan, hau da, etete-aldean. Horren inguruan argitaratuta dauden ikerketa gehienek, jardueraren etete horrek gihar funtziolan eta errendimendu fisikoan dituen ondorioak aztertzen dituzte (Henwood eta Taffe, 2008; Toraman eta Ayceman, 2005). Autore batzuek adierazi izan dute 9 asteko entrenamendu multikonponente baten ostean pertsona nagusiek indarra, abilezia, malgutasuna eta oreka hobetzen zituztela, eta 6 asteko etete-aldiak gaitasun fisikoetan beherakada esanguratsua eragin zuela (Toraman eta Ayceman, 2005). Bocalini eta lankideek, antzeko emaitzak aurkitu zituzten, horien kasuan 62 urtetik gorako emakumeek hartu zuten parte, 12 astez 3 aldiz astean, egunean ordu bat, uretako programa egin eta gero, euren gaitasun fisiko hobea zela ikusi zuten. 6 asteko etete-aldiaren ostean, aldiz, gaitasun fisikoko proba guztietan beherakada esanguratsua adierazi zuten (Bocalini, Serra, Rica eta Dos Santos, 2010).

Adierazgarria badirudi ere, oso datu gutxi daude etete-aldiak bizi-kalitatean duen eraginaren inguruan. Honekin lotuta erabili diren galdetegiak, Nottingham Health profile (Texeira-Samela eta lank., 2005), The Universiti of Queensland Quality of Life Questionnaire (Henwood eta Taffe, 2008) eta WHO Quality of Life Questionnaires (Bocalini eta lank., 2010) izan dira, baina gure ezagutzaren arabera, ikerketa bakarrak soilik aztertu du jarduera fisikoaren eteteak SF-36-an duen eragina, partaide osasuntsuengan (Lobo, Carvalho eta Santos, 2010). Ikerketa horren autoreek ikusi dute urte bateko entrenamenduaren ostean 3 hilabeteko eteteak, abilezian, oreka dinamikoan, beheko gorputz-adarreko indarrean eta malgutasunean izan zuela kalterik handiena, aldiz osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatean ez zen aldaketarik eman. Hala eta guztiz ere, goian aipatutako ikerketetan bizi-kalitatea puntuazio bakar bat moduan adierazi zen, berriz interesgarria izango litzateke SF-36-ko dimentsioak era sakonagoan aztertzea.

Gai honen inguruko ikerketa gehienek, pertsona sedentarioek entrenamendu aldi baten ondorengo etete-aldiaren ondorioak aztertu dituzte. Gaur egun, gutxi dakigu etete-aldiak nola eragiten duen jarduera fisikoa egitera ohitura dauden pertsonetan. Pertsona nagusiak opor luzeak hartzeko duten aukeragatik edo familiako arazoagatik (Henwood eta Taffe, 2008) eta ariketa fisikoko saioen etetea ematen dela udako oporrengatik etete-aldia kasu guztieta gertatu daiteke.

Egoera horretan, ez da bitxia ariketa fisiko erregularra egitera ohitura dauden pertsonak, hain zuzen ere pertsona nagusiak, artikulazioen zurruntasunaz, gorputzeko min handitzeaz eta ongi izatearen beherakadaz kexatzea. Ariketa fisikoak bizi-kalitatean dituen onurak kontuan izanik, interesgarria izango litzateke, etete-aldiaren ostean bizi-kalitatean zer gertatzen den ikustea, jarduera fisikoa egitera ohitura dauden pertsona nagusietan. Gainera baita etete-aldiak indarra hondatzen duen aztertza ere. Horregatik, etete-aldiak eta erorketa kopuruak erlaziorik daukan aztertza pertsona nagusietan eta hauen erlazioak bizi-kalitatearekin eta indarrarekin interesgarria izango litzake.

Hortaz, gure helburua ondorengo hipotesia baloratzea izan zen: etete-aldiak jarduera fisikoa egitera ohitura dauden pertsonetan beherakada eragiten duela bizi-kalitatean, zehazki funtzio fisikoarekin erlazioa duten dimentsioetan. Gainera, kontuan izanik etete-

aldiak funtzi fisikoa kaltetzen duela, zentzuzkoena da erorketa kopuruak gora egitea, jarduera fisikoa egitera ohituta dauden pertsona nagusietan eta honek eragina izatea bizi-kalitatean.

Ikerketa honen helburua, jarduera fisiko gidatua erregulartasunez burutzen zuten hirugarren adineko gizon eta emakumeen bizi-kalitatean eta esku indarrean, 3 hilabeteko etete-aldiak duen eragina aztertzea izan zen, eta baita erorketekin duten erlazioa ere.

Metodoak

Ikerketaren diseinua eta errekrutamendua

Parte-hartaileak Getxoko (Bizkaia; Euskal Herria) kirol-zentro publikoak 65 urtetik gorako pertsonei eskainitako ariketa fisikoko programa batean errekrutatu ziren. Inklusio irizpidea hau izan zen: 65 urtetik gorako pertsona nagusieri bideratutako jarduera fisikoko programan izena emanda egotea, gutxienez aurreko 9 hilabeteetan.

Irizpideak betetzen zituzten parte-hartaile guztiak ikerketaren inguruan informazio zehatza jaso zuten kirol zentroan, ikerketa taldearen esku. Hirurogeita zortzi pertsona nagusik bete zuten inklusio irizpidea eta horiekin harremanetan jarri ginan; horietatik bederatzik parte hartzeari uko egin zioten, ondorioz 57 partaide izan ziren errekrutatuak ikerketarako eta horiek, hasierako neurketak burutu zituzten. Arrazoi desberdinak direla eta 8 pertsonak ikerketa bertan behera utzi zuten, bukaeran 49 partaide aztertu ziren. Ikerketaren helburuak ahoz azaldu zitzazkien, hau da, neurketa aldagaiak eta beste zehaztasun batzuk.

Parte-hartaileek prozedurak ulertu ondoren baieztapen informatua sinatu zuten. Ikerketa Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Etika Batzordeak onartu zuen (M10-2015-204). Protokoloa entsegu kliniko bezala erregistratu zen Australiean New Zealand Clinical Trials Protocol-ean (ID del ensayo: ACTRN12617000716369).

Parte-hartaileek astean programa multikonponenteko bi talde saio burutu zituzten. Saio bakoitza 50 minutuko iraupenekoa izan zen. Saioa 15 minutuko giroz aldiz batekin hasten zen saiorako preparatzeko, atal honetan musika entzuten zuten bitartean

mugimendu artikularrak burutzen zitzuten. Jarraian erraketan jokatzen zuten pilota bigunarekin. Saioaren zati garrantzitsuan zehar, gorputzeko muskulu nagusien indar ariketak burutu zitzuten, oreka estatiko eta dinamikoko ariketak eta erreakzio abiadura ariketak, luzapenekin bukatuz. Saio guztiak eskamentudun pertsona berak eraman zituen aurrera. Programak bederatzi hilabeteko iraupena izan zuen eta hiru hilabeteko etete-aldi programatua, hiru hilabetetako udan zehar, udako oporretan hain zuen ere. Hori dela eta, etete-aldia urteko paua honekin bat etor zedin antolatu zen. Etete-aldian zehar, parte-hartzaileei beraien eguneroko jarduerekin normal jarraitzeko eskatu genien beti ere, ariketa fisiko gidatuetan parte hartu gabe. Parte-hartzaile guztiak jarduera programa gelditzeko planifikatuta zeuden, eta horretaz kontziente ziren ikerketaren hasieran.

Ikerketa neurketak

Neurketak bi aldiz egin ziren: lehenengoa, 9 hilabeteko jarduera fisikoko programaren amaieran (hasierakoak), ekainean. Neurketa horiek erreferentziazkotzat hartu ziren. Bigarren neurketak hiru hilabetera burutu ziren (bukaerakoak), hiru hilabeteko etete-aldiaren ostean, irailean.

Lehenengo aztertutako emaitza bizi-kalitatea izan zen, osasunarekin lotutako bizi-kalitatearen dimensio bakoitzean. Hori, 36-item short form survey (SF-36) bitartez neurtua izan zen, hori, gaztelanieraz balioztatuta dagoen galdetegi generiko bat da (Vilagut eta lank., 2005). Norbanakoaren osasun egoera neurtzeko diseinatuta dago. Hogeita hamasei itemeko galdetegia da eta zortzi dimensio desberdinatan sailkatuta daude: funtzio fisikoa, rol fisikoa, gorputzeko mina, osasun orokorra, bizitasuna, giza funtzioa, rol emozionala eta osasun mental. Horietako bakoitza 0 eta 100 artean aurkitzen da, 0 okerrena eta 100 hoberena izanik.

Bigarren emaitza, etete-aldian zehar gertatu zen erorketa kopurua izan zen, honen deskripzioa honako hau da, ezusteko gertaera non partaidea beheko solairuan,lurrean geratzen den (Thiem eta lank., 2014). Hori neurtzeko, parte hartzaileei etete-aldian zehar izandako edozein erorketen inguruari galdeitu zitzaien. Bestalde, adina, generoa eta antropometria ere erregistratu ziren. Pisua eta altuera Seca Modelo (869) instrumentuaren bitartez neurtu ziren, eta hauek kontuan izanik, Gorputz-Masa Indizea

atera zen (GMI, kg/m²). Gerriko eta aldakako zirkunferentzia ere neurtu zen eta honekin gerri-aldaka indizea kalkulatu zen. Neurketa guztiak International Society for the Advancement of Kinanthropometry (Stewart eta lank., 2011) jarraituta burutu ziren.

Muskuluaren indarra eta funtzioa ebaluatzeko praktika klinikoan esku indarra gomendatu izan da neurketa bezala (Cruz-Jentoft eta lank., 2010). Hori gutxi balitz, heltze indar maila baxuenak erorketa zenbaki handiago batekin erlazionatu dira nagusietan (Sayer eta lank., 2006). Beraz, esku menderatzaileko heltze indarra esku dinamometro digital (Jamar Plus) batez bitartez neurtu zen. Parte-hartzaileak eserita zeuden, bizkarra, pelbisa eta belaunekiko 90º inguruko posizioan, sorbalda addukzio eta errotazio neutroan, ukondoa 90ºeko flexioan, besurrea posizio neutroan eta eskumuturra 0º eta 15º bitarteko desbideratze kubitalean. Besoa ezin zuten beso-euskarrian jarri, eta aztertzaileak ere ezin zien eskua eutsi, proba burutzeko dinamometroa norabide bertikalean eta besurrearekin ierrokatutik mantendu behar zuten (Horowitz, Tollin eta Cassidy, 1997). Parte-hartzaileak animo hitzak esanez animatuak ziren, beraien indar maximoa neurtu ahal izateko eta hiru neurketen bataz bestekoa erregistratu zen.

Analisi estatistikoa

Datuak aztertzeko IBM Social Sciences (SPSS 21.0 bertsioa) pakete estatistikoa erabili zen. Normaltasuna aztertzeko Kolmogorov-Smirnov froga erabili zen. Bataz besteko eta desbideratze estandarra aztertzeko estatistika deskriptiboak erabili ziren. Hiru hilabeteko etete-aldiaren ostean aldagai guztieta desberdintasun esanguratsuak aztertzeko, hasierako neurketekiko, Wilcoxon testa erabili zen. Aldagai bakoitzaren aldaketa portzentajea ondorengo formula erabiliz kalkulatu zen: (bukaera-hasierakoa)/hasierakoa *100.

Mann-Whitney-ren U testa erabili genuen bi talderen arteko konparaketa egiteko. Ikerketa honetako datuak populazio orokorraren datuekin alderatzeko efektuaren tamaina erabili zen, Cohen's d parametroa. Efektuaren tamainaren atalase-baloreetarako 0,2; 0,5 eta 0,8 txikia, ertaina eta handia erabili ziren hurrenez hurren (Cohen, 1988). Hasierako neurketa eta hiru hilabeteko (bukaerako) neurketaren artean bataz besteko desberdintasunak kalkulatu ziren, baita ere %95 eko konfiantza interballoak ere. Kasu

guztietan signifikazio maila $p < 0,05$ ean ezarri zen.

Emaitzak

1.Taulan ikusi dezakegun bezala, ez zen aldaketa esanguratsurik ikusi etete-aldiaren osteko neurketa antropometrikoetan.

1.Taula. Ikerketa laginaren ezaugarriak

| | Hasieran BB \pm DE | Bukaeran BB \pm DE |
|--------------------------------|-------------------------|-------------------------|
| Adina (urteak) | $75,55 \pm 5,77$ | - |
| Emakumezkoak | 38 (77,6%) | - |
| Gizonezkoak | 11 (22,4%) | - |
| Altuera (cm) | $159,80 \pm 7,34$ | $159,81 \pm 7,34$ |
| Pisua (kg) | $72,63 \pm 12,98$ | $72,63 \pm 13,02$ |
| GMI | $28,41 \pm 4,58$ | $28,40 \pm 4,56$ |
| GAI | $0,90 \pm 0,06$ | $0,92 \pm 0,06$ |
| Ariketa fisikoko urtea kopurua | $12,13 \pm 8,76$ | - |
| Ez eroritakoak | - | 40 (81,6%) |
| Eroritakoak | - | 9 (18,4%) |

Laburdurak: GMI, Gorputz-Masa Indizea; GAI, Gerri-Aldaka Indizea; BB, Bataz bestekoa; DE, Desbideratze estandarra.

Bizi-kalitateari dagokionean, dimentsio guztietan antzeman ziren desberdintasun esanguratsuak etete-aldiaren ostean ($p < 0,05$ - $p < 0,001$), ikus 2. Taula.

Osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea aztertzekoan ez zen desberdintasun estatistikorik aurkitu gizon eta emakumeen artean. Hasierako datuetan, ostera, gizonezkoak emakumezkoak baino balio altuagoak adierazi zituzten dimentsio guztietan, salbuespen bakarra funtzio soziala izan zen, kasu horretan emakumezkoek gizonezkoek baino balio pixka bat altuagoak adierazi zituzten ($95,0 \pm 9,5$ vs. $93,1 \pm 8,5$) (3. Taula).

2.Taula. Osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea eta esku indarra hasieran eta bukaeran.

| | Hasieran BB±DE | Bukaeran BB±DE | d | BB diferentzia (%95 KI) | p-balorea |
|----------------------|-------------------|-------------------|-------|----------------------------|-----------|
| HRQOL (SF-36) | | | | | |
| Funtzio fisikoa | 91,4±8,9 | 84,1±11,9 | -0,61 | -7,3 (-9,5-(-)5,2) | <0,001 |
| Rol fisikoa | 96,4±12,5 | 87,8±28,9 | -0,29 | -8,7 (-17,7-0,3) | 0,05 |
| Gorputz mina | 80,8±19,9 | 66,0±22,1 | -0,66 | -14,7 (-20,6-(-)8,8) | <0,001 |
| Osasun orokorra | 71,6±17,8 | 67,6±17,1 | -0,23 | -3,9 (-7,7-(-)0,2) | 0,02 |
| Bizitasuna | 77,4±15,4 | 69,2±15,1 | -0,54 | -8,2 (-11,7-(-)4,7) | <0,001 |
| Giza funtzioa | 94,6±9,5 | 85,9±18,2 | -0,48 | -8,8 (-13,8-(-)3,7) | 0,001 |
| Rol emozionala | 91,2±25,3 | 77,5±36,9 | -0,37 | -13,7 (-23,3-(-)4,1) | 0,004 |
| Osasun mentala | 77,7±17,5 | 71,4±16,2 | -0,39 | -6,4 (-10,8-(-)1,9) | <0,001 |
| INDARRA | | | | | |
| Esku indarra (kg) | 25,2±6,4 | 25,3±6,4 | 0,01 | 0,12 (-0,63-0,84) | >0,05 |

Laburdurak: BB, Bataz bestekoa; DE, Desbideratze estandarra; HRQOL, Health-Related Quality of Life; KI, Konfiantza Interbaloak.

3.Taula. Osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea eta esku indarra hasieran eta bukaeran generoa kontuan izanik.

| | | Emakumezkoak (BB±DE) | Gizonezkoak (BB±DE) |
|---------------------------|----------|-------------------------|------------------------|
| HRQOL (SF-36) | | | |
| Funtzio fisikoa | Hasieran | 90,2 ± 9,6 | 95,4 ± 3,5 |
| | Bukaeran | 83,0 ± 12,6 *** | 87,7 ± 9,04 * |
| BB differentzia (%95 KI) | | -7,2 (-9,7-(-)4,7) | -7,7 (-13,2-(-)2,2) |
| Rol fisikoa | Hasieran | 96,0 ± 12,6 | 97,7 ± 7,5 |
| | Bukaeran | 88,1 ± 28,3 | 86,3 ± 32,3 |
| BB. differentzia (%95 KI) | | -7,8 (-18,0-(-)2,2) | -11,3 (-34,3-11,6) |
| Gorputz mina | Hasieran | 79,3 ± 20,4 | 85,5 ± 17,7 |
| | Bukaeran | 64,4 ± 23,0 *** | 71,4 ± 18,3 * |
| BB. differentzia (%95 KI) | | -14,8 (-21,9-(-)7,8) | -14,0 (-26,1-(-)2,0) |
| Osasun orokorra | Hasieran | 70,0 ± 18,8 | 76,9 ± 12,6 |
| | Bukaeran | 67,3 ± 18,25 | 68,2 ± 13,2 |
| BB differentzia (%95 KI) | | -2,6 (-6,4-1,2) | -8,6 (-20,0-2,7) |
| Bizitasuna | Hasieran | 77,3 ± 16,2 | 77,2 ± 12,5 |
| | Bukaeran | 68,9 ± 16,4 *** | 70,0 ± 10,0 |
| BB differentzia (%95 KI) | | -8,4 (-12,4-(-)4,4) | -7,2 (-15,8-1,2) |
| Giza funtzioa | Hasieran | 95,0 ± 9,8 | 93,1 ± 8,5 |
| | Bukaeran | 87,0 ± 18,2 ** | 81,6 ± 17,9 |
| BB differentzia (%95 KI) | | -7,9 (-13,5-(-)2,4) | -11,5 (-25,2-2,1) |
| Rol emozionala | Hasieran | 89,4 ± 28,0 | 96,9 ± 10,0 |
| | Bukaeran | 79,7 ± 36,8 * | 69,5 ± 37,9 * |
| BB. differentzia (%95 KI) | | -9,7 (-20,4-1,0) | -27,4 (-49,5-(-)5,3) |
| Osasun mentala | Hasieran | 76,0 ± 18,3 | 83,6 ± 12,9 |
| | Bukaeran | 71,0 ± 17,2 ** | 72,3 ± 12,5 * |
| BB. differentzia (%95 KI) | | -4,9 (-10,2-0,3) | -11,2 (-19,4-(-)3,05) |
| INDARRA | | | |
| Esku indarra (kg) | Hasieran | 22,6 ± 3,6 | 34,3 ± 6,1 *** |
| | Bukaeran | 22,8 ± 3,5 | 34,1 ± 7,1 *** |
| BB differentzia (%95 KI) | | 0,2 (-0,5-0,9) | -0,2 (-2,9-2,5) |

Laburdurak: BB, Batz besteko; DE, Desbideratze estandarra; KI, Konfiantza Interbalooak.

Oharrak: * p <0,05, ** p <0,01, *** p <0,001, estatistikoki desberdintasun adierazgarriak hasieran vs. bukaeran

*** p < 0,001, estatistikoki desberdintasun adierazgarriak emakumezkoak vs. gizonezkoak

Ariketa fisikoaren etete-aldiaren ostean, emakumezkoak eta gizonzkoak balio estatistikoki baxuagoak izan zituzten ($p <0,05$ - $p <0,001$) funtzi fisikoan, gorputzeko minean, rol emozionalean eta osasun mentaleko dimentsioetan. Horrez gain, emakumezkoek balio baxuagoak eman zituzten bizitasunean ($p <0,001$) eta giza funtziaren ($p <0,01$).

Ikerketak iraun zuen hiru hilabeteetan, 9k (%18) erorketaren bat izan zuten. Horietatik, 8 (%89) emakumezkoak izan ziren eta 1 (%11) gizonzkoak.

Hasierako neurketetan, geroago erorketa bat izango zuten parte-hartzaileek, estatistikoki balore baxuagoak adierazi zituzten funtzi fisikoan ($p <0,05$), rol emozionalean ($p <0,05$) eta osasun mentalean ($p <0,01$) erori ez zirenekin konparatuz. Horretaz gain, etete-aldiaren ostean, eroritako parte hartzaileek balore baxuagoak izan zituzten, funtzi fisikoan ($p <0,05$), osasun orokorrean ($p <0,05$) eta osasun mentalean ($p <0,05$) (4. Taula).

Hasierako eta hiru hilabeteetako datuak alderatzean, ikusi genuen erorketa izan zuten eta izan ez zutenek, hau da parte-hartzaile guztiekin, ariketa fisikoaren etete-aldiaren ostean dimentsio guzietan balore baxuagoak izan zituztela. Erorketarik izan ez zutenen artean balore estatistikoki esanguratsu baxuagoak aurkitu ziren funtzi fisikoan ($p <0,001$) gorputzeko minean ($p <0,01$), bizitasunean ($p <0,01$), rol emozionalean ($p <0,05$) eta osasun mentalean ($p <0,001$). Aldiz erorketa izan zutenen taldean desberdintasun estatistikoki esanguratsuak ($p <0,05$) aurkitu ziren hurrengo dimentsioetan; funtzi fisikoan, gorputzeko minean, bizitasunean eta giza funtziaren.

Esku indarrari dagokionean, gizonzkoek emakumeen aldean balore handiagoak eman zituzten ($p <0,001$) (3. Taula) eta ez zen aldaketarik ikusi etete-aldean zehar (2. Taula). Bestalde, heltze indarra, neurketa bi uneetan antzekoa izan zen erorketa izan zuten eta izan ez zutenen artean, neurketako bi uneetan (4. Taula).

4.Taula Osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatea eta esku indarra hasieran eta bukaeran generoa ez eroritakoak eta eroritakoak

| HRQOL (SF-36) | | Ez eroritakoak (BB±DE) | Eroritakoak (BB±DE) |
|--------------------------|----------|---------------------------|---------------------------|
| Funtzio fisikoa | Hasieran | 91,6 ± 9,4 | 90,5 ± 5,8 [‡] |
| | Bukaeran | 84,7 ± 12,7*** | 81,1 ± 7,8 [*] |
| BB differentzia (%95 KI) | | -6,8 (-9,4-(-)4,3) | -9,4 (-13,9-(-)4,9) |
| BB aldaketa (%) | | -7,6 ± 9,0 | -10,4 ± 6,4 |
| Rol fisikoa | Hasieran | 96,2 ± 13,3 | 97,2 ± 8,3 |
| | Bukaeran | 92,5 ± 22,0 | 66,6 ± 45,0 [‡] |
| BB differentzia (%95 KI) | | -3,7 (12,3-4,8) | -30,5 (-62,0-0,9) |
| BB aldaketa (%) | | -2,5 ± 54,1 | -33,3 ± 45,0 |
| Gorputz mina | Hasieran | 81,1 ± 19,9 | 78,8 ± 20,7 |
| | Bukaeran | 68,3 ± 20,7** | 56,0 ± 26,1 [*] |
| BB differentzia (%95 KI) | | -12,8 (-19,5-(-)6,1) | -22,8 (-35,9-(-)9,8) |
| BB aldaketa (%) | | -13,4 ± 25,3 | -30,4 ± 25,6 |
| Osasun orokorra | Hasieran | 73,9 ± 16,9 | 60,7 ± 18,5 |
| | Bukaeran | 70,6 ± 15,3 | 54,2 ± 19,1 [‡] |
| BB differentzia (%95 KI) | | -3,3 (-7,4-0,7) | -6,5 (-17,6-4,5) |
| BB aldaketa (%) | | -1,7 ± 21,4 | -9,1 ± 22,8 |
| Bizitasuna | Hasieran | 78,6 ± 13,0 | 71,6 ± 23,3 |
| | Bukaeran | 71,5 ± 12,5** | 58,8 ± 21,4 [*] |
| BB differentzia (%95 KI) | | -7,1 (-11,1-(-)3,1) | -12,7 (-19,9-(-)5,5) |
| BB aldaketa (%) | | -7,4 ± 16,9 | -19,8 ± 15,8 |
| Giza funtzioa | Hasieran | 95,6 ± 8,27 | 90,2 ± 13,6 |
| | Bukaeran | 88,6 ± 15,7** | 73,5 ± 23,7 [*] |
| BB differentzia (%95 KI) | | -7,0 (-12,5-(-)1,4) | -16,7 (-30,3-(-)3,1) |
| BB aldaketa (%) | | -6,6 ± 18,3 | -19,2 ± 18,9 |
| Rol emozionala | Hasieran | 94,1 ± 21,2 | 77,7 ± 37,7 [‡] |
| | Bukaeran | 82,4 ± 31,2* | 55,5 ± 52,7 |
| BB differentzia (%95 KI) | | -11,7 (-22,1-(-)1,3) | -22,2 (-50,8-6,4) |
| BB aldaketa (%) | | -9,5 ± 45,3 | -37,5 ± 51,7 |
| Osasun mentala | Hasieran | 80,9 ± 16,1 | 63,5 ± 16,7 ^{‡‡} |
| | Bukaeran | 73,9 ± 15,4*** | 60,0 ± 15,4 [‡] |
| BB differentzia (%95 KI) | | -7,0 (-12,3-(-)1,7) | -3,5 (-10,8-3,7) |
| BB aldaketa (%) | | -2,9 ± 48,6 | -4,6 ± 14,3 |

INDARRA

| | | | |
|--------------------------|----------|----------------|-----------------|
| Esku indarra (kg) | Hasieran | $25,2 \pm 7,0$ | $25,3 \pm 3,6$ |
| | Bukaeran | $25,4 \pm 7,1$ | $25,0 \pm 2,5$ |
| BB differentzia (%95 KI) | | 0,2 (-0,7-1,1) | -0,3 (-1,9-1,3) |
| BB aldaketa (%) | | $1,3 \pm 10,0$ | $-0,5 \pm 7,7$ |

Laburdurak: BB, Bataz besteko; DE, Desbideratze estandarra; KI, Konfiantza interbalooak; HRQOL, Health-Related Quality of Life.

Oharrak: * p <0,05, ** p <0,01, *** p <0,001, estatistikoki desberdintasun adierazgarriak hasieran vs. bukaeran

** p <0,001, estatistikoki desberdintasun adierazgarriak ez-eroritakoak vs. Eroritakoak

Eztabaida

Jarduera eta ariketak osasunaren arlo desberdinietan, bizi-kalitatean barne dakartzan onuren inguruan asko ikertu da, bestalde, gutxi dakigu ariketa fisiko gidatua eteteak duen eraginaz, ariketa fisikoa erregulartasunez burutzen duten pertsona nagusi osasuntsuen bizi-kalitatean. Kontuan izanik ariketa fisiko gidatuko programek udako oporraldiak, jarduera bertan behera uzteko aldiak, gaixotasunak, familiartekoentzako zaintzagatik,...iragarri ditzaketela, ikerketa honen helburua etete-aldi batek bizi-kalitatean, esku indarrean duen eragina aztertzea izan zen, eta baita horrek erorketekin duen erlazioa aztertzea ere ariketa egiten duten pertsona nagusietan.

SF-36-ko dimentsio gehienetan beherakada garrantzitsua aurkitu zen hiru hilabeteko jarduera fisikoaren etetearen ostean, batez ere emakumeetan eta erorketa izan zutenetan. Bestalde, erorketaren bat izan zuten parte-hartzaileek hasierako neurketetan estatistikoki balio baxuagoak izan zituzten osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatean.

Jakina da, jarduera fisikoak erlazio positiboa duela pertsona nagusien bizi-kalitatean (Balboa-Castillo, León-Muñoz, Graciani, Rodriguez- eta Artalejo Guallar-Castillón, 2011; Hörder, Skoog eta Frändin, 2013). Ideia hori bat dator ondorengo datuekin, alegia, ikerketa honetako parte-hartzaileak bataz bestez 12 urte daramatzaten ariketa fisikoko klaseetan parte hartzen eta balore altuagoak azaldu zituzten bizi-kalitateko dimentsio gehienetan populazio orokorrarekin alderatuta (<http://www.osakidetza.euskadi.eus/>)

horrek ariketa fisikoak pertsona nagusien bizi-kalitatean duen ondorio positiboa sendotzen du.

Interesgarria da, ariketa fisikoa egitera ohitura zeuden bizi-kalitateak 3 hilabeteko etete-aldiaren ostean beherakada izan zuela. Ikerketa gutxik aztertu dute etete-aldiak duen eragina bizi-kalitatean eta gainera egin diren azterketek emaitzetan kontraesanak adierazi dituzte.

Autore batzuek hiru hilabeteko etete-aldiaren ostean bizi-kalitatean aldaketarik aurkitu ez duten bitartean (Ansai eta Rebelatto, 2015; Lobo eta lank., 2010), Bocalini eta lankideek lau astetan beherakada esanguratsua aurkitu zuten eta 6 astetara oraindik handiagoa, datu horiek ikerketa honetako emaitzakin alderagarriak dira (Bocalini eta lank., 2010). Ariketa fisikoa etetea gaitasun aerobikoaren, gorputzeko indarraren, abileziaren, malgutasunaren eta oreka estatikoaren murrizketarekin erlazionatu da (Bocalini eta lank., 2010), horrek azal dezake funtzi fisikoarekin loturik dauden dimentsioen beherakada (funtzio fisikoa, rol fisikoa, gorputzeko mina eta osasun orokorra). Era berean, ikerketa honetako parte-hartzaleak denbora luzez jarduera taldean egiten ohitura zeuden, eta izan liteke bakarrik bizi zirenak edo beraien senar/emazte edo familiako norbait zaintzeaz arduratzen zirenak udako oporraldian zehar, aukera gutxiago izatea sozializatzeko eta beraien egunerokotik ateratzeko, horrek bizi-kalitateko dimensio sozial eta psikologikoan beherakada eraginik.

Aurretiaz ikusi izan da populazio orokorreko emakumeak gizonetako baino bizi-kalitate baxuagoa dutela (Hemingway, Stafford, Stansfeld, Shipley eta Marmot, 1997; Vuillemin eta lank., 2005). Era adierazgarrian ez bada ere, ikerketa honetako emakumeek ere, hasierako neurketetan, osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitateko dimensio gehienetan balore baxuagoak eman zituzten gizonetakoekin konparatuta. Adierazgarria da etete-aldiaren eragina emakumezkoetan handiagoa izan zela gizonetako baino.

Gizonetako funtzi fisikoan, gorputzeko minean, rol emozionalean eta osasun mentalean beherakada izan duten bitartean emakumeek honetaz gain bitalitatean eta giza funtziolan ere beherakada izan zuten. Ondorioz, norbanakoek beraien bizi-kalitatea mantentzeko gomendagarria da pertsona horiek jarduera gidatuetako programetan parte

hartzera animatzea, taldeko ariketetara edo batzarretara, era horretan beraien ongizatea mantentzeko ariketa fisikoaren etete-aldia ematen denean. Gomendio hori batez ere ariketa fisikoa egitera ohituta dauden emakumeei eman beharko litzaieke.

Ariketa fisiko gidatuaren hiru hilabeteko etete-aldian zehar, parte-hartzaleen %18,4-k erorketa sufritu zuen, hau espero genezakeena baino handiagoa izanik (Zijlstra eta lank., 2007). Toulette eta lankideek ikusi zuten entrenamenduaren onurak era esanguratsuan gutxitu zirela, bai erori eta erori ez zireneng artean etete-aldiaren hiru hilabeteetan, zehazki martxarekin erlazionatutako aldagaietan (abiadura, kudentzia, pausu luzeera) eta orekan (Toulotte, Thevenon eta Fabre, 2006). Heltze indarrari dagokionean, berriz, ez genuen inolako aldaketarik antzeman etete-aldian zehar eta ez zen desberdintasunik egon erori eta erori ez zireneng artean. Dena den, litekeena da etete-aldiak beheko gorputz-adarreko indarrean, koordinazioan eta orekan narriadura izatera eramatea, erortzeko arriskua handituz. Hori, ariketa desberdineng bitartez ekidin beharko litzateke, ariketa fisiko gidatuaren etete-aldian zehar.

Aipagarria da, etete-aldia baino lehen jada, gero erorketa izan zuten parte-hartzaleek osasunarekin erlazionatutako dimentsio gehienetan balore baxuagoak adierazi zituztela, estatistikoki esanguratsuak izanik funtzio fisikoan, rol emozionalean eta osasun mentalean erori ez zireneng alderatuta. Erorketa gertatu baino lehenagoko bizi-kalitatearen inguruko ikerketak urriak dira baina oso interesgarriak. Ikerketa desberdineng antzeman izan dute bizi-kalitateko puntuazio baxuenak erortzeko arrisku handiagoarekin erlazionatu izan direla (Bilotta eta lank., 2011). Gainera, erorketa baten ondorioz eskumuturra (Rohde, Mengshoel, Wahl, Moum eta Haugeberg, 2009) eta aldaka (Rohde, Mengshoel, Haugeberg, Moum eta Wahl, 2008) apurtu zutenek SF-36-ko dimentsio batzuetan besteak baino balore baxuagoak adierazi zituzten. Horiek horrela, erori zireneng bizi-kalitate baxuagoa ezaugarri interesgarria izan daiteke eta ikerketa gehiago egiteak informazio gehiago emango liguke.

Halaber, erorketaren bat izan zuten parte-hartzaleek etete-aldia pasatu eta gero balore baxuagoak adierazi zituzten eta gainera beherakada handiagoa jasan zuten dimentsio guztieng erori ez zireneng konparatuta, estatistikoki desberdintasunak ikusiz, funtzio

fisikoan, osasun orokorretan eta osasun mentalean. Autore desberdinek erorketak bizi-kalitatean duen eragin kaltegarria adierazi dute (Sherrington eta lank., 2011; Thiem eta lank., 2014). Gainera, erorketa izan duten pertsonek segurazki berriz erortzeko beldurra izango dute, eta honek bizi-kalitatean eragin handia dauka (Asai, Misu, Sawa, Doi eta Yamada, 2017).

Alabaina, erortzeko beldurraren eragina ajustatu ondoren ere (Thiem eta lank., 2014), erori ziren bizi-kalitatea erori ez zirenena baino baxuagoa izaten jarraitzen zuen. Erorketa batek lesio bat eragin dezake, hau da, jarduera fisikoan mugak, independentziaren galera eta funtzionamendu psikologikoaren gutxitzea (Tsonga eta lank., 2016), aipatutako horiek bizi-kalitatean eragin handia izanik.

Mugak

Ikerketa honen mugak kontuan izan behar dira. Alde batetik, ikerketa kontrol taldearen gabezian eraman zen aurrera, hori ikerketaren barruan izateak hau da, jarduera fisikoa burutzen ez duten pertsona nagusien datuak izateak bi taldeen arteko konparaketa onartuko luke. Beste aldetik, ikerketa honek parte-hartzaile gutxi izan ditu. Egia esan, kontuan izan behar da ariketa fisikoa era jarrai batean, denbora tarte luzez egiten aritu diren pertsona nagusien errekrutamentua egitea ez dela zeregin erraza izan, etetealdiaren eragina aztertzeko ariketa fisiko gidatua egitera ohituta daudenetan. Ikerketa honetan lortutako emaitza interesgarriek ikerketa handiagoa sustatu beharko lukete, talde desberdinak eta aldagai desberdinak aztertuz.

Ondorioak

SF-36-ko dimensio gehienetan gutxiagotze garrantzitsua ematen da hiru hilabeteko ariketa fisikoaren etetearen ostean. Beherakada hori nabariagoa da, batez ere emakumeetan eta ez dago erlazionatuta eskuko indarraren galtzearekin. Hori dela eta, ahalegina egin beharko litzateke ariketa mota berdinak mantentzeko edo/eta oporraldiak laburtzeko, batez ere emakumeen kasuan.

Gainera, etete-aldian zehar erorketa izan zuten pertsonek osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatean balore baxuagoak adierazi zituzten, ez soilik gertaeraren ostean baita lehenago ere, beraz horrek arreta gehiago merezi luke.

2. KAPITULUA

***Hiru hilabeteko ariketa fisikoa eteteak duen eragina funtziog
fisikoan eta bizi-kalitatean, erregulartasunez ariketa fisikoa
burutzen duten pertsona nagusiengan***

5.2 2. Kapitulua

Effects of 3 months of detraining on functional fitness and quality of life in older adults who regularly exercise

Hiru hilabeteko ariketa fisikoa eteteak duen eragina funtziō fisikoan eta bizi-kalitatean, erregulartasunez ariketa fisikoa burutzen duten pertsona nagusiengana

Aging Clinical and Experimental Research aldizkarian publikatuta (VIII. eranskina)

Abstract

Background: Little is known about the effects of detraining in older adults, particularly those who regularly exercise.

Aims: To determine the consequences of 3 months of cessation of a habitual supervised exercise on functional fitness and quality of life in aged adults and to explore the associations among those parameters.

Methods: Thirty-eight women and 11 men (mean age 75.5 ± 5.7 years), took part in a physical exercise program for 9 months, followed by a 3-month detraining period. Participants completed physical function tests and questionnaires regarding the quality of life and leisure-time physical activity at the end of the exercise program (baseline) and 3 months later (detraining).

Results: After the detraining period, performance in the 8 Foot Up and Go test ($p < 0.001$) and the physical and Mental Components of the quality of life ($p < 0.001$) declined. Significant correlations were observed when comparing the 8 Foot Up and Go test ($p < 0.05$), Chair Stand test ($p < 0.05$) and the 6 Minute Walk test ($p < 0.001$) to the Physical Component of the quality of life after the detraining period.

Conclusion: Three months of a detraining period in older people who habitually undertake supervised activities is enough to produce a decline in dynamic balance and

also quality of life. To avoid the deleterious effect of periods of cessation of supervised exercise, as a suggestion, specifically designed exercises could be prescribed for an older population, with emphasis on balance exercises.

Key words: Ageing, aerobic fitness, exercise, fitness, health

Laburpena

Aurrekariak: Gutxi dakigu ariketa fisikoaren etete-aldiak duen eraginaren inguruan pertsona nagusiengan, hain zuzen ere ariketa erregulartasunez burutzen dutenengan.

Helburuak: Ariketa fisiko gidatuaren hiru hilabeteko eteteak izan ditzakeen ondorioak aztertzea gaitasun funtzionalari eta bizi-kalitateari dagokionean pertsona nagusiengan eta parametro hauen arteko erlazioa aztertzea.

Metodologia: Hogeita hamazortzi emakumek eta hamaika gizonezkok (75.5 ± 5.7 urte bataz besteko adina) hartu zuten parte ariketa fisikoko programa gidatu batean 9 hilabetez, jarraian hiru hilabeteko etete-aldia eginik. Parte-hartzaleek funtzio fisikoarekin lotutako frogak, bizi-kalitatearen inguruko galdeategia eta denbora librean egiten zuten jarduera fisikoaren inguruko beste galdeegi bat egin zituzten. Neurketak ariketa fisikoko programaren bukaeran (hasierakoak) eta handik hiru hilabetera (bukaerakoak) burutu ziren.

Emaitzak: Etete-aldiaren ostean, 8 Foot Up and Go (8 FUG) testean ($p < 0.001$) eta bizi-kalitateko dimensio fisiko eta mentalean ($p < 0.001$) emaitza okerragoak ikusi ziren. Ariketa fisikoko programa eten eta hiru hilabetetara bizi-kalitateko dimensio fisikoak, 8 FUG test-arekin ($p < 0.05$), Chair Stand ($p < 0.05$) eta 6 Minute Walk test-arekin ($p < 0.001$) erlazioa zuela ikusi zen

Ondorioa: Hiru hilabeteko etete-aldia, ariketa fisiko gidatua egitera ohitura dauden hirugarren adineko pertsonen kasuan nahikoa da oreka dinamikoan eta bizi-kalitatean beherakada bat izateko.

Ariketa fisiko gidatuaren etete-aldiak ekar ditzakeen ondorio negatiboak ekiditzeko, egokia izango litzateke beraiei bideratutako ariketak diseinatzea eta aholkatzea beti ere, oreka dinamikoa lantzeko ariketetak bidaliz.

Hitz gakoak: Zahartzaroa, gaitasun aerobikoa, ariketa, gaitasun fisikoa, osasuna

Sarrera

Osasunaren alorrean fisikoki aktiboak diren eta ez diren pertsona nagusien artean desberdintasun nabariak azaltzen dira, horrek adierazten du jarduera fisikoak adinarekin datozen hainbat aldaketa negatibo indargabetu ditzakeela (Valset eta Romøren, 2006). Aldi berean, ariketa fisikoko programetan parte-hartzeak adinak dakarren funtzi fisikoaren galera eragotzi edo murriztu dezakeela egiaztatu denetik, ariketa fisikoa, pertsona nagusien osasun publikoko foroen oinarri bihurtu da (Henwood eta Taaffe, 2008). Azpimarratzeko da, ariketa fisikoko programek muskulu-masan, indarrean, funtzi fisikoan eta ongizatean dakartzan onurak ebaluatu dituzten errebisio eta meta analisi gehienek, aurretik entrenatu gabe zeuden pertsonekin burutu dituztela (Bouaziz eta lank., 2017; Cadore, Rodríguez-Mañas, Sinclair eta Izquierdo 2013;). Gainera, Netz eta lankideek (2005) egindako meta analisian adierazten dute, partaideek aldez aurretik zeukaten ariketa fisikoaren mailak egindako ariketa fisikoaren programaren ondorioak mugatzen dituela: sedentarioak ziren partaideetan onura nabarmenagoak ikusi ziren pertsona ez sedentarioen aldean (Netz, Wu, Becker eta Tenenbaum, 2005).

Hori gutxi balitz, ebidentzia sendoak daude adierazten dutenak, ariketa fisiko erregularra burutzen denean, egokitzapen psikologikoak partzialki edo guztiz desagertzen direla entrenamendu programa etetean edo nabarmen murrizterakoan (Fleck, 1994). Adaptazio itzulgarri hauei etete-aldiaren ondorioak deritze, hau da, entrenamenduak eragindako egokitzapen anatomikoen, errendimendukoien eta fisiologikoen galera, entrenamenduaren etete edo murriztearen eraginez (Mujika eta Padilla, 2000).

Etete-aldiak pertsona nagusiengan dituen eraginak ikerketa askok aztertu dituzte, ariketa fisikoaren programak abian jartzen dituzte eta gero eten egiten dituzte. Gehienek aurretiaz entrenatu gabeko egoeran dauden partaideekin burutu dituzte (Correa, Cunha, Marques, Oliveira-Reischak eta Pintor, 2016; Elliott, Sale eta Cable, 2002;). Izan ere, entrenamendu programaren batean egotea sarritan taldean ez onartzeko irizpide bat izaten da (Correa eta lank., 2016; Padilha eta lank., 2015; Van Roie eta lank., 2017; Zech eta lank., 2012).

Hirugarren adineko pertsonetan asko ikertu da etete-aldiak giharren egokitzapenean dituen eraginen inguruan, eta badirudi entrenamendua eten ondoren giharren indarra denbora luzeagoz mantentzen dela giharren hipertrofiarekin alderatuz (Häkkinen, Alen, Kalinen, Newton, Kraemer, 2000; Henwood eta Taaffe, 2008; Van Roie eta lank., 2017), horrek adierazten du adaptazioak neurri handi batean independenteak direla eta adaptazio neuralek garrantzi handia dutela indarra irabazteko unean (Buckner eta lank., 2016).

Alabaina, datu gutxi dago eskuragarri etete-aldiak funtzionaltasunean duen eraginaren inguruan eta gainera emaitza kontrajarriak adierazi dituzte, non zenbait autoreek ezin izan dute adierazi ariketa fisikoaren programetan irabazitako funtzi fisiko mailaren mantentzea (Texeira-Salmela eta lank., 2005; Zech eta lank., 2012), beste batzuek, ostera, entrenamenduan lortutako hobekuntzen mantentzea adierazi dute (Häkkinen eta lank., 2000; Van Roie eta lank., 2017). Antzeko emaitzak antzeman dira etete-aldiak pertsona nagusien bizi-kalitatean duen eraginaren inguruan. Zenbait autorek ez dute inolako aldaketarik susmatu pertsona nagusien bizi-kalitatean 3 hilabeteko etetearen ostean (Ansai eta Rebellatto, 2015; Lobo, Carvalho, Santos, 2010;), beste autore batzuek, ordea, denbora tarte berberean galera nabarmenak adierazi dituztelarik (Tomas-Carus eta lank., 2007).

Munduko Osasun Erakundeak (MOE) zahartze aktibo eta osasuntsuagoa izateko sustatzen dituen aholku eta irizpideak jarraituz, gero eta gehiago dira egunerokoan jarduera fisikoa egiten duten pertsona nagusiak, bai beraien kabuz edo bai zuzendutako taldeetan. Programa horietan ohikoa izaten da 2-3 hilabeteko etete-aldia egotea uda heltzean, horrek partaideen ariketa fisikoko jardueretan aldaketa saihestezina ekarriz.

Kontuan izanik etete-aldiaren eraginaren inguruko ebidentziak urriak direla, garrantzitsua da jakitea ariketa fisikoko programaren eteteak aldagai fisikoetan edo bizi-kalitatean ondorioak dituen eta era berean, pertsona nagusietan ondorio horiei aurre egiteko estrategiak ezagutzea. Gainera, garrantzitsua da adieraztea, nahiz eta azken urteotan ariketa fisikoaren etete-aldiak pertsona nagusi ez entrenatuetan duen eraginaren inguruko ikerketa kopuruak gora egin, ikerketa gutxi edo ez ia bat ere ez dagoela,

entrenaturekin eginda.

Literaturan dagoen hutsune hori betetzeko, ikerketa honek etete-aldiak egunerokoan ariketa fisikoa egiten duten pertsona nagusiengan dituen eraginak aztertzen ditu; hain zuzen ere, etete-aldiak funtzió fisikoan eta bizi-kalitatean dituen eraginak zehaztea helburu izanik eta jarraian aldagai horien arteko loturak aztertzea.

Metodoak

Ikerketa diseinua eta errekrutamendua

Ikerketa longitudinal bat diseinatu zen. Partaideak Fadura Polikiroldegitik hartu ziren, Getxon (Bizkaia, Euskal Herria) dagoen kirol zentro horrek, pertsona nagusientzako ariketa fisiko gidatua taldean eskaintzen du, komunitateko 65 urtetik gorako gizabanakoentzako. Programa urrian hasten da eta ekainera arte irauten du eta uda sasoian 3 hilabekoa geldialdi egituratua egiten dute. Parte-hartzaile guztiak kirol zentroan ikerketa taldeak egindako bileran jaso zuten ikerketaren inguruko informazio guztia. Helburuak, neurtzeko aldagaiak eta beste zehaztasun guztiak ahoz eta idatziz azaldu zitzazkien. Prozedura guztiak jakin ondoren eta beti ere ikerketari hasiera eman aurretik partaideek beraien baimen informatua sinatu zuten. Ikerketa Euskal Herriko unibertsitateko etika batzordeak onartu zuen (M10-2015-204). Protokoloa entsegu kliniko bezala erregistratu zen ANZCTR (ID: ACTRN12617000716369).

Partaideak aurreko 9 hilabeteetan zehar goian aipatutako ariketa fisikoko programan parte hartu bazuten hautagaitzat hartu ziren. Komorbilitate eta demografia (Charlson, Pompei, Ales, McKenzie, 1987) datuak eta neurketak programa bukatu bezain laster, (hasierako neurketak) eta 3 hilabetera, (bukaerako neurketak), jaso ziren. Etete-aldean zehar, beraien egunerokoa mantentzeko eta bestelako jarduera gidatuetan parte ez hartzeko esku zitzaien partaideei.

Neurketa antropometrikoak

Altuera eta gorputz masa instrumentu eramangarriekin neurtu ziren (Seca Model 869). Ondoren, partaideen gorputz masa (Kg) eta altuera (cm) kontutan hartuta, bakoitzaren Gorputz-Masa Indizea (GMI, kg/m²) kalkulatu zen. Gerriko eta aldakako perimetroak ere

neurtu ziren eta honekin gerri-aldaka ratioa kalkulatu zen. International Society for the Advancement of Kinanthropometry-ren irizpideak jarraituz, pertsona bakar batek hartu zituen neurketa guztiak (Marfell-Jones, Stewart eta Ridder, 2012).

Goiko eta beheko gorputz-adarraren indarra

Arm Curl testa (Rikli eta Jones, 1999) goiko gorputz-adar menderatzailearen indarra neurtzeko erabili zen. Testa burutzeko partaidea, eserita zegoen eta 30 segundotan egin zitzakeen errepikapen gehienak neurtu ziren. Froga honetan emakumeek 2.27 kg-ko pisua jaso behar izan zuten, gizonezkoek ostera 3.63 kg-koa. Ukondoaren flexio kopuru totala jaso zen.

Beheko gorputz-adarraren indarra neurtzeko Chair Stand testa (Rikli eta Jones, 1999) erabili zen, test honen bitartez, parte-hartzaileak 30 segundotan, aulki batetik zenbat aldiz altxatu eta esertzeko gai ziren frogatzen da. Besoak bularraldean gurutzatuta izan beharko dira eta eskuak sorbaldetara helduta. Partaide bakoitza zenbat alditan zutitzeko gai den jaso zen.

Oreka dinamikoa

Oreka dinamikoa 8 Foot Up and Go (8 FUG) testarekin (Rikli eta Jones, 1999) neurtu zen. Partaidea eserita zegoela, eskuak belaunen gainean eta oinak lurrean zituela emango zitzaison testari hasiera. Froga horretan, eserlekutik altxatu eta 2,45m-ra jarri zen konora ahalik eta bizkorren joan, buelta eman eta berriz aulkian eseri behar zuten, hau guzti ahalik eta bizkorren eginik. Testa burutzeko behar izan zuten denbora hartzan kontuan hartzan.

Gaitasun aerobikoa

Gaitasun aerobikoa neurtzeko 6 Minute Walk testa (6MWT) erabili zen. Froga horretan, partaideei 6 minututan eta 45,7m-ko laukizuzen formako zirkuitu batetan ahal zuten distantzia luzeena (metrotan) ibiltzeko eskatu zitzaien (Rikli eta Jones, 1998)

Denbora librean burutzen zuten jarduera fisikoaren balorazioa

Ariketa fisikoa Minnesota Leisure-Time Physical Activity Questionnaire (Taylor eta lank.,

1978) bertsio laburtuarekin neurtu zitzaien, gaztelaniaz balioztatuta dagoenarekin (Ruiz-Comellas eta lank., 2012). Ikertzaile berak pasatu zituen galdegeiak, aurretik instrukzio argiak eta jarduera fisikoaren zerrenda zehatz bat jaso zuen. Partaideei aurreko astean edo ohiko aste batean egindako jarduera fisikoaren ezaugarrien, maiztasunaren, eta iraupenaren inguruan galdetu zitzaien eta horrela beraien denbora libreko jarduera fisikoaren energia gastu totala atera zen Metabolic Equivalent of Task (MET) minutu eguneko ($\text{MET} \cdot \text{min.eguneko}^{-1}$) Ainsworth eta lank.-ek dioten bezala (Ainsworth eta lank., 2011). Ondoren, parte-hartzaileen jarduera fisikoa kontuan izanik eta aste batean egindako MET kopurua kontutan hartuta, partaideak hiru talde ezberdinan sailkatu ziren (Ruiz-Comellas eta lank., 2012): Partaide oso aktiboak, asteko 2500 MET-min baino gastu handiagoa zutenak, partaide aktiboak, asteko 2500 eta 1500 bitarteko MET-min zutenak eta partaide moderatu/sendentarioak, asteko 1500 Met-min baino gutxiago zutenak.

Bizi-kalitatea

Bizi-kalitatea 36 item dituen Short-Form Health Survey (SF-36) gaztelaniazko galdegeiarekin ebaluatu zitzaien (Vilagut eta lank., 2005). Galdegeiaren dimensioak kontuan harturik, bi dimensio nagusi azter ditzakegu, dimensio fisikoa (DF) eta dimensio mentala (DM). DF: funtzio fisikoa, rol fisikoa, gorputzko mina eta osasun orokorra dimensioez dago osatuta, DM ordea bizitasuna, giza funtzioa, rol emozional eta osasun mentalaz. Dimensio bakoitzaren puntuak 0 eta 400 puntu bitartean egon daitezke. Azkenik, DF eta DM baloreak gehituz, 0 eta 800 puntu bitarteko puntuazio totala eskuratzen da (Quintal eta lank., 2017).

Ariketa fisikoko programa taldean gidatua

Programa polikiroldegi publikoan eraman zuten aurrera astean bi aldiz. Parte-hartzaileak 10-15 pertsonako taldeetan hartu zuten parte eta saio guztiak kirol-profesional berak gainbegiratzen zituen saioaren nondik norakoa, intentsitatea eta teknika kontrolatzeko.

Saioek 50 minutuko iraupena zuten, 10 minutuko beroketarekin hasten ziren (musikaren erritmoan zebiltzan bitartean gorputzaren goi-adarreko ariketak, begiralearen argibideekin koordinazio ariketa simpleak, etab.). Ondoren, parte-hartzaileek binaka

jarrita eta pilota bigun batekin 10 minutuko erraketa partida bat jokatzen zuten eta gorputz-adar menperatzaile zein ez-menperatzailearekin jokatzena animatzen zituen begiraleak. Gero (20 minutu), muskulu multzo nagusien eta zoru lunbo-pelbiko-ko giharren indarra eta erreakzio abiadura lantzen zituzten, kanpoko elementu eta pisuak erabiliz. Horretaz gain, oreka dinamiko eta estatikoa lantzeko ariketa konplexuagoak ere egin zituzten. Saioak 10 minutuko, lasaitasunera bueltatzeko tarte batekin bukatzen ziren, zati horretan arnasketak, luzaketak eta erlaxazio ariketak burutzen zituztelarik.

Analisi estatistikoa

Berrogeita hamar parte-hartzale lagin tamaina egokitzat harturik kalkulatu zen %90eko gaitasuna adierazteko gihar muskularrean gertatzen den aldaketa ikusteko, beste ikerketetan aurkitutako magnitudeak kontuan izanik (Doner eta lank., 2013; Haider eta lank., 2017). Datuak IBM Social Sciences (SPSS 21. Bertsioa) pakete estatistikoarekin aztertu ziren.

Datuen normaltasuna Kolmogorov-Smirnov testa erabiliz aztertu zen. Aldagai jarraituak bataz besteko eta desbideratze estandarraren bitartez adierazi ziren eta taldeen artean konparaketa egiteko Wilcoxon testa edo t-student testa egin ziren. Aldagai kualitatiboak maiztasun eta portzentajeetan adierazi ziren eta taldeen artean Chi-squared goodness fit testarekin egin ziren. Hasierako eta bukaerako neurketen artean, aldagai kualitatibo bakoitzaren aldaketaren ehunekoa kalkulatu zen, ondorengo formula erabiliz (bukaera-hasiera/hasiera)*100.

Hasierako eta bukaerako neurketen arteko aldaketak neurtu ziren eta baita %95-eko konfiantza tarteak. Azkenik, Pearson o Spearman testak erabiliz korrelazioak egin ziren parametro desberdinaren arteko erlazioa aztertzeko (gaitasun fisikoa, funtzió fisikoa eta bizi-kalitatea). Adierazgarritasun estatistikoa $p < 0,05$ -ean ezarririk.

Emaitzak

Hirurogeita sei pertsona nagusik betetzen zituzten parte-hartzeko irizpideak eta hautatze-fasearekin hasteko harremanetan jarri ginen beraiekin, horietatik bederatzik ez zuten parte hartz nahi izan, beraz, 57 parte-hartzale izan ziren ikerketako errekrutatuak eta

horiek hasierako neurketak burutu zituzten. Ikerketa 8 pertsonek utzi egin zuten, ikerketa, horrela guztira 49 partaide izanik gure analisian.

Hasierako ezaugarriak

Hasierako ezaugarriak 1. Taulan adierazten dira. Ikerketan parte hartu zuten parte-hartzaileak bataz beste $75,5 \pm 5,7$ urte zituzten, 65 eta 90 urte bitartean. Partaideen % 77,6-a emakumezkoak izan ziren. Emakumezkoen bataz besteko gorputz-masa indizea (GMI) $28,8 \pm 4,5$ koa izan zen eta gizonetakoena $26,8 \pm 2,9$. Gerri-aldaka indizea $0,89 \pm 0,06$ koa izan zen emakumezkoetan eta $0,96 \pm 0,05$ gizonetakoetan. Parte-hartzaileek ariketa fisikoko programa berean bataz beste $12,1 \pm 8,7$ urte zeramatzen. Horietatik % 61,2k Charlson-en komorbilitate indizean 0 eman zuten.

1.Taula. Partaideen hasierako ezaugarriak

| | Partaideak (n = 49) |
|--|---------------------|
| Adina (urteak) | $75,5 \pm 5,7$ |
| Emakumezkoak (%) | 77,6 |
| Gizonetakoak (%) | 22,4 |
| GMI | $28,4 \pm 4,5$ |
| GAI | $0,9 \pm 0,06$ |
| Ariketa fisikoko programa urte kopurua | $12,1 \pm 8,7$ |
| Charlson Komorbilitate indizea | |
| 0 | 61,2 |
| 1-2 | 30,6 |
| 3-4 | 8,2 |
| ≥ 5 | 0 |

Laburdurak: GMI; Gorputz-Masai Indizea; GAI, Gerri-Aldaka Indizea.

Data, bataz bestekoan eta desbideratze estandarrean eta ehunekoetan (%) definitzen da.

Etete-aldiaren eragina

Funtzio fisikoan

Emaitzek beherakada estatistikoki adierazgarria adierazi zuten 8 FUG testean ($p < 0,001$), beheko eta goiko gorputz-adarreko indarra eta gaitasun aerobikoa etete-aldian zehar mantendu egin zirelarik (2. Taula).

2.Taula. Etete-aldiaren eragina funtzi fisikoan, jarduera fisikoan eta bizi-kalitatean.

| | Hasieran BB±DE | Bukaeran BB±DE | p-balorea | % aldaketa | BB aldaketa | %95KI |
|--|-------------------|-------------------|-----------|--------------|-------------|---------------|
| Chair Stand (errep) | 15,7 ± 2,7 | 15,5 ± 2,9 | 0,583 | -0,4 ± 14,7 | -0,18 | -0,8 – 0,4 |
| Arm Curl (errep) | 17,0 ± 2,5 | 17,3 ± 2,7 | 0,339 | 3,1 ± 16,5 | 0,34 | -0,3 – 1,0 |
| 8 Foot Up and Go (s) | 5,2 ± 0,8 | 5,4 ± 0,8 | ≤ 0,001 | 5,8 ± 10,8 | 0,36 | 0,1 – 0,4 |
| 6MWT (m) | 523,7 ± 53,6 | 528,1 ± 57,1 | 0,415 | 1,0 ± 7,1 | 9,14 | -6,3 – 15,1 |
| MET totalak (eguneko min ⁻¹) | 403,5 ± 141,4 | 379,3 ± 211,9 | 0,336 | -4,9 ± 44,6 | -24,2 | -77,4 – 29,1 |
| BK: | | | | | | |
| Puntuazioa totala | 681,0 ± 77,8 | 609,3 ± 112,6 | < 0,001 | -10,4 ± 14,6 | -71,6 | -97,6 - -45,6 |
| DF | 340,1 ± 39,8 | 305,4 ± 55,9 | < 0,001 | -9,9 ± 15,2 | -34,6 | -49,1 - -20,2 |
| DM | 340,8 ± 54,0 | 303,8 ± 74,3 | < 0,001 | -10,7 ± 19,8 | -37,0 | -53,7 - -20,2 |

Laburdurak: BB; bataz bestekoa; DE, desbideratze estandarra; KI, konfiantza interbalooak; errep, errepikapen kopurua; 6MWT, 6 Minute Walk test; MET Metabolic Equivalent of Task; BK, Bizi-Kalitatea; DF, Dimentsio Fisikoa; DM, Dimentzio Mentala

Oharrak: p-balorea (Hasieratik eta Bukaerara konparaketa).

Denbora libreko jarduera fisikoaren galdeategia

Etete-aldian zehar burututako jarduera fisikoa, hasierako neurketetako baino baxuagoa izan zen, nahiz eta ez zen adierazgaritasun estatistikorik lortu (2. Taula). Etete-aldian partaideek egiten zuten jarduera fisikoaren araberako sailkapena kontuan izanik, ostera, etete-aldiaren ondoren aldaketa estatistikoki esanguratsuak lortu ziren, bizi estilo sedentarioagoa izanik ($p < 0,001$) (3. Taula)

3. Taula. Partaideen distribuzioan ariketa fisiko maila kontutan harturik etete-aldiak dituen efektuak.

| | Hasieran | Bukaeran |
|-----------------------|----------|----------|
| Oso aktiboak | 55,1% | 42,9% |
| Aktiboak | 40,8% | 38,8% |
| Moderatu/sedentarioak | 4,1% | 18,3% |

Oharrak: p –balorea; χ^2 goodness of fit is $p < 0.001$.

Bizi-kalitatea

Etete-aldiaren, 3 hilabeteren ostean emaitza totalean desberdintasun estatistikoki esanguratsuak antzeman genituen ($p < 0,001$). Emaitza horrek %10,4-ko jaitsiera suposatu zuen. Bizi-kalitatearen beherakada, dimensio fisiko zein mentalean eman zen ($p < 0,001$) (2. Taula).

Funtzio fisikoaren eta bizi-kalitatearen arteko erlazioa

Korrelazio esanguratsuak ikusi ziren etete-aldiaren ostean Chair Stand, 8 FUG eta 6 MWT eta dimensio fisikoarekin. Proba horien aldaketa portzentajea ere DF-arekin erlazionatu zen (4. Taula).

4.Taula. Funtzio fisikoa, jarduera fisikoa eta bizi-kalitatearen arteko korrelazio koefizienteak.

| | Hasieran | | | Bukaeran | | | % aldaketa | | |
|---------------------------------------|----------|--------|--------|----------|--------|--------|------------|--------|--------|
| | DF | DM | Totala | DF | DM | Totala | DF | DM | Totala |
| Chair Stand | 0,197 | 0,014 | 0,176 | 0,306* | 0,221 | 0,308* | 0,377** | 0,055 | 0,238 |
| Arm Curl | 0,094 | -0,010 | 0,030 | 0,142 | 0,168 | 0,136 | 0,248 | 0,107 | 0,203 |
| 8 Foot Up and Go | -0,118 | -0,065 | -0,078 | -0,342* | -0,195 | -0,250 | -0,399** | -0,700 | -0,249 |
| 6 MWT | 0,209 | 0,017 | 0,123 | 0,371** | 0,219 | 0,279 | 0,407** | 0,220 | 0,356* |
| MET totala (min. Egun ⁻¹) | -0,148 | 0,129 | -0,027 | 0,100 | 0,130 | 0,155 | 0,126 | 0,050 | 0,105 |

Laburdurak: DF, Dimentsio Fisikoa; DM, Dimentzio Mentala; 6MWT, 6 Minute Walk test; MET, Metabolic Equivalent of Task; % ehunekoa.

Oharrak: * p <0,05, ** p <0,01

Eztabaidea

Ikerketa honen aurkikuntza nagusi eta berriena honako hau da: pertsona nagusietan ariketa fisikoa erregulartasunez egitera ohitura daudenetan etete-aldiak eragin negatiboak dituela oreka dinamikoari eta bizi-kalitateari dagokionean. Etete-aldiak aldaketak txikiak sortzen ditu beheko gorputz-adarreko indarrean eta gaitasun aerobikoan hauek estatistikoki adierazgarriak izan gabe, ostera aldaketa hauek parte-hartzaleek sumatu zitzuten, bizi-kalitateko dimentsio fisikoan beherakada esanguratsuarekin.

Ez da sakonki aztertu etete-aldiak nola eragin dezakeen oreka dinamikoaren gaitasunean pertsona nagusietan. Carvalho eta lankideek (2009) entrenamenduaren eragina eta etete-aldiaren ondorioak aztertu zitzuten funtzio fisikoan, programa multikonponentea burutu ostean, emakumezko nagusietan. Oreka dinamikoan etete-aldiak eragin gutxiago zuela ikusi zuten beheko gorputz-adarreko indarrarekin alderatuta (Carvalho eta lank., 2009). Ikerketa honetako datuak bat datozen Coettse eta Terblanche-k (2015), adierazten dutenarekin, pertsona nagusi sedentarioetan 16 asteko erresistentzia entrenamenduaren ostean eta antzerako etete-aldiaren eragina funtzio fisikoan. Autore horiek ikusi zuten orekan lortutako hobekuntza guztiak hasierako puntura bueltatzen zirela, nahiz eta beheko gorputz-adarreko indarrean ez zuten aldaketarik (Coetsee eta Terblanche, 2015).

Aurkikuntza horrek, ondorengo hipotesia bermatu dezake: oreka dinamikoaren errendimenduan ez duela soilik beheko gorputz-adarreko indarrak eragiten baita ere, koordinazioak, oreka gaitasunak, erreakzio denborak, ikusmenak, funtzio kognitiboak eta osasun egoera orokorrak ere (Kwan, Lin, Chen, Closa eta Lord, 2011). Bestalde, oreka dinamikoa eta trebetasuna lantzeko beharrezkoak dira ariketa zehatzak, ondo diseinatutakoak eta progresiboak, ahaztu gabe erregulartasunez praktikatu behar direla (Sherrington, Tiedemann, Fairhall, Closa eta Lord, 2011).

Beraz, esan dezakegu parte-hartzaleek etete-aldian zehar egindako jarduera fisikoa ez zela nahikoa izan ariketa fisikoko programan lortutako oreka gaitasuna mantentzeko, hortaz, ikerketa gehiago egitea aholkatzen da gai hau sakontasunez aztertzeko.

Ikerketa honetako emaitzak bat datozen beste ikerketa batzuekin, non esaten duten beheko gorputz-adarraren indarra etete-aldi labur baten ostean mantentzen dela emakume nagusietan (Nascimineto eta lank., 2014; Padilha eta lank., 2015; Yasuda, Fukumura eta Nakijama, 2015). Beste ikerketa batzuetako emaitzek, aldiz, beherakada esanguratsuak adierazi dituzte muskulu indarrean etete-aldi antzekoaren ostean (Coetsee eta Terblanche, 2015; Delshad, Ghanbarian, Meharbi, Sarvghadi eta Ebrahim, 2013). Desadostasun horren arrazoietako bat izan liteke indarraren moldaketak faktore desberdinak eraginda egon litezkeela Correa eta lankideek adierazi zuten moduan, adina, sexua, gorputzaren osaketa, partaideen maila, programan eta etete-aldiaren ezaugarriak eta iraupena (adibidez, iraupena, intentsitatea, programaren zehar burutzen dituzten ariketak eta intentsitatea, etete-aldian burutzen duten jarduera fisikoaren intentsitatea) (Correa eta lank., 2013).

Etete-aldiaren ondorioak pertsona nagusietan aztertu dituzten beste ikerketa batzuetan ikusitakoarekin bat etorri (Bruseghini eta lank., 2015; Ratel eta lank., 2012), gure emaitzek ere beherakada ez esanguratsu bat adierazi zuten gaitasun aerobikoan etetearen ostean. VO₂-a, jardueran zehar oxigenoa neurtzeko erabili den neurria da, hori, 16 asteko etetearen ostean egonkor mantendu zen Bruseghini eta lankideenean (2015) (Bruseghini eta lank., 2015) eta 8 asteko etetearen ostean baita ere Ratel eta lankideen (2012) kasuan ere (Ratel eta lank., 2012). Hala eta guztiz, gure ikerketako datuak beste ikerketa batzuetakoekin erkatuz desberdinak dira, horietan autore batzuek ikusi dute etete-aldian zehar gaitasun aerobikoaren beherakada ematen dela (Bocalini, Serra, Rica eta Dos Santos, 2010; Toraman, 2005). Bocalini eta lankideen (2010) ikerketan eta Toramanerenean (2005) gaitasun aerobikoa entrenamendua hasi baino balore altuagoetan mantendu zen 6 asteko etetearen ostean (Bocalini eta lank., 2010; Toraman, 2005). Emaitza kontrajarri horien azalpenetako bat izan liteke parte-hartzaileek etete-aldian zehar burututako jarduera fisikoaren kantitatea eta mota, baina zoritzarrez ikerketa batek ere ez zuen hau aztertu. Izan liteke gaitasun aerobikoa ez egotea larri kaltetua etete-aldi labur batean bizi estilo aktibo bat eramatearekin. Izan ere, ikerketa honetako parte-hartzaileek denbora libreko jarduera fisikoaren inguruan emaitza antzekoak adierazi zitzuzten hasieran eta bukaeran, nahiz eta bukaeran bizi estilo

sedentarioagoa adierazi zuten. Indarrari eta oreka dinamikoari dagokionean, parte-hartzaileen heterogeneotasuna, entrenamendu eta etete-aldien protokoloen desberdintasunak izan litezke ikerketa desberdinetan lortutako emaitzen azalpena.

Gainera, etete-aldiak funtzi fisikoan duen eraginaren inguruan asko ikertu bada ere, arreta gutxiago jarri da bizi-kalitatean ematen diren aldaketak aztertzera. Lobo eta lankideek (2010), 3 hilabeteko etetearen ostean funtzi fisikoko frogetan beherakada adierazi zuten, baina ez ziren gai izan bizi-kalitatean inolako aldaketarik adierazteko (Lobo eta lank., 2010). Ordea, Bocalini eta lankideek (2010) ordea, 6 asteko geldialdiaren ostean funtzi fisikoan beherakada antzeman zuten (gorputz indar, abilezia eta oreka estatiko gutxiago) eta baita bizi-kalitatean ere (Bocalini eta lank., 2010). Era berdintsuan, ikerketa honetako parte-hartzaileek beherakada garrantzitsua adierazi zuten SF-36 galdelegiaren dimensio fisiko eta mentalean etete-aldiaren ostean

Bestalde, dimensio fisikoko beherakada oreka dinamikoaren beherakada adierazgarriarekin erlazionatzen zela behatu genuen, baina baita ere beheko gorputz-adarreko indarraren beherakada txikiarekin eta gaitasun aerobikoarenarekin ere. Beraz, ikerketa honetako partaideek beraien funtzi fisikoan beherakada sentitu zuten egindako froga fisikoentz bitartez antzeman ezinezkoa, beheko gorputz-adarreko indarrean eta gaitasun aerobikoan hain zuzen. Izan liteke, ematen diren aldaketak bizi-kalitatean funtzi fisikoan baino lehenago antzematea funtzi fisikoan baino, agian etete-aldi luzeago batek eragin horiek hobeto ulertzten lagunduko luke.

Aurretiaz sarreran aipatu den bezala, azpimarratu behar da, etete-aldia pertsona nagusietan aztertu duten ikerketak ariketa fisikoko programa baten ezarpena aztertu dutela lehenengo eta ondoren gelditu egin dutela eta gainera pertsona ez entrenatuekin, Bruseghini eta lankideek (2015) izan ezik, hauek pertsona nagusi aktibo osasuntsuekin egin baitzuten(Bruseghini eta lank., 2015).

Ondorioz, lehendabiziko ikerketa da ariketa fisiko gidatua egitera ohitura dauden pertsona nagusietan etete-aldiak nola eragiten duen adierazten duena. Ikerketa gehigarri gehiago bideratu beharko lirateke ariketa fisiko erregular sistematikoaren etete laburraren egokitzapenak azterzera. Izan ere, gero eta pertsona nagusi gehiagok hartzen

dute parte ariketa fisikoko programetan erregulartasunez eta mota horretako programak udan etetea ohikoa da. Horiek horrela, garrantzitsua da etete-aldiaren eraginak ezagutzea populazio zehatz horretan, bidenabar eteteak ekar ditzakeen ondorio negatiboak ekiditeko estrategiak garatu ahal izateko.

Ikerketa honek muga batzuk ditu. Hasteko, talde kontrol ez entrenatua falta du, era horretan posible izango litzateke zahartzaroaren ondorioak aztertzea eta 3 hilabeteko eteteak bizi-kalitatean eta oreka dinamikoan beherakada eragiten duen zehatzuz. Autore batzuek ,ordea, (Bocalini eta lank., 2010; Carvalho eta lank., 2009; Lobo eta lank., 2010;) ez zuten beherakadarik antzeman pertsona nagusi sedentarioetan aldagai hauetan 3 hilabeteko etetean, iraupen berdinoko ondorioak pertsona nagusi entrenatuetan oraindik ez dira argitu. Parte-hartzaile kopuru baxuak eta neurtu gabeko beste faktore batzuek gure ondorioen orokortzea mugatu dezakete. Hala ere, etete-aldean zehar burutzen den jarduera fisikoa neurten duen lehenengo ikerketa da, nahiz eta jarduera fisikoaren maila autoinformatua izan zen, beraz pertzepzio desegoki batek eraginda egon liteke, adibidez, disfuntzio kognitiboak, komunikazio gaitasunean narriadura adinaren zahartzearekin lotuta datorrelako, pertsona nagusi osasuntsu eta horrek entrenatuen ariketa fisikoko etete-aldean gertatzen diren adaptazioen ulermenaren erraztu dezake.

Ondorioak

Hiru hilabeteko eteteak ariketa fisikoa egitera ohitura dauden pertsona nagusietan oreka dinamikoan eta bizi-kalitatean beherakada adierazgarria eragiten du. Ariketa fisiko gidatuen etete-aldeien ondorioak ekidin aldera, iradokizun bezala, ariketa gidatua egitera ohitura dauden pertsona nagusiei beraientzako diseinatutako ariketa zehatzak eman ahalko litzaizkieke, orekako ariketetan hanpadura jarriz.

Orekaren beherakada eta behe ataleko indarren eta gaitasun aerobikoaren aldaketak bizi-kalitateko dimentsio fisikoarekin erlazionatu ziren. Agian beraiek bizi-kalitatean funtzio fisikoan baino lehenago sentitu zituzten aldaketak, hortaz, etete-aldi luzeagoko ikerketa gehiago behar dira, horiek lagunduko bailukete eragin horren inguruan ezagutza gehiago izaten.

3. KAPITULUA

***Ariketa fisikoaren etetea pertsona aktibo nagusiengan:
hanturazko markatzaileen eta adiponektinaren eragina***

5.3 3. Kapitulua

Detraining in active older adults: Effect on inflammatory markers and adiponectin

Ariketa fisikoaren etetea pertsona aktibo nagusiengan: hanturazko markatzaileen eta adiponektinaren eragina

Clinical Interventions in Aging aldizkarira bidalita (IX. eranskina)

Abstract

Chronic inflammation, which is associated with aging, negatively impacts health and is a strong predictor of disability and mortality. However, regular physical activity can decrease chronic inflammation. Adiponectin, a protein hormone involved in energy homeostasis, has anti-inflammatory effects and a reported relationship with physical activity, although the nature of this relationship remains inconclusive.

Evaluated the effects of 3 months of detraining in physically active elderly individuals on inflammatory biomarkers and adiponectin and examined any association modifications in physical functioning.

This article presents the results of a secondary analysis. We evaluated the effects of exercise detraining in 49 physically active elderly adults on inflammatory biomarkers, adiponectin, and physical functioning. Participants (38 women, 11 men) were >65 years old and had attended a 9-month supervised exercise program. After 3 months of detraining, we measured anthropometry, physical activity, strength, balance, aerobic resistance, cholesterol, triglycerides, C-reactive protein, glucose, glycosylated hemoglobin A1c, interleukin-6, and adiponectin levels.

Adiponectin was positively correlated with high-density lipoprotein and negatively correlated with triglyceride levels after detraining. Increased adiponectin levels were correlated with worse dynamic balance, aerobic resistance, and lower limb strength (men only), which may be explained by the adiponectin resistance hypothesis.

Adiponectin therefore may be a promising biomarker of physical dysfunction in the elderly, although further research is necessary to understand the mechanisms involved in its double-sided effects.

Key words: aging, functional fitness, detraining, inflammation, adiponectin

Laburpena

Hantura kronikoa zahartzaroarekin erlazionatzen da eta eragin negatiboa dauka osasunean; horrez gain ezgaitasunaren eta heriotzaren indikatzaile sendoa da. Alabaina, ariketa fisikoa erregulartasunez egiteak hantura kronikoaren gutxitzean eragin dezake. Adiponektina, homeostasi enegertikoan implikatuta dagoen proteina hormona da eta eragin antiinflamatorioak ditu, nahiz eta oraindik ariketa fisikoarekin daukan erlazioa guztiz argi egon ez arren.

Ikerketa honen helburua hiru hilabetetako ariketa fisikoaren eteteak pertsona nagusi aktiboen hanturazko biomarkatzaleetan eta adiponektinan zuen eragina aztertzea izan zen eta baita hauek funtzio fisikoarekin inolako erlaziorik zuten aztertzea ere. Ikerketan, 65 urtetik gorako 49 pertsonek parte hartu zuten (38 emakumezko, 11 gizonetzko). Guztiak hartu zuten parte ariketa fisiko gidatuko programa batean 9 hilabetez. Programa horren bukaeran eta hiru hilabeteko etetearen ostean ondorengo neurketak egin ziren: antropometria, Leisure Time Physical Activity galdetegia, oreka dinamikoa, goiko eta beheko gorputz-adarraren indarra, erresistentzia aerobikoa eta odol biomarkatzaleak (colesteroloa, trigliceridoak, proteina C-erreaktiboa, glukosa, hemoglobin glikosilada A1c, interleukina-6 eta adiponektina).

Ariketa fisikoaren etete-aldiaren ostean dentsitate handiko lipoproteina (HDL) gehitu egin zen. Gizonetakoek etete-aldiaren ostean adiponektina kantitate baxuagoa zuten emakumezkoekin alderatuz. Korrelazioak aztertzerakoan, adiponektinak HDL-arekin erlazio positiboa eta trigliceridoekin aldiz erlazio negatiboa zuela ikusi zen. Ariketa fisiko gidatuaren etete-aldiaren ostean emakumezkoen kasuan adiponektina mantendu egin zen, gizonetako gehienak ostera, beherakada izan zuen. Ariketa fisiko gidatua eten eta hiru hilabete pasatu ostean, odolean aurkitu ziren adiponektina maila altuak errendimendu fisiko baxuarekin erlazionatu ziren, zehazki, oreka dinamikoarekin, erresistentzia aerobikoarekin eta gizonen kasuan soilik beheko gorputz-adarreko indarrarekin, hau adiponektinaren erresistentziaren hipotesiaren bitarteaz azal daiteke. Bestetik, adiponektina biomarkatzale egoki bezala iradoki daiteke pertsona nagusien disfuntzio fisikoa antzemateko.

3. Kapitulu

Ikerketa gehiago beharrezkoak dira adiponektinak dituen bi aldeen ondorioetan inplikatuta dauden mekanismoak ulertzeko, osasunean, gaixotasunean eta zahartze prozesuan.

Hitz gakoak: zahartzaroa, gaitasun funtzionala, ariketa fisikoaren etetea, hantura, adiponektina

Sarrera

Zahartzaroa prozesu hilkorra, jarraitua, intrintsekoa eta unibertsala da eta aldaketa funtzionalei, psikologikoei, biologikoei eta sozialei eragiten die denboran zehar (Del Pozo-Cruz eta lank., 2013). Adinaren ezaugarri nabarmenenak sindrome metabolikoa, sarkopenia, fragilitatea, funtzionabilitate galera eta hantura dira (Tsai eta lank., 2013). Hantura denbora luzez izateak ondorio kaltegarriak dakartza osasunean eta gizabanakoek gaixotasun kroniko batzuk izateko joeran (Kritchevsky, Cesari eta Pahor, 2005), desgaitasun eta hilkortasunaren iragarlea izanik (Nikseresht, Sadeghifard, Agha-Alinejad eta Ebrahim, 2014).

Pertsona nagusiek zitokina proinflamatorioaren kontzentrazio maila handiagoa dute adin ertainekoekin eta gazteekin alderatuz (Ferruci eta lank., 2005; Roubenoff, 2003). Gaur egungo farmakoek hantura akutua murriztu dezakete, baina hantura kronikorako tratamendua mugatua da oraindik. Hori dela eta, tratamendu ez farmakologikoak behar dira (Beavers eta lank., 2010). Jarduera fisiko erregularrak hantura kronikoa muskulu eskeletikoan eta gantzan murrizten ditu (Nikseresht, Agha-Alinejad, Azarbajani eta Ebrahim, 2014). Halaber, eragin onuragarria dauka sindrome metabolikoarekin erlazionatutako biomarkatzaleetan ere, esate baterako, kolesterolean, dentsitate altuko lipoproteinetan (HDL), dentsitate baxuko lipoproteinetan (LDL), trigliceridoetan, glukosan, eta hemoglobina glikosilatuan (Castaneda eta lank., 2002; Nikseresht, Hafezi-Ahmadi eta Hedayati, 2016). Bestalde, interleukina-6 (IL-6) eta proteina C-errektiboa (PCR) gaixotasunekin, hanturarekin eta heriotzarekin erlazionatuta dauden parametroak dira (Beavers eta lank., 2010; Franceschi eta Campisi, 2014; Nicklas eta lank., 2008), eta hauek ariketaren bitartez moldatuak izan daitezke (Nicklas eta lank., 2008), hain zuzen ere, jarduera fisikoak IL-6-aren eta PCR-aren odoleko maila jaitsi egiten du heldu osasuntsuengan (Hammer eta Steptoe, 2008) eta baita patologiak dituzten helduetan ere, adibidez gaixotasun arterial periferiko gaixotasuna (Craft eta lank., 2008).

Adiponektina oraintsu gaixotasun biofisiologikoen eta prozesuekin erlazionatu izan da (Fang eta Judd, 2018; Hossain, Mukheem eta Kamarul, 2015). Adiponektinaren funtzia batik-bat zelularen homeostasi energetikoarekin dago erlazionatuta, horren hartzalea,

mintzeko hartzalearekin lotzen da GLUT 4-a estimulatzeko AMPK α bidearen bitartez, horrela glukosa zelula barrura sartzen utziz. Beraz, adiponektinak glukosa intrazelulararen erabilpena gehitzen du, intsulinaren sentsibilitatea modulatuz. Adiponektinak gantz azidoen oxidazioa ere gehitu egiten du eta ondorio antiinflamatorio eta antitronbozitikoak ditu (Fang eta lank., 2018). Ondorio bezala, adiponektina kontzentrazio altua izatea intsulinaren erresistentziarekin, diabetes II motarekin, dislipemiararekin eta gaixotasun kardiobaskularrekin alderantziz erlazionatuta dago (Fang eta Judd, 2018; Hossain eta lank., 2015).

Adiponektinaren hainbat ezaugarri kontrajarriak deskribatu dira, gizeren mailan beherakada egonik ez gizenerik alderatuz (Fatouros eta lank., 2005; Nikseresht eta lank., 2014a) eta gizonezkoena emakumeenarekin erkatuz (Cnop eta lank., 2003; Consitt, Saxena eta Schaefer, 2018; Elhakeem, Murray, Cooper, Kuh, Whincup eta Hardy, 2018). Adiponektina maila altua ere sindrome metabolikoarekin, gaixotasun batzuekin, erorketekin (Huang eta lank., 2016) eta hilkortasunarekin (Beatty eta lank., 2012; Wu, Cheng, Gu eta Aung, 2014;) erlazionatu da. Ostera, paradoxikoki, ehun urtetik gorakoek adiponektina maila altuak dituzte (Bik eta lank., 2013).

Ariketa fisikoaren eta adiponektinaren arteko erlazioaren inguruan egin diren ikerketek ere emaitza kontrajarriak adierazi dituzte. Adiponektina maila altua ariketa fisikoa luzaro egitearekin erlazionatuta dago adin nagusiko pertsonetan (Elhakeem eta lank., 2018). Era antzekoan, aurretik sedentarioak ziren pertsona nagusietan, 12 asteko entrenamenduaren ostean adiponektinaren mailak gora egin zuen (Fatouros, 2005; Markofski eta lank., 2014). Aitzitik, gizonezko gazte sedentario argal eta lodietan entrenamenduak adiponektinaren maila gutxitzen du (Gastebois eta lank., 2016), nahiz eta beste autore batzuek ez duten inolako aldaketarik ikusi entrenamenduaren ostean (Bouassida eta lank., 2010).


Entrenamenduaren ondorioekin gertatzen den antzekoa gertatzen da etete-aldiaren ondorioekin, adiponektina mailari dagokionean. Ariketa fisikoaren eteteak ondorio kaltegarriak ditu gaitasun funtzionalari dagokionean (Esain, Gil, Bidaurrezaga-Letona eta Rodriguez-Larrad, 2018; Lobo, Carvalho eta Santos, 2010). Ikusi izan da adiponektinaren

mailak era esanguratsuan egiten duela gora (Gastebois eta lank., 2016) eta baita jaitsi ere etete-aldiaren ostean (Fatouros eta lank., 2005; Nikseresht eta lank., 2014a). Hala eta guztiz ere, ikerketa gehienetan parte-hartzale sedentarioak errekrutatu dituzte eta gero horiek jarri dituzte ariketa fisikoko programa bat burutzen. Gure ezagutzaren arabera, pertsona nagusi aktiboetan ez da oraindik etetearen ondoriorik ikertu, hanturazko biomarkatzaile eta adiponektinari dagokienean. Pertsona nagusiek maiz denbora libreko jarduerak eteten dituzte, familiako pertsonak zaintzeko, adibidez, senar/emaztea, lobak eta gaixotasunagatik edo oporrengatik. Hortaz, 3 hilabeteko etete-aldiak pertsona nagusi aktiboen hanturazko biomarkatzaileetan eta adiponektinan zuen ondorioa ikertu genuen eta ea erlaziorik zegoen funtzio fisikoan ematen ziren aldaketekin.

Metodoak

Ikerketaren diseinua eta errekrutamendua

Artikulu honek bigarren analisi baten datuak adierazten ditu. Parte-hartzialeak, kirol zentro publiko bateko, Getxoko, (Bizkaia, Euskal Herria) ariketa fisiko gidatu bateko programa batetik errekrutatuak ziren. Programa, komunitateko ≥ 65 urteko helduei eskainita zegoen, horrek 9 hilabeteko iraupena zuen eta jarraian 3 hilabeteko etetea, udako oporraldia. Guztira, 49 pertsonak hartu zuten parte ikerketan (38 emakume eta 11 gizonetako) (1. Irudia).



1. Irudia: Ikerketa protokoloa

Parte-hartzaleak ikerketan parte-hartzeko gutxienez aurreko 9 hilabetez jarduera fisiko gidatuetan parte hartzte behar izan zuten. Neurketak goian aipatutako zentroan burutu ziren, programaren bukaeran (Hasiera) ekainean eta hiru hilabete geroago (Bukaera), irailean. Hiru hilabete horietan parte-hartzaleei beraien egunerokoarekin jarraitzeko esan zitzaien, baina inolako ariketa fisiko gidatuan parte hartz gabe.

Parte-hartzaile guztiak, ikerketaren inguruan informatuak izan ziren kirol zentroan eta baimen informatua sinatu zuten. Ikerketa Euskal Herriko unibertsitateko etika batzordeak onartu zuen (M10-2015-204). Protokoloa entsegu kliniko bezala erregistratua zen ANZCTR (ID: ACTRN12617000716369).

Ariketa fisikoaren programa

Parte-hartzaileak astean multikonponenteko, 50 minutuko bi sesio izaten zitzuten eta guztiak profesional berak gidatu zituen. Saio guztiak 10 minutuko girotze aldi batekin hasten ziren eta jarraian erraketatarra jokatzen zuten pilota bigunarekin. Saioaren zati garrantzitsuak muskulu handien indar ariketak zituen, baita erreakzioa abiadurako ariketak, oreka estatiko eta dinamikoko ariketak eta lurreko lumbarpelbiseko ariketak ere, kanpo pisuekin. Saioa atsedenerako buelta batekin bukatzen zen, luzaketak, erlaxazioak eta arnas ariketak eginez.

Antropometriako, ariketa fisikoko eta funtzio fisikoko neurketak

Parte-hartzaileen pisua eta altuera neurtzeko Seca (Modelo 869) erabili zen eta datu horiek Gorputz-Masa Indizea (GMI, kg/m^2) neurtu zen. Gerriaren eta aldakaren zirkunferentzia ere neurtu zen eta gero gerri-aldaka indizea kalkulatzu.

Ariketa fisikoa neurtzeko Minnesota Leisure Time Physical Activity Questionnaire (Taylor eta lank., 1987) gazteleraezko bertsio laburtua erabili zen (Ruiz-Comellas eta lank., 2012).

Parte-hartzaileen oreka dinamikoa neurtzeko 8 Foot Up and Go (8 FUG) testa erabili zen (Rikli eta Jones, 1999). Gaitasun aerobikoa neurtzeko 6 Minute Walk Testa (6 MWT) (Rikli eta Jones, 1998). Esku menderatzailearen indarra dinamotria bitartez neurtu zen (Jamar plus). Gorputzko goiko gorputz-adarraren indarra neurtzeko Arm Curl testa (Rikli eta Jones, 1999) erabili zen eta beheko gorputz-adarraren indarra baloratzeko Chair Stand testa (Rikli eta Jones, 1999).

Parametro biokimikoak

Odol analisiak baraualdian batu ziren, goizeko 8rak eta 10rak bitartean eta horiek -80°C tan gorde ziren. Parte-hartzaileen parametro lipidikoak Roche/Hitatchi cobas c sistemarekin bitartez egin ziren. Kolesterol CHOL2-arekin, dentsitate altuko lipoproteina

HDLC3, trigliceridoak TRIGL kitarekin, glukosa GLUC3.arenkin, hemoglobina glikosilatua A1c (HbA1c) A1C3rekin eta proteina C-erreaktiboa partikulekin sustatutako proba immunoturbidemetrokoaren bidez egin zen CRPL3. Aterogeneitatea neurtzeko, kolesterolaren eta dentsitate altuko lipoproteinaren kontzentrazioen arteko erradioa kalkulatu zen (Kol/HDL). Dentsitate baxuko lipoproteinen kontzentrazioa kalkulatzeko formula matematikoa erabili zen: Kol-HDL-(TG/5mg/dL). Adiponektina neurtzeko entsegu immunoentzimatiko (ELISA) teknika erabiliz egin zen, horretarako BioVendor Human Adiponectin ELISA kit-a erabiliz. Interleukina-6-aren maila neurtzeko, saio immunometriko kimioliminiszente sekuentziala egin zen, IMMULITE 2000 systems kit-a erabiliz.

Analisi estatistikoa

Datuak IBM Social Science pakete estatistikoarekin aztertu ziren, (SPSS 21.0 bertsioa). Datuek normaltasuna betetzen zuten aztertzeko Kolmogorov-Smirnov froga egin zen. Hasieraren eta bukaeraren artean zeuden desberdintasun adierazgarriak ezagutzeko Wilcoxon edo t student-en test independientea erabili zen. Aldagaien arteko erlazioa aztertzeko, korrelazioak burutu zen. Pearson edo Spearman. Korrelazio partzialak ere erabili ziren, adina, sexua eta medikazioak kontrolatuz. Aldagai jarraituentzako aldaketa portzentajea kalkulatu zen, hau hasierako eta bukaerako (hiru hilabetetako etete-aldiaren osteko) neurketen arteko aldaketa da. Horretarako honako formula hau erabili zen $[(\text{bukaerakoa-hasierakoa})/\text{hasierakoa}] \times 100$. Kasu guzietan adierazgarritasun estatistikoa $p < 0,05$ ean ezarririk.

Emaitzak

Parte-hartzaileak ariketa fisikoko programa honetan $12,10 \pm 8,8$ urte zeramatzen parte-hartzen. Gizonezkoak altuagoak ($p < 0,001$) ziren eta baita pisutsuagoak ($p < 0,01$) ere, eta aldakaren zirkunferentzia txikiagoa zuten ($p < 0,05$) gerri-aldaka indizea emakumezkoek ($p < 0,01$) baino handiagoa zuten. Emakumezkoen gerri-aldaka indizea baino ez zen aldatu etete-aldiaren ostean ($p < 0,05$) (1. Taula).

1.Taula. Parte-hartzaileen antropometria eta ariketa fisiko urte kopurua

| | Guztira | | Emakumezkoak | | Gizonezkoak | |
|--------------------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|-----------------|-----------------|
| | Hasieran | Bukaeran | Hasieran | Bukaeran | Hasieran | Bukaeran |
| Adina (urteak) | 75,55±5,77 | | 75,89±6,03 | | 75,58±6,05 | |
| Altuera (cm) | 159,80±7,34 | 159,81±7,34 | 156,81± 4,60 | 156,80± 4,57 | 170,13± 5,37### | 170,23± 5,27### |
| Pisua (kg) | 72,63±12,98 | 72,63±13,02 | 71,21±13,76 | 71,19±13,83 | 77,55±8,62## | 77,59±8,41## |
| GMI | 28,41±4,58 | 28,40±4,56 | 28,88±4,89 | 28,87±4,90 | 26,80±2,88 | 26,78±2,74 |
| Gerria (cm) | 97,63±10,41 | 98,97±11,61 | 97,67±11,11 | 99,47±12,40* | 97,51±7,96 | 97,20±8,58 |
| Aldaka (cm) | 107,54±11,34 | 107,70±11,87 | 109,25±12,12 | 109,38±12,71 | 101,64±4,86# | 101,91±5,58 |
| GAI | 0,90±0,06 | 0,92±0,06 | 0,89±0,05 | 0,91±0,06* | 0,95±0,05## | 0,95±0,05 |
| Ariketa fisikoko urtea kopurua | 12,10±8,80 | | 11,97±8,60 | | 11,54±8,90 | |

Laburdurak: GMI, Gorputz-Masa Indizea; GAI, Gerri-Aldaka Indizea, AF, Ariketa fisikoa

Oharrak: *p <0.05, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak, hasieran vs. amaieran

#p <0.05, ##p <0.01, ###p <0.001, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak, emakumezkoak vs. gizonezkoak

Gizonezkoak emaitza hobeak izan zitzuten esku indarrean ($p <0,001$) eta 6MWT-ean ($p <0,01$) emakumezkoekin erkatuta programa bukatu eta jarraian burutu ziren neurketetan eta 8 FUG testean bai programa bukatu eta jarraian (hasieran) eta baita ere etete-aldiaren ostean (bukaeran) ere ($p <0,05$). 8 FUG testean bai gizonezkoek ($p <0,05$) bai emakumezkoek ($p <0,001$) emaitza okerragoak lortu zitzuten etete-aldiaren ostean (2.Taula).

2. Taula. Parte-hartzaileen funtzio fisikoa

| | Guztira | | Emakumezkoak | | Gizonezkoak | |
|---------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|---------------|----------------|
| | Hasieran | Bukaeran | Hasieran | Bukaeran | Hasieran | Bukaeran |
| Esku indarra (kg) | 25,25±6,46 | 25,35±6,48 | 22,63±3,62 | 22,83±3,47 | 34,28±6,05### | 34,06±7,05### |
| Chair Stand (errep) | 15,76±2,72 | 15,57±2,96 | 15,82±2,86 | 15,58±3,02 | 15,55±2,25 | 15,55±2,87 |
| Arm Curl (errep) | 17,00±2,51 | 17,35±2,75 | 17,32±2,65 | 17,53±2,65 | 15,91±1,81 | 16,73±1,81 |
| 8 FUG (s) | 5,15±0,85 | 5,42±0,84*** | 5,24±0,57 | 5,46±0,63*** | 4,83±1,45# | 5,27±1,38* |
| 6 MWT (m) | 523,74±53,62 | 528,12±57,05 | 514,31±40,94 | 516,03±46,31 | 555,46±77,75# | 568,75±72,26## |

Laburdurak: errep, errepikapen kopurua; 8 FUG, 8 Foot Up and Go; 6 MWT, 6 Minute Walk test

Oharrak: *p <0,05, **p <0,001, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak, hasieran vs. bukaeran

#p < 0,05, ##p <0.01, ###p <0,001, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak emakumezkoak vs. gizonezkoak

Parte-hartzaile guzietan eta baita emakumezkoetan ere, etete-aldiaren ostean HDL-a era esanguratsuan gehitu zen ($p <0,001$), eta aterogenitate indizea, ostera gutxitu ($p <0,05$), (3.Taula). Gizonezkoak kolesterol totalean eta HDL-ean ($p <0,05-0,001$) emakumezkoek balore baxuagoak izan zituzten, bai hasieran eta baita etetearen ostean ere eta LDL-an hasierako neurketetan soilik.

3. Taula. Biomarkatzaileak eta adiponektina hasieran eta bukaeran

| | Guztira | | Emakumezkoak | | Gizonezkoak | |
|---|---------------|----------------|---------------|----------------|---------------------------|---------------------------|
| | Hasieran | Bukaeran | Hasieran | Bukaeran | Hasieran | Bukaeran |
| Glukosa (mg/dL) | 95,11±15,52 | 94,87±18,78 | 94,72±13,78 | 93,97±16,77 | 96,33±21,14 | 97,78±25,19 |
| HbA1c (mmol/mol) | 5,81±0,52 | 5,78±0,58 | 5,79±0,56 | 5,78±0,58 | 5,87±0,52 | 5,81±0,58 |
| Kolesteroloa (mg/dL) | 198,08±31,66 | 203,45±31,73 | 204,52±29,44 | 210,24±28,63 | 177,33±31,66 [#] | 181,56±31,73 [#] |
| Triglizeridoak (mg/dL) | 97,74±30,83 | 103,39±35,00 | 99,76±31,33 | 103,10±35,27 | 91,22±30,83 | 104,33±35,00 |
| HDL (mg/dL) | 59,32±10,82 | 62,96±12,54*** | 61,38±10,68 | 66,06±12,14*** | 52,69±8,81 [#] | 52,95±7,98### |
| LDL (mg/dL) | 119,11±29,61 | 120,32±28,59 | 123,25±28,83 | 124,36±26,92 | 106,22±29,89 [#] | 107,78±31,58 |
| Aterogeneitatea | 3,45±0,80 | 3,35±0,82* | 3,45±0,80 | 3,45±0,82* | 3,44±0,77 | 3,48±0,66 |
| PCR (mg/dL) | 0,25±0,24 | 0,31±0,34 | 0,25±0,27 | 0,30±0,37 | 0,24±0,18 | 0,32±0,27 |
| Interleukina 6 (pg/mL) | 2,42±0,95 | 2,56±1,20 | 2,38±1,04 | 2,45±1,12 | 2,56±0,60 | 2,95±1,43 |
| Adiponektina (ug/mL) | 11,38±3,90 | 11,22±4,08 | 11,84±3,73 | 11,93±3,55 | 9,86±4,29 | 8,84±5,00 [#] |
| MET totala (min.eguneko ⁻¹) | 403,46±141,36 | 379,29±211,95 | 416,21±144,36 | 389,81±213,67 | 359,43±126,69 | 342,93±211,74 |

Laburdurak: HbA1c, Hemoglobina Glikosilatua A1c; HDL, Dentsitate Altuko Lipoproteina; LDL, Dentsitate Baxuko Lipoproteina; PCR, Proteina C-Erreaktiboa; MET, Metabolic Equivalent of Task.

Oharrak: *p < 0,05, **p < 0,001, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak, hasieran vs. bukaeran

[#]p < 0,05, ^{##}p < 0,01, ^{###}p < 0,001, ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak, emakumezkoak vs. gizonezkoak

Gizonezko batek adiponektinaren handiagotzea izan zuen (%62,4koa). Deigarria da, gizon honek funtzi fisikoko test guztietan etete-aldiaren ostean emaitza okerrenak lortu zituela (Esku indarra: 30 kg; Chair Stand: 11 errepikapen; Arm Curl: 11errepikapen; 8 FUG:8,8 s; 6MWT. 406,73m). Beste gizonezko guztiekin, berriz, adiponektinaren maila kontserbatu edo maila baxuak izan zituzten (bataz bestekoa: -18,74%, rangoa: -44,1% – 7,78%); hortaz, gizonezkoen talde honetan bataz besteko adiponektina mailak behera egin zuen era esanguratsu batean etete- aldiaren ostean ($9,54 \pm 4,47 \text{ } \mu\text{g/ml}$ tik $7,42 \pm 2,8 \text{ } \mu\text{g/ml}$; $p <0,05$). Orduan, adiponektina maila etete-aldiaren ostean gizonezkoetan emakumezkoetan baino baxuagoa izan zen ($p <0,05$) (3.Taula).

Parte-hartzaile guztietan etete-aldiaren ostean adiponektinak korrelazio positiboa izan zuen 8 FUG testarekin ($p <0,05$) eta negatiboa 6 MWT-arekin ($p <0,05$) (4.Taula). Gizonezkoen kasuan etete-aldiaren ostean (bukaeran) adiponektina era negatiboan erlazionatzen zen Chair Stand testarekin ($p <0,05$). Berriz, adiponektina negatiboki erlazionatzen zen trigliceridoekin, parte-hartzaile guztietan eta baita emakumeetan ere ($p <0,05- 0,001$) biak bai hasierako neurketetan eta bai bukaerakoetan. Hala ere, parte-hartzaile guztietan HDL-arekin era positiboan erlazionatzen da ($p <0,05$) bai hasieran eta baita etete-aldiaren ostean, emakumezko eta gizonezkoak banatuta baita hasierako neurketetan ere. Ez zen korrelazio esanguratsurik egon IL-6, PCR eta beste parametro biokimikoekin egon.

4. Taula. Adiponektina eta egoera fisikoaren eta beste biomarkadoreen arteko korrelazio partzialak adina kontrolatuta

| | Guztira | | Emakumezkoak | | Gizonezkoak | |
|---|----------|----------|--------------|----------|-------------|----------|
| | Hasieran | Bukaeran | Hasieran | Bukaeran | Hasieran | Bukaeran |
| Esku indarra | -0,138 | -0,135 | -0,101 | 0,146 | -0,137 | 0,033 |
| Chair Stand | 0,081 | 0,026 | 0,245 | 0,221 | -0,390 | -0,720* |
| Arm Curl | 0,122 | 0,081 | 0,171 | 0,201 | -0,179 | -0,570 |
| 8 FUG | 0,076 | 0,375* | 0,023 | 0,235 | 0,146 | 0,333 |
| 6 MWT | -0,032 | -0,378* | 0,047 | -0,108 | -0,073 | -0,226 |
| Glukosa | -0,180 | -0,235 | -0,201 | -0,470 | -0,176 | -0,577 |
| HbA1c | -0,277 | -0,358* | -0,299 | -0,217 | -0,135 | -0,471 |
| Kolesteroloa | 0,130 | -0,012 | 0,208 | -0,187 | -0,127 | 0,126 |
| Triglizeridoak | -0,488** | -0,408** | -0,573*** | -0,372* | -0,345 | -0,417 |
| HDL | 0,496** | 0,339* | 0,427* | 0,138 | 0,673* | 0,600 |
| LDL | 0,064 | -0,061 | 0,192 | -0,141 | -0,164 | 0,050 |
| Aterogeneizitatea | -0,300 | -0,359* | -0,201 | -0,243 | -0,624 | -0,300 |
| PCR | 0,023 | -0,115 | 0,064 | -0,003 | -0,273 | -0,133 |
| Interleukina 6 | -0,072 | -0,019 | -0,083 | -0,740 | -0,028 | 0,235 |
| MET totala (min.eguneko ⁻¹) | -0,050 | 0,071 | -0,112 | -0,025 | 0,109 | -0,117 |

Laburdurak: errep, Errepikapen kopurua; 8 FUG, 8 Foot Up and Go; 6 MWT, 6 Minute Walk test;

HDL, Dentsitate Altuko Lipoproteina ; LDL, Dentsitate Baxuko Lipoproteina; PCR, Proteina C-Erreaktiboa;

MET, Metabolic Equivalent of Task

Oharrak: *p < 0.05, **p < 0.01, ***p < 0.001

Eztabaida

Hau lehendabiziko ikerketa da, pertsona nagusi aktiboetan 3 hilabeteko etete-aldiaren odoleko parametro biokimikoetan ematen diren ondorioak aztertzen dituena. Hanturazko aldagaiak ez zuten aldaketarik izan etete-aldean zehar, ostera HDL-a era adierazgarrian gehitu zen.

Ariketa fisikoaren etete-aldiaren ostean, adiponektina aldagai desberdinakin era kontrajarrian erlazionatu zen. Alde batetik, adiponektina maila altuak perfil lipidikoarekin erlazionatzen ziren bitartean, beste aldetik errendimendu fisiko okerragoarekin ere lotzen zen.

Parametro biokimikoei dagokienean, etete-aldiaren ostean HDL-an soilik antzeman ziren aldaketa estatistikoki esanguratsuak eta horren ondorioz indize aterogenikoan. HDL-aren gehikuntza etete-aldi hori udan izan zelako izan liteke, garai horretan entsalada, fruta eta arrain asko jaten baita. Parte-hartzaileei euren eguneroko elikadura ohiturak eta edariak ez aldatzeko eskatu zitzaien, nahiz eta dieta ez zen era zehatz batean batu. Hortaz, ezinezkoa da horren ondorioa dela ziurtatzea.

Etete-aldiaren ostean ez zen aldaketarik ikusi PCR-an eta IL-6-an. Ratel eta lankideek (2012) antzeko emaitzak adierazi zituzten 8 asteko etetearen ostean gizonezko nagusietan. Ikerketa horretako partaideek gurekoek bezala etete-aldi horretan bizitza aktiboa egin zuten, eta agian hau nahikoa izan liteke hanturazko markatzailak mantentzeko (Ratel eta lank., 2012)

Adin ertaineko pertsona gizenekin egindako ikerketa batean aldiz, ikusi zuten 4 astetako etetea nahikoa zela IL-6a (Nikseresht eta lank., 2014a) era adierazgarri batean handitzeko. Emaitza kontrajarri horiek ikertutako populazioaren desberdintasunengatik edo entrenamendu eta etete-aldi-en ezaugarri desberdinengatik izan litzke.

Etete-aldiak adiponektinaren mailan dituen ondorioak aztertu dituzten ikerketek emaitza kontrajarriak adierazi dituzte. Gizonezko gazte eta argalen kasuan ariketa fisikoa egiteari utzi eta hilabetera adiponektina maila igo egin zen (Gastebois eta lank., 2016). Gain-pisua

zuten adin ertaineko gizonetan, ostera, adiponektina jaitsi egiten da hilabeteko etetearen ondoren (Nikseresht eta lank., 2014a) eta baita ere sei hilabetetako etetearen ondoren ere aurretiaz sedentarioak ziren adin nagusiko gizon gizenetan (Fatouros eta lank., 2005). Ikerketa horretan, 3 hilabeteko etete-aldiak ez zuen inolako eraginik izan emakumezkoetan eta parte-hartzaile guztiak batera aztertzean. Gizenezkoetan ordea, ariketa fisikoa utzi eta gero adiponektina mailak %9,7 egin zuen behera (Bucci eta lank., 2013; Sato eta lank., 2014), eta estatistikoki baxuagoak izan ziren emakumezkoenak baino, ariketa fisikoa utzi eta gero parte-hartzaile gizenezko batenak izan ezik.

Hainbat ikerketek desberdinek aurretiaz generoen arteko desberdintasunak adierazi dituzte hormona sexualetan eta adiponektinaren inhibizioan testosteronaren partetik, eta horrek adiponektinak etete-aldiaren ostean gizon eta emakumezkoetan duen erantzun desberdina azal lezake.

Ikerketa askok baiezatu dute adiponektina maila baxuak emaitza kaltegarriekin daudela erlazionatuta, hala nola, hiperinsulinemia, intsulinari erresistentzia, diabetesa eta gibileko esteatohepatitis ez-alkoholikoa (Cnop eta lank., 2003; Fang eta Judd, 2018; Jamali, Razavizade eta Aarabi, 2016). Adiponektina maila altuak, berriz, iragarpen on zein txarrekin lotu dira (Cnop eta lank., 2003; Kantartzis eta lank., 2006) (2.Irudia).

Beste ikerketa batzuen antzera, gure ikerketako datuek adierazten dute adiponektina maila altuak perfil lipidiko onuragarriagoarekin (triglicerido baxuagoak eta HDL altuagoa) erlazionatzen direla, bai hasieran eta baita bukaeran ere.

Gainera, alderantziko erlazioa antzeman zen adiponektinaren eta HbA1c-ren artean etetearen ostean. HbA1c-a klinikoki diabetikoen gluzemia kontrolatzeko erabiltzen da. HbA1c-a maila altua izatea gluzemiaren kontrol eskasaren adierazlea denez, alderantzizko erlazioak ematen ditu aditzera adiponektina maila altuagoak gluzemia kontrol hobeagoa onartzen duela. Izan ere, aurkikuntza hau bat dator adiponektinak intsulinaren sentsibilitatean eta gluzemiaren kontrolean parte-hartzen duela diotenekin (Cnop eta lank., 2003; Ruan eta Dong, 2016).

Parte-hartzaile guzietan bukaerako adiponektina maila altua, aldiz, errendimendu baxuagoarekin erlazionatzen da, zehazki oreka dinamikoan eta gaitasun aerobikoan. Gizonetakoan, adiponektina maila altua beheko gorputz-adarreko indarrarekin ere erlazionatu zen.

Interesgarria da adiponektina gehikuntza izan zuen gizonetakoak funtzi fisikoaren probetan emaitza okerrenak izan zituela.

Aurreko ikerketek adierazi dute adiponektina era negatiboan dagoela erlazionatuta indarrarekin (Bucci eta lank., 2013), koadrizepseko indarrarekin (Bucci eta lank., 2013; Karvonen-Gutierrez, Zheng, Mancuso eta Harlow, 2016), sarkopeniarekin (Harada eta lank., 2017) eta erorketekin (Huang eta lank., 2016).

Gainera, adiponektina maila altuak aplopecia iskemiakoarekin (Hao eta lank., 2017), gaixotasun kardiobaskularra dutenen kasuan heriotzarekin edozein arrazoiengatik edo arazo kardiobaskularrengatik (Wu eta lank., 2014), kakexia (McEnterhart eta lank., 2007) eta gutxiegitasun kardiobaskularra duten gaixoetan indar muskular periferiko baxuarekin (Loncar eta lank., 2013) (2. Irudia).


Azken urteotan *adiponektinari erresistentzia* terminoa agertu da. Autore batzuen iritziz, adiponektinaren maila handitzea giharren funtzionabilitatearen beherakadarekin erlazionatuta dago eta gertaera adiponektinaren disfuntzioari esleitzen zaio, mintzean dauden hartzaleei (adipo R1, R2 eta/edo T-cadherina), edo baita metabolismo zelularrean implikatuta dauden prozesu intrazelularrei ere (Bucci eta lank., 2013; Fang eta Judd, 2018; Sente, Van Berendoncks, Hoymans eta Vrints, 2016).

Hortaz, odolean adiponektinaren kontzentrazio altuak izan arren, zelulen erantzuna desegokia da, hain zuzen ere gihar zelulena, kasu horretan emaitza negatiboak emanik, batez ere beheko gorputz-adarreko indarrean eta gaitasun aerobikoan.

Horiek horrela, adiponektina biomarkatzaile garrantzitsua izan liteke pertsona nagusietan funtzi fisikoan ematen den beherakada antzemateko. Halaber, kontuan izan behar da emaitza horiek soilik gizonetakoan adieraz ditzakegula.

Beraz, etete-aldiak gizonezkoei eta emakumezkoei era desberdinean eragin diezaike, adiponektinarekin erlazionatutako fisiologia desberdina delako, horregatik ikerketa gehiago behar dira.

Ikerketa honek muga batzuk ditu. Lehenengo eta behin, talde kontrol ez entrenatu bat izateak ikusitako desberdintasunak etete-aldiarenak edo/eta zahartzaroarenak ziren zehazten lagunduko liguke. Bigarrenik, parte-hartzaile kopuru txikia izan zen, batez ere gizonezkoen kasuan eta beste neurtu gabeko aldagai batzuen presentzia izan zitekeela eta, aurkikuntzak orokortzeko orduan mugak egon ziren. Hortaz, generoen arteko desberdintasunak kontuan izanik, etorkizunean gizonezko eta emakumezko gehiagok parte-hartzen duten ikerketa handiagoa egin beharko litzateke.



2. Irudia: Adiponektina maila altuaren eta baxuaren eragina

TZD, thiazolidinediones; NASH, Nonalcoholic steatohepatitis; CVD, cardiovascular disease

MI, myocardial infarction; TG, triglycerides; HDL, high density lipoprotein

Ondorioak

Gure aurkikuntzek adierazten dute, 3 hilabeteko etete-aldiaren ostean ez dela inongo aldaketarik ematen hanturazko biomarkatzaleetan ariketa fisikoa egiten duten pertsona nagusietan, hau izan daiteke, mantentzen duten bizi aktiboari esker. Halere, etete-aldian HDL handitzen da eta aterogeneitate indizea gutxitzen da, hau udako elikadura motagatik izan daiteke. Emakumeek etete-aldian zehar adiponektina mailak mantendu egin zitzuten, gizonetan osteria, gutxiagotze nabarmena egon zen, sexu dimorfismoa adieraziz. Ariketa fisikoaren etete-aldiaren ostean, odolean adiponektina maila altua zutenek jarduera fisikoaren maila baxua erakutsi zuten bereziki oreka dinamikoan, test aerobikoan eta beheko gorputz-adarreko indarrean (gizonezkoak soilik), hau adiponektinari erresistentzia hipotesiaren bitartez azal daiteke. Azkenik, gure emaitzek adierazten dute adiponektina pertsona nagusien funtzio fisikoan ematen den narriadura antzemateko biomarkatzalea izan daitekeela. Ikerketa sakonago bat beharrezkoa izango litzateke adiponektinaren bi aldeak ulertzeko osasunean, gaixotasunetan eta pertsona nagusietan.

6. EZTABIDA



6. EZTABAIDA

Azken urteotan hirugarren adineko pertsonen kopuruak gora egin du eta horrekin batera gero eta garantzi handiagoa ematen zaio urte horiek ahalik eta hoberenak izateari. Hori horrela izanik, asko ikertu da hirugarren adineko pertsonengan ariketa fisikoak osasun arloan, bizi-kalitatean eta funtzio fisikoan dakartzan ondorioen gainean. Ostera, gaur egun gutxi dakigu ariketa fisiko gidatua eteteak nolako eragina izan dezakeen, bizi-kalitateari, funtzio fisikoari eta parametro biokimikoari dagokionean. Gainera, kontuan izan behar da ariketa fisiko gidatua gelditzea gauza ohikoa izan daitekeela arrazoi desberdinengatik, udako oporraldian, polikiroldegietan ariketa gidatuen etetea ematen baita, familiakoen gaixotasunen bat, iloben zaintza,... hau guztia kontuan izanik ikerketa honen helburua ariketa fisiko etete-aldiak ariketa fisiko gidatua burutzen duten hirugarren adineko pertsona osasuntsuen bizi-kalitatean izan dezakeen eragina aztertzea izan zen, eta baita funtzio fisikoan eta parametro biokimikoetan ere.

Ikerketa honetan lortutako aurkikuntzek adierazten dute bederatzi hilabeteko ariketa fisiko gidatuaren ostean hiru hilabeteko geldialdiak ondorio negatiboak dituela ariketa fisiko gidatua burutzera ohitura dauden pertsona nagusien kasuan, osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatearen dimentsio guztietai (SF-36) beherakada adierazgarria aurkitu zen eta baita oreka dinamikoan ere. Etete-aldiak behe ataleko indarrean eta gaitasun kardiobaskularrean ere aldaketak sortu zituen baina hauek estatistikoki esanguratsuak izatera iritzi gabe. Hanturazko parametroetan ez zen aldaketarik antzeman, HDL kolesterola ostera, estatistikoki gehitu egin zen. Etete-aldiaren ostean adiponektina parametro desberdinekin era kontrajarrian erlazionatu zen. Adiponektina maila altuak odoleko lipido maila hobearekin erlazionatzen ziren bitartean funtzio fisikoko emaitza okerragoekin zuen lotura. Gainera, ariketa fisiko gidatuaren etete-aldiaren ostean emakumezkoen kasuan adiponektina mantendu egin zen, gizonezko gehienek ostera beherakada izan zuten. Horretaz gain, hiru hilabeteko etete-aldi horretan, partaideen %18,4k erorketaren bat izan zuen eta ariketa fisiko gidatua burutzen aritu ziren 9 hilabeteetan aldiz, bakar batek ere ez zuen erorketarik izan.

Partaideek beraien egunerokoan egindako jarduera fisikoan ez zen desberdintasun estatistikorik aurkitu bi momentuen artean, ariketa fisikoko programa egiten ari ziren bitartean 403,5 MET-min.egun⁻¹ egiten zituzten eta etete-aldian 379,3 MET-min.egun⁻¹. Baino, parte-hartzaleek egiten zuten jarduera fisikoaren arabera, hiru talde desberdinan sailkatu genituenean, taldeen banaketari dagokionean aldaketa esanguratsua eman zen. Alde batetik, oso aktibo eta aktiboen taldeen portzentajeak jaitsi ziren, eta bestetik, moderatu/sedentario taldearena igoz, hau estatistikoki esanguratsua izanik. Horren azalpena izan daiteke parte-hartzaleek, beraien egunerokoarekin jarraitu arren, hau da, bizitza aktiboa izaten jarraitu bazuten ere, lehen ariketa fisikoa egiten zuten orduetan etete-aldian zehar jarduera lasaiagoak egin zituztela seguruenik eta baliteke hori izatea lortutako emaitzen arrazoiatariko bat.

Aurretiaz jarduera fisikoak osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatean duen eragina ikertu da, baina, aldiz oso gutxi dakigu zer gertatzen den pertsona nagusi osasuntsuen bizi-kalitatean ariketa fisiko gidatua egiteari uzten diotenean. Ariketa fisikoa egiteak bizi-kalitatearekin erlazio positiboa du pertsona nagusien kasuan (Balboa-Castillo eta lank., 2011; Hörder, Skoog eta Frädin, 2013). Gainera, ikerketa honetako parte-hartzaleek, bataz beste 12 urte zeramatzaten ariketa fisiko gidatuko klaseetan parte hartzen eta bizi-kalitatearen ia dimensio guztietai beraien adineko populazio orokorreko pertsonek baino balore altuagoak izan zituzten (<http://www.osakidetza.euskadi.eus/>), horrek ariketa fisikoak bizi-kalitatean duen eragin positiboa adierazten duelarik.

Ariketa fisiko gidatua egiten zuten parte-hartzaleen bizi-kalitatearen dimensioetan hiru hilabeteko ariketa fisiko eteteak beherakada garrantzitsua ekarri zuen, dimensio guztietai, hauek estatistikoki adierazgarriak izanik, bataz beste aldaketak %-3,9tik - %14,7rartekoak izanik. Beherakada handiena gorputzeko minean izan zen eta txikiena osasun orokorraren dimensioan, besteetan aldaketa %8koa izanik gutxi gorabehera. Ikerketa gutxik aztertu dute etete-aldiaren eragina bizi-kalitatean, hori dela eta emaitza kontraesankorrik aurkitzen dira. Gure emaitzak bat datozen Bocalini eta lankideek (2010) aurkitutakoekin, beraiek lau asteko etetearen ostean beherakada esanguratsu bat ikusi baitzuten eta jaistea oraindik handiagoa izan zen 6 asteren ostean (Bocalini eta lank., 2010). Beste autore batzuek aldiz, gure iraupen berdineko etete-aldia egin eta gero, 3

hilabetekoak, ez zuten inolako aldaketarik ikusi bizi-kalitatean (Ansai eta Rebelatto, 2015; Lobo, Carvahlo eta Santos, 2010).

Aitzitik, ikerketa honetako parte-hartaileek urte asko zeramatzen jarduera fisiko gidatuan parte-hartzen, 12 urte bataz beste, horrekin batera taldean egotera ohitura dauden pertsonak ziren, hortaz, bakarrik bizi direnak, gizona, emaztea edo familiako norbait zaintzen ari zirenak, agian etete-aldi horretan aukera gutxiago izango zituzten gizarteratzeko eta eguneroko horretatik irteteko, hauek guztiak eragin zuzena izanik bizi-kalitatearen dimentsio psikosozialekin.

Generoari eta bizi-kalitateari dagokionean, aurretiaz ikusi izan dute populazio orokorreko emakumezkoek bizi-kalitate okerragoa dutela gizonezkoekin alderatuta (Hemingway, Stafford, Stanfeld, Shipley eta Marmot, 1997; Vuillemin eta lank., 2005), joera berdina azaltzen da Euskal Herriko populazioaren kasuan ere (<http://www.osakidetza.euskadi.eus/>). Gure datuak ildo beretik doaz nahiz eta ez diren estatistikoki esanguratsuak, gure parte-hartaile emakumezkoak bizi-kalitatearen dimentsio gehienetan balore baxuagoak izan zituzten gizonezkoek baino, ariketa fisiko gidatuko bederatzi hilabeteren osteko neurketetan. Gainera, etete-aldiaren eragina handiagoa izan zen emakumezkoengen gizonezkoengen baino, izan ere, guztiak izan zuten gainbehera hainbat dimentsoetan, funtzio fisikoan, gorputzeko minean, rol emozionalean eta osasun mentalean, emakumeen kasuan beste bi dimentso gehitu behar ditugu bizkortasuna eta funtzionamendu soziala. Diabetesa zuten parte hartzaileekin burututako ikerketa batean ere gizonezkoak bizi-kalitatearen dimentso guztietan balore altuagoak zituztela ikusi zuten (Altinok, Marakoglu eta Cetin, 2016). Autore horiek adierazi zuten, desberdintasun honen zergatia honako eragile hauengatik izan zitekeela rol sozialagatik, generoari egokitzen zaizkion mugengatik, eta baita estruktura fisiologikoengatik eta emakumeen desberdintasun hormonalengatik ere (Altinok eta lank., 2016).

Funtzio fisikoari dagokionean, ikerketa honetan, parte-hartaileen indarrean ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu ariketa fisiko gidatuaren etete-aldiaren ostean; bataz beste %-0,4ko beherakada eman baitzen. Emaitza hauek bat datozen beste ikerketa batzuekin, horietan ere indarra mantentzen zela ikusi baitzuten etete-aldiaren ostean

(Padilha eta lank., 2015; Nascimento eta lank., 2014; Yasuda, Fukumura, Lida eta Nakajima, 2015). Hala eta guztiz ere, beste ikerketa batzuk beherakada esanguratsuak adierazi zituzten, indarrean etete tarte berdinean (Coetsee eta Terblanche, 2015; Delshad, Ghanbarian, Mehrabi, Sarvghadi eta Ebrahim, 2013). Ikerketen emaitzen arteko desakordioa, faktore desberdinengatik izan daiteke: hala nola, adina, sexua, gorputz osaketa, partaideen maila, entrenamendu eta etete-aldiaren ezaugarriak. Gainera, autore batzuek adierazi dute parte-hartzaileek aurretiaz zuten mailak ere eragina izan dezakeela (Correa eta lank., 2013).

Pertsona nagusiekin gaitasun aerobikoa aztertu zuten ikerketa batzuetan aurkitutako emaitzak gure emaitzeken bat datozen, beraien beherakada estatistikoki ez esanguratsua behatu baitzuten (Bruseghini eta lank., 2015; Ratel eta lank., 2012). Beste ikerketa batzuetan aldiz, 6 asteko etetearen ostean gaitasun aerobikoaren maila, entrenamendua baino lehenago zuten mailatik gora zegoen (Bocalini eta lank., 2010; Toraman, 2005). Emaitza desberdinaren zergatia honako hau izan liteke: ariketa mota, etete-aldian burutzen duten jarduera fisiko kantitatea nahikoa izatea, edo agian gaitasun horrek ez du inolako kalterik sufrizten bizitzeko era aktibo bat mantentzen bada. Gure ikerketako partaideek etete-aldian denbora gehiago pasatzen zuten ibiltzen, $47,1 \text{ MET-min.egun}^{-1}$ ariketa fisikoko programan zehar eta $64,2 \text{ MET-min.egun}^{-1}$ etete-adian. 6MWTean bataz beste %1ko aldaketa eman izanaren arrazoia izan daiteke parte-hartzaileak etete-aldian gehiago ibili zirela izatea zeren eta ibiltzerakoan gaitasun aerobikoa lantzen baita.

Orain arte oso gutxi dakigu ariketa fisiko gidatua gelditzeak zein neurritan eragin dezakeen oreka dinamikoaren gaitasunean, hala ere, gure ikerketan ikusi dugu hiru hilabetetan ariketa fisikoaren etetea nahikoa dela gaitasun horretan beheraka esanguratsua izateko. Parte-hartzaileek hasieran 8 FUG testa burutzeko 5,2 segundo behar izan zituzten eta etete-aldiaren ondoren gehiago, zehazki 5,4 segundo. Coetsee eta Terblanchek-k (2015) pertsona nagusi sedentarioekin egindako ikerketa batean aurkitu zituzten emaitzak gureekin bat datozen; horiek, 16 asteko erresistentzia entrenamendua eta beste horrenbesteko etete-aldiaren ostean, ikusi zuten orekako gaitasunean entrenamendu tarte horren barruan lortutako hobekuntza guztiak hasierako puntura itzuli zirela, nahiz eta beheko gorputz-adarreko indarrean aldaketarik eman ez (Coetsee

eta Terblanchek, 2015). Beste autore batzuek ere behatu zuten 6 asteko jarduera etetea nahikoa zela oreka dinamikoari dagokionean beherakada bat izateko (Toraman, 2005). Aldiz, Carvalho eta lankideek (2009) programa multikonponentea egin eta gero, entrenamenduaren etete efektuak gaitasun funtzionalean nolako eragina zuen ikertuz ikusi zuten oreka dinamikoan etete-aldiak eragin txikiagoa zuela beheko gorputz-adarreko indarrarekin alderatuta (Carchalho, Marques eta Mota, 2009).

Beraz, oreka dinamiko gaitasunean beheko gorputz-adarreko indarrak ez ezik, koordinazioak, oreka gaitasunak, erreakzio denborak, funtzi kognitiboak eta osasun egoera orokorrak ere eragina daukate (Kwan, Lin, Chen, Closa eta Lord, 2011).

Bestalde, oreka dinamikoa eta trebetasuna lantzeko beharrezkoak dira ariketa zehatzak ondo diseinatutakoak eta progresiboak; era berean, ezin da ahaztu erregularitasunez praktikatu beharreko gaitasunak direla (Sherrington eta lank., 2011).

Hortaz, esan dezakegu ikerketa honetako partaideek ariketa fisikoaren etete-aldian, nahiz eta aktiboak izaten jarraitu, seguruenik ez zutela programan egiten zuten bezala orekako ariketa zehatzik burutu, hori dela eta oreka dinamikoan beherakada handia gertatu zen, estatistikoki esanguratsua izan zena.

Horretaz gain, oreka dinamikoko beherakada esanguratsuak erlazioa zuen bizi-kalitateko dimentsio fisikoarekin, baina interesgarria da beheko gorputz-adarreko beherakadak, eta erresistentzia aerobikoa, ere erlazioa izan zutela, nahiz eta azken bi gaitasun hauetan emandako aldaketa etete-aldian zehar estatistikoki esanguratsua ez izan. Beraz, agian ikerketa honetako parte-hartzaleek narriadura bat hauteman zuten beraien funtzi fisikoan, egindako froga fisikoen bitartez antzeman ezinezkoa dena, hain zuzen ere, beheko gorputz-adarreko indarrean eta gaitasun kardiobaskularrean. Bestalde, izan liteke bizi-kalitatean ematen diren aldaketak funtzi fisikoan ematen direnak baino lehenago sumatzea, agian etete-aldi luzeago batek hau ulertzten lagunduko liguke.

Guk dakigunaren arabera, ariketa fisiko gidatu baten etete-aldiak pertsona nagusi osasuntsuen odoleko parametro biokimikoetan duen eragina aztertzen duen lehendabiziko ikerketa da, orain arte ikertu dena pertsona sedentarioetan egin izan baita.

Parametro biokimikoei dagokionean hiru hilabeteko ariketa fisikoaren etetearen ostean aldaketa esanguratsuak HDL-an soilik aurkitu ziren ($59,3 \pm 10,82$ vs. $62,9 \pm 12,5$; $p < 0,001$) eta ondorioz, indize aterogenikoan. Horren zergatia izan liteke etete-aldiak uda garaiarekin bat egin zuelako, non garai honetan fruta, entsalada eta arraina jatea ohikoa izaten den. Ikerketa honetan ez zen dietaren inolako erregistrorik burutu, nahiz eta parte hartzaileei beraien betiko jateko ohiturak mantentzeko agindua eman zitzaien. Ikerketa honen mugetako bat da dietaren inguruko galdelegirik pasatu ez izana, eta etorkizunean horrelako ikerketak aurrera eramatzen direnean egokia izango litzateke dietaren erregistroa egitea horrelako aldaketei erantzun edo arrazoi zehatzago bat eman ahal izateko.

Etete-aldiaren ostean ez zen aldaketarik aurkitu PCR eta IL-6 parametroetan, gizonezko nagusiekin egindako beste ikerketa batean emaitza antzekoak aurkitu zituzten zortzi asteko etete-aldiaren ostean. Gure ikerketako partaideak eta baita Ratel eta lankideen (2012) ikerketakoak ere etete-aldian zehar bizitza aktibo bat eraman zuten, beraiek adierazi zuten agian bizitza aktibo bat eramatea nahikoa izan zitekeela markatzaile biokimikoetan aldaketarik ez izateko (Ratel eta lank., 2012). Aitzitik, adin ertaineko pertsona gizenekin burututako ikerketa batean lau asteko etete-aldia nahikoa izan zen IL-6a era estatistikoan areagotzeko (Nikseresht, 2014B).

Ariketa fisiko gidatua eteteak adiponektinaren mailan duen eraginaren inguruan oso gutxi ikertu da eta are eta gutxiago emakumeengen. Horretaz gain, ikerketa desberdinek emaitza kontrajarriak adierazten dituzte. Gizon gazte, argal eta aktiboetan egindako ikerketa batean jarduera egiteari utzi eta hilabetera odoleko adiponektina maila igo egiten zela ikusi zuten (Gastebois eta lank., 2016). Ordea, Nikerescht eta lankideek, (2014b) ikusi zuten adin ertaineko gain-pisua zuten subjektuetan hilabeteko etete-aldia nahikoa zela adiponektina mailan beherakada bat antzemateko eta adin nagusiko gizon sedentario gizenen kasuan, beherakada bat behatu zuten baita sei hilabeteko etete-aldian ere (Fatouros eta lank., 2005). Gure ikerketaren kasuan, ariketa fisikoaren hiru hilabeteko etete-aldiaren ondoren ez zen adiponektinaren mailan aldaketarik ikusi, taldea era orokorrean aztertzen badugu.

Aldiz, generoa kontuan izanik banaketa bat burutzen badugu, emakumeen kasuan ez zen aldaketarik ikusi baina gizonezkoen kasuan adiponektinak %9,7ko beherakada izan zuen, era horretan, emakumezkoen adiponektina maila baino estatistikoki baxuagoa izanik gizonezkoena. Beraz, gure ikerketako emaitzak ere, gizonezkoen kasuan, beste ikerketa batzuetakoekin bat datoz, gure kasuan ere adiponektinaren mailan beherakada agertu baitzen etete-aldiaren ostean.

Generoen artean etete-aldean erantzun desberdinak izatearen arrazoia hormona sexualetan dauden desberdintasunagatik eta baita testosteronak adiponektinaren duen inhibizioagatik ere izan litzke (Bucci eta lank., 2013; Sato eta lank., 2014).

Ikerketa askok adierazi dute adiponektina maila baxuak, hiperinsulinemiarekin, intsulinari erresistentziarekin, diabetesarekin eta esteatohepatitis ez-alkoholikoarekin erlazionatuta daudela (Cnop eta lank., 2003; Fang eta Judd, 2018; Jamali, Arj, Razavizade eta Aarabi, 2016).

Adiponektina maila altuak, bai iragarpentzien zein txarrekin erlazionatu dira. Gure ikerketaren kasuan adiponektina maila altua izatea perfil lipidiko hobeago (HDL altuagoa eta trigilizerido baxuagoa) batekin erlazionatu da, bai ariketa fisiko gidatua bukatu zutenean egindako analisietan eta baita hiru hilabeteko etete-aldiaren ostean ere. Emaitza hori bat dator beste autore batzuek diotenarekin (Kantartzis eta lank., 2006, Cnop eta lank., 2003). Gainera, alderantzizko erlazio bat ikusi genuen etete-aldiaren ostean adiponektina eta HbA1c-ren artean. Parametro hau maila altuan izateak gluzemiaren kontrol urria dagoela adierazten du; beraz, hau horrela izanik, adiponektina maila zenbat eta altuagoa izateak, gluzemia kontrola orduan eta hobeago dela adierazten du. Hori bat dator bibliografian aurkitzen denarekin, adiponektinak intsulinaren sentsibilitatean eta gluzemiaren kontrolean esku hartzen baitu (Cnop eta lank., 2003, Ruan eta Dong, 2016).

Bestalde, hiru hilabeteko etete-aldiaren ostean adiponektina maila altua funtziotik fisikoko emaitza okerragoekin erlazionatu zen, zehazki oreka dinamikoarekin eta gaitasun aerobikoarekin, eta gizonezkoen kasuan beheko gorputz-adarreko indar baxuarekin ere bai. Aurretik beste ikerketa batzuetan adierazi izan dute adiponektinak erlazio negatiboa

zuela esku indarraarekin (Bucci eta lank., 2013), kuadrideseko indarrarekin (Bucci eta lank., 2013; Karvonen-Gutierrez, Zheng, Mancuso eta Harlow, 2016) eta sarkopeniarekin (Harada eta lank., 2017).

Azken urteotan *adiponektinari erresistentzia* terminoa erabili ohi da. Autore batzuek adierazi dute adiponektinaren maila handitzea muskularen funtzionabilitatearen beherakadarekin erlazionatuta dagoela eta gertaera adiponektinaren disfuntzioari esleitzen zaio, mintzean dauden bere hartzaleei, hala nola, adipo R1, R2 eta/edo T-Cadherina-ri, edo baita metabolismo zelularrean implikatuta dauden prozesu (intra) zelularrei. Hau horrela, odolean adiponektina kontzentrazio altuak izan arren, izan daiteke zelulek modu desegokian erantzutea, hain zuzen ere muskuluan aurkitzen direnek, horrek emaitza okerrak ekarri ditu batez ere beheko gorputz-adarreko indarrean eta erresistentzia aerobikoan.

Beraz, adiponektina biomarkatzaile berebizikoa izan daiteke pertsona nagusien funtzi fisikoan ematen den narriadura antzemateko. Baino kontuan izan behar da emaitza hauek gizonezkoengan soilik frogatu ahal izan genituela. Hori izan liteke etete-aldiak eragin desberdina izan dezakeelako gizonetan eta emakumeetan, batez ere adiponektinarekin lotutako fisiologia desberdina delako batzuen eta besteen artean.

Ariketa fisikoaren etete-aldean, partaideen %18,4k (9 pertsonak) erorketaren bat izan zuen, baina bakar batek ere ez zuen garrantzizko ondoriorik izan. Kontuan izan behar da zahartzaroan erorketengatik sortutako lesioak ohikoak izaten direla, izan ere, gutxi gorabehera 65 urtetik gorako herenak gutxienez urtean erorketa bat sufritzen du (Giordano eta lank., 2016). Gure ikerketan erorketa bat izan zuten partaideen portzentajea espero daitekeen portzentajetik gora dago.

Etete-aldean zehar erorketa izan zuten partaideek, ariketa fisiko gidatua bukatu ondoren egindako neurketetan (hasierako neurketak) jada emaitza baxuagoak izan zituzten oreka dinamikoaren testean ($5,0 \pm 0,9$ vs. $5,4 \pm 0,4$ segundo) nahiz eta desberdintasun horiek ez ziren estatistikoki esanguratsuak izan.

Emaitza hauek bat datozen bibliografian aurkitzen direnekin, horiek esaten baitute oreka beharrezko elementua dela erorketen arriskua ekiditeko (Howe eta lank., 2011), eta baita hori mantentzea garrantzitsua dela ere, independente izaten jarraitzeko (Maillot, Perrot, Hartley eta Do, 2014). Beraz, kontuan izanik etete-aldiak beheko gorputz-adarreko indarrean, koordinazioan eta orekan beherakada dakarrela, horrek guztiak erortzeko arriskua handitu egiten du, beraz, hori saihesteko, aurretiaz saioetan egin dituzten oreka ariketa zehatz batzuk egitea gomendatzea izango litzateke egokiena.

Ariketa fisiko gidatuaren etete-aldiaren ostean, erori zirenek erori ez zirenkin alderatuz beherakada handiagoa izan zuten funtzio fisikoan, adierazgarritasun estatistikora iritzi gabe. Beheko gorputz-adarreko indarrean eroritakoak bataz beste %-4,6 galdu zuten, ez eroritakoak ostera %0,5, goiko gorputz-adarreko indarrean, eroritakoak bataz beste %-2,9 ez eroritakoak %4,4. Oreka dinamikoan (%7,9 vs. %5,3) eta gaitasun aerobikoan (%0,5 vs. %1,1) ere jaitsiera handiagoa izan zuten erori zirenek. Horren arrazoiatariko bat izan liteke erorketek lesioa sortzea, eta horrek jarduera fisikoan mugak, independentziaren galera eta funtzio psikologikoaren beherakada ekartzea (Stel, Smit, Pluijm eta Lips, 2004; Tinetti eta Kurman, 2010; Tsonga eta lank., 2016).

Hortaz gain, etete-aldian zehar erorketaren bat izan zuten partaideek erori ez zirenkin konparatuta, etete-aldia baino lehen osasunarekin erlazionatutako bizi kalitateko (SF-36) dimentsio guztietai emaitza baxuagoak izan zituzten. Horien artean, funtzio fisikoan ($p <0,05$), rol emozionalean ($p <0,05$) eta osasun mentalean ($p <0,05$) ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak izan ziren.

Hori ikertu duten lanak urriak izan arren, bizi-kalitatean puntuazio baxuagoak izateak erortzeko arriskuarekin erlazioa daukala ondorioztatu dute autore batzuek (Bilotta eta lank., 2011). Gainera, erorketa baten ondorioz eskumuturreko eta aldakako haustura izan dutenek, hau gertatu baino lehen ere SF-36ko dimentso batzuetan balore baxuagoak adierazi zituzten, erorketarik izan ez zuten pertsonekin alderatuz (Rohde, Mengshoel, Haugeberg, Moun eta Wahl, 2008; Rohde, Mengshoel, Wahl, Moun eta Haugeberg, 2009). Beraz, erori baino lehen pertsona horiek balore baxuagoak ematen dituztela ikusita, etorkizunean hori ikertzea interesgarria izango litzateke, agian beraiek zerbait

sentitzen baitute erori baino lehen eta hori zehazteak izugarri lagundu lezake erorketak kontrolatu ahal izateko.

Ariketa fisiko gidatuauren etete-aldian erorketa izan zuten parte-hartzaileek, tarte horren ondoren ere balore baxuagoak izan zituzten dimentsio guztieta; eta horretaz gain, izan zuten beherakada ere handiagoa izan zen. Desberdintasun estatistikoak aurkitu ziren ondorengo dimentsioetan: rol funtzionalean eroritakoek %33,3ko beherakada izan zuten besteek ostera %-2,5ekoa, osasun orokorrean (%-9,1 vs. %-1,7) eta osasun mentalean (%-4,6 vs. %-2,9); beraz, erorketa batek pertsona nagusien bizi-kalitatean eragin ezkorraek ekartzen ditu (Sherrinton eta lank., 2011; Thiem eta lank., 2004). Gainera, behin erorketa bat izan duten pertsonak beldur dira berriz erortzeko, eta jakina da erortzeko beldur horrek eragin handia duela bizi-kalitatean (Asai, Misu, Sawa, Doi eta Yamada, 2017). Ikerketa batean erortzeko arriskuaren eragina doitu ondoren, ikusi zuten erori ziren bizi-kalitatea erori ez zirenena baino baxuagoa zela. Hori izan daiteke, erorketa batek lesioaren bat ekar dezakeelako, mugak jarduera fisikoan, independentzia galera eta beherakada bat funtzió psikologikoan (Tsonga eta lank., 2016), eta argi dagoena da horrek guztiak eragin handia daukala bizi-kalitatean.

7. MUGAK ETA ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK



7. MUGAK ETA ETORKIZUNERAKO PROPOSAMENAK

7.1 Mugak

